# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-01-25
EGUBAKOITZA
538. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## "Frackingerako baimen eskaera bada ibarrean"



**Azaitz Unanue**
Fracking Ez Araba plataformakoa | 8

## 'Goiena.net' %20,81 hazi da iaztik hona

Goienak hazten eta sendotzen segitzen du, datuen arabera | 5

Debagoieneko pianisten emanaldia eguaztenean Arrasaten | 31



Oñatiko kultura etxeak 10 urte eta milaka erabiltzaile | 10



Ndank Ndank-ek bukatu ditu eskolako bi gelatako lanak | 24



# 150 KILOKO SARDINA ARATUSTEEN SUA PIZTEKO

Ibarreko koadrilek ere jo eta su dihardute mozorro festa gertatzeko lanetan | 2

Javier Mondragon, Andoni Altzelai eta Jose Vazquez, atzo, eguena, sardina prestatzen, Arrasateko Nafarroa etorbideko lokalean. | UBANE MADERA

## Kartzela-zigor eskaera egin dute presoen argazkiengatik

Lau inputatu daude Korrikan argazkiak eramateagatik | 4

### SINADURAK

RESU ABASOLO | 6
6 | ARRITXU BARRUSO
MARIJO PAGALDAI | 24
26 | ANDERE ARRIOLABENGOA
AINTZANE OIARBIDE | 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 29
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

# GI-632ko obretan langabeentzat aukera

Diputazioaren eta tokian tokiko udalen ekimena da

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta, besteak beste, Debagoieneko langabeek lehentasuna izango dute GI-632 errepideko obretako kontratazioetan. Interesa duenak Bergarako edo Antzuolako udalean eman behar du izena otsailaren 2a baino lehen. Moyua eta Antzibar enpresek egingo dituzte lanok, bi urte eta erdiko epean. Eta, hain zuzen ere, eurak arduratuko dira langileen hautaketa prozesuaz. | 4

Passat Alltrack



Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70
Das Auto.



WOK
zabaldu berria Arrasaten!
Menua, postrea barne.
10 menu hartuta, 1 DOAN
BEREZITASUNAK
• Itsaski-janak
• Frijituak
• Plantxa
• Sushia
• Parrilladak

SHENG XING YUAN
943 79 90 29 / 629 41 59 58
Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab.
San Andres auzoa.
ARRASATE

# Aratusteetarako gertu egoteko, jo eta su lanean

## Aurten, Aratuste-zapatua otsailaren 9a da, eta koadrilek jo eta su dihardute karrozak prestatzen


Ibai Zangitu eta Mikel Alberdi, karroza eroateko erabiliko duten traktorearekin. | ARRITXU BARRUSO

**LEIRE KORTABARRIA** | DEBAGOIENA

Aurten Aratusteak inoiz baino lehenago tokatu dira: otsailaren 9a da aurten Aratuste-zapatua. Eta badirudi horrek eragina duela Debagoieneko koadrilengan, izan ere, denbora txikiagoa izango zutela ikusita-edo, karroza egiteko ohitura zuten hainbat koadrilak aurten ez egitea erabaki dute. Bereziki Arrasaten gertatzen dabil hori.

Aretxabaleta izaten da Debagoieneko Aratusteetako erakargune handiena, eta ospe horri eusteko asmoa dute hango gazteek eta helduek. Hori horrela izanda ere, aretxabaletarrak ere denboraz larriago dabiltza, Mikel Alberdi gazteak dioskun bezala: "Aurten denboraz estuago gabiltza, bai. Gabonak eta oporrak, azterketak… fetxak ez dira aurten oso ondo tokatu. Serio lanean, aurreko astean edo bi aste lehenago hasten gara".

### Ingeniariak, peoiak...

Karrozak ondo egitea lan handia da. Horregatik, Aretxabaletako koadrilek lanak banatzen dituzte: *ingeniariak* dira batzuk, *peoiak* beste batzuk, diruzainak ere beharrezkoak dira… Diruzainen zeregina ere oso garrantzitsua da; izan ere, Mikel Alberdik dioenez, "500, 600 euro, iaz 700… Asko kostatzen da karroza egitea". Eta, geor, denek aktore lanak egin behar dituzte, izan ere, "antzezpena ere oso garrantzitsua da; paperean sartu behar zara", Alberdiren esanetan.

Azken momentura arte gordeko du koadrila bakoitzak bere mozorroaren sekretua: "Aretxabaletan, Aratusteak erlijio bat modukoa dira, eta horren zati bat da mozorroa inori ez kontatzea".

### Emaitzak merezi du

Dedikazio horrekin, aretxabaletarrek argi dute ez dutela lehiakiderik: "Sentitzen dut, baina Arrasate ez da konpetentzia. Kopiak inoiz ez dira jatorrizkoak baino hobeak. Aretxabaletan Maritxu Kajoi egitea bezala izango litzateke: ez da gauza bera", zirikatzen ditu arrasatearrak Mikel Alberdik.

Ez dago ados Arrasateko Azkenpote koadrila: "Arrasateko Aratusteak, azken urte hauetan, oso gogor dabiltza; urtetik urtera, karrozak hobeak dira. Ez dakit Aretxabaletako parera gauden, baina oso gutxi falta zaigu". Eta hauxe gaineratzen dute: "Badakigu zaila dela eta ahalegin handia egin behar dela karroza egiteko, baina gero, emaitza ikusten duzunean… merezi du".

Azkenpote koadrilakoek ez dituzte lanak banatzen, baizik eta "hierarkia lau" gisa dihardute: "Denok laguntzen dugu, denok ematen ditugu ideiak… Ez dago *jeferik*". Diruzainik ere ez dute:





ESANAK

**"Arrasateko karrozak gero eta hobeak dira; ia Aretxabaleta harrapatu dugu"**

AZKENPOTE KOADRILA
ARRASATEARRAK

**"Arrasate ez da konpetentzia. Guk Maritxu Kajoi egitea bezala da: ez da jatorrizkoa"**

MIKEL ALBERDI
ARETXABALETARRA



SUDCeko hiru lagun, sardina muntatzen, astelehenean. | LEIRE KORTABARRIA



Arrasateko Azkenpote koadrila, lanean. | SERGIO AZKARATE

"Nork bere diruarekin ordaintzen du, eta gero, azken egunean, kontuak egiten ditugu". Ez dute Aretxabaletakoen moduko aurrekontu potolorik: "Gutxiago ipiniko dugu: karrozaren plataforma betikoa da, ez genuen ezer ordaindu, geuk egindakoa da; eta gero, zer asmatu dugun arabera, apaindu bakarrik egiten dugu".

Arrasaten ere giltzapean gordetzen dute koadrilek mozorroaren edo karrozaren sekretua, baina lagun-talde horrek pista bat eman digu: "Musika gustatzen zaionari, ikus dezala".

**160 kiloko sardinatzarra**

Arrasatearrek badute ohiko bihurtu den beste elementu bat: Aratusteak bukatzeko, sardina erreko dute. Egurrezko, kartoizko eta paperezko sardina hori egiteko, egunero, goiz osoan, SUDCeko hiruzpalau kide ibiltzen dira. Andoni Altzelai da horietako bat eta, bere hitzetan, "erretiratuak gara eta pozik ibiltzen gara". Lana musu-truk egiten dute, eta Aratuste-martitzenean eurek eroango dute bizkar gainean: "Alde bakoitzean sei lagun ipintzen gara. 160 bat kilo hartzen ditu sardinak, azkenean", dio Altzelaik.



Hartza eta domadorea. | J. ARANTZABAL

**Hartza, Antzuolan dantzan**

Antzuolan ere, pertsonaia ezagunak bueltatuko dira Aratusteak alaitzera: hartza, tximinoa eta domadorea kalerik kale ibiliko dira Aratuste-domekan, eta plazako dantza emanaldian ere izango dira, Oinarin dantza taldekoekin eta beste herritar batzuekin.



Antolatzaileak, pertsonaia eta jantzi batzuk erakusten. | TXOMIN MADINA

## Estreinaldia izango dute Oñatin

Oñatin, Aratuste ospakizun berriak sortu dituzte. Europako ospakizunek dituzten elementu komunak hartuta, arropa, musika, dantza eta pertsonaiak sortu dituzte Oñatzeko dantzari eta dantzari ohiek, musikariek eta hainbat norbanakok. Azken urteotan Luzaideko Inauteri dantzarekin egin den moduan, aurten ere hainbat oñatiarrek parte hartuko dute. Informazio eguneratua Facebook-en ipintzen dute (*www.facebook.com/onatiko.inauteriak.9*).



# Kartzela zigor eskaera, presoen argazkiengatik

Aurreko Korrikan presoen argazkiak eramatearren epaiketa dute lau debagoiendarrek

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Bergarako hiru lagunek (Amaia Osa, Sebas Etxeberria, eta Iñaki Manuel) eta arrasatear batek (Joseba Garitaonaindia) epaiketa dute Madrilen, Auzitegi Nazionalean, otsailaren 4an, 10:00etan. Arrazoia: orain bi urteko Korrikan presoen argazkiak eramatea. Akusazioak 15 hilabeteko kartzela zigorra eta zortzi urteko inhabilitazioa eskatzen du, akusazioaren arabera, "terrorismoa goraipatzea" egotzita.

"Lasai gaude, abokatuak esan digulako ezin dugula gauza handirik egin. Ez da kasualitatea aurtengo Korrika hasi baino hilabete lehenago izatea epaiketa. Uste dugu sententzia ere Korrika hasi baino lehenago aterako dela, helburua izango delako mezua zabaltzea aurten presoen argazkirik ez ateratzeko", dio Iñaki Manuelek.

Bada, hori salatzeko, protestak egingo dituzte Bergaran eta Arrasaten: otsailaren 2an manifestazioa egingo dute Bergaran, 19:00etan, San Martin plazatik aterata. Mozioa ere sartuko dute Bergarako Udalean, "Udal Gobernuaren babesa eskatzeko". Eta otsailaren 1ean bertso saioa egingo da bertako Zabalotegi aretoan, Alaia Martin, Unai Gaztelumendi, Miren Amuritza eta Aitzol Barandiaran bertsolariekin, 22:00etan. Arrasaten, berriz, alderdi politikoekin egon gura dute.

**Ahozko ikustaldia, iaz**

Orain epaiketa duten arren, lau lagunok eta beste bi (Ibai Redondo eta Unai Arantzabal bergarararrak) egonda daude Auzitegi Nazionalean: azaroaren 30ean. Izan ere, hasieran sei lagunen kontrako zitazioa bideratu zuen Ertzaintzak, Korrikan euren partaidetza erakusten zuten argazki eta guzti. Auzitegi Nazionalean ahozko ikustaldia izan zuten, Pablo Ruz epailearekin. Denek onartu egin zuten Korrikan parte hartu izana, presoen argazkiak eramanez. Bista oralaren ostean, inputatutako sei lagunetatik lauk epaiketarako zitazioa jaso zuten eta Arantzabal eta Redondo prozesutik libre utzi ditu epaileak, Ertzaintzak aurkeztutako argazkiak eta euren nortasun agirietan datozenak ez direlako "erabat berdinak".



Goian: Garitaonaindia eta Etxeberria; behean: Manuel eta Osa. | GOIENA



Antzuola, Bergara eta Urretxuko alkateak, diputatua eta Legazpiko alkatea. | U.M.

# Langabeek lehentasuna GI-632ko obretan

Otsailaren 2a aurretik eman behar da izena, Bergaran edo Antzuolan

**GOIATZ ARANA** | BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean aritu dira Bergara, Antzuola, Legazpi eta Urretxuko udalak, eta GI-632 errepideko Antzuola-Bergara zatiko lanak egin behar dituen aldi baterako enpresaren aldetik (Moyua eta Antzibar) konpromisoa lortu dute: kontratazio berriak behar izanez gero, sektore horretako eskualdeko langabeek lehentasuna izango dute. Zabalik dago izena emateko epea lau udaletan, otsailaren 2ra arte (09:00-13:30).

Eskatzen dutena da eraikuntza lanetan esperientzia eta gida baimena izatea, eta euskara edo gaztelania menperatzen dituzten adieraztea, nahiz eta lehentasuna emango dioten euskararen ezagutzari; horrez gain, lehenetsi egingo dituzte emakume langabeak, gizarteratzeko arazoak dituztenak eta zailtasunak dituztenak. Izena emateko, aipatu udaletxeetako sarreran lan inprimakiak bete beharko dira. Udalek jasotzen dituzten inprimaki guztiak Moyua eta Antzibarri bideratuko dizkiete, baina udalek ez dute hautaketa prozesuan parte hartuko.

Lanek bi urte eta erdi iraungo dute eta otsilaren 4an hasiko dira, seguru aski.

**"Onuraren bat ere ekartzea"**

Larraitz Ugarte Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako diputatuak esandakoaren arabera, Diputazioak, garai ekonomiko zail hauetan, bertako enplegua sustatzearen aldeko apustua egiten du, eta hori da enpresa hauek hartutako konpromisoa, hain justu, bere hitzetan: "Halako lanek ingurunean eragin handia izaten dute, baina askotan ez dute onura handirik uzten, eta guk nahi genuen lan honek, eskualdean eragin handia izango duen honek, bailarako herrientzat onuraren bat ere ekartzea, eta bertako langabetuei lanerako aukera ematea positiboa dela uste dugu. Gainera, azpikontratazioak sortzen duen eremu iluna ekiditeko modua ere bada. Enpresak bere langileekin ez badu nahikoa, ez du beste enpresa bat azpikontratatu beharrik, zerrenda horretara jo, eta eskualdeko langileak hartuko ditu". Hori bai, diputatuaren esanetan, "lehenik eta behin enpresako langileen egonkortasuna bermatuko dutela esan du enpresak, baina langileak behar izanez gero, bailarakoek lehentasuna izango dutela".

## Diputazioko ordezkariak, Antzuolan

GI-632ko lanen maketa Bergarako udaletxean dago ikusgai, astelehenera arte. Egun horretan Antzuolara eramango dute, pleno aretora, eguaztenera arte. Egun horretan, antzuolarrekin bilera egingo du Diputazioak, obrak kaltetzen dituztenei azalpenak emateko. Bilera Olaran etxean izango da, 18:00etan.




AITTOR ARANTZABAL

# Sektore publikoaren defentsan, LAB protestan

Debarroko LAB Eibarko udaletxearen aurreko aldean mobilizatu zen atzo, eguena, sektore publikoko langileen eskubideak eta lan-baldintzak defendatzeko. Espainiaren inposizioen aurrean, bertoko instituzioek hitza eta erabakia! lelopean egin dute protesta, Debagoieneko ordezkariak tarteko.

## Euskarazko aplikazioak batu eta sustatzeko: 'Euskalapps.net'

Euskarazko aplikazioak sustatu, promozionatu, garatu, saldu eta ezberdinen arteko sorkuntza bultzatzeko helburua duen webgunea abian da: *Euskalapps.net*. Euskal hiztunen komunitatearentzat eta, batez ere, gailu mugikorrentzat euskarazko aplikazioak sortuko dituztenen erreferentziazko webgune bilakatu nahi du *Euskalapps.net*-ek; bai kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat zein aplikazio egileentzat ere. Besteak beste, plataforma berriak egileen esku jarriko ditu erreminta zein interfazeetarako sarbideak, horrela sareko aplikazioak programatzeko.

# 'Goiena.net' %20,81 hazi da iazko datuekin alderatuta

CIES eta Google Analytics–en datuek erakusten duten moduan, Goienako hedabideek jarraitzaile fidelak dituzte, urtetik urtera gehitzen doazenak

ENEKO AZKARATE | DEBAGOIENA

Goienako hedabideak sendotzen eta hazten doaz urtetik urtera. GOIENA papera da irakurriena eskualdean askogatik (26.000 irakurle). Goiena telebistak, bestalde, ikus-entzule fidelak ditu, eta 7.000 ikusle ditu egunero Debagoienean eta 10.000 Gipuzkoan. Azkenik, *Goiena.net* atariak aurten ere gora egin du: %20,81 egin du gora bisita kopuruak eta egunero 5.000 erabiltzaile ditu, batez beste, astean barrena. CIES ikerketa etxeak emandako datuak dira paperaren eta telebistaren kasuan, eta Google Analytics-etik ateratakoak *Goiena.net*-enean.



*Goiena.net* atariko azala. | IMANOL SORIANO

**Paperekoa erreferente**

GOIENA paperak sendotu egin du bere nagusitasuna. Gure eskualdean erreferentzia nagusia da, 26.000 irakurle ditu astero, iaz bezala; hortaz, papereko euskarriek eta egunkari nagusien beheranzko joeratik aparte geratzen da.

Eskualdean, gehien irakurtzen den bigarren papereko euskarria El Diario Vasco da (15.000 irakurle). Ondoren datoz, Gara (5.000), Berria (3.000), Marca (3.000) eta Noticias de Gipuzkoa (2.000).

Gipuzkoan, bestalde, 31.000 irakurle ditu paperekoak, lurraldeko beste toki batzuetara ere banatzen eta irakurtzen baita. Laugarren papereko irakurriena da, El Diario Vasco (260.000), Hitza (64.000) eta Gara-ren atzetik (40.000) eta Berria-ren parean (31.000).

**Telebistak, hartzaile fidelak**

Goiena telebistak beste behin erakutsi du ikus-entzule fidelak dituela: gertuen dituzten kontuak euskaraz jasotzeko jakin-mina badagoela eskualdean eta horren bila Goiena Telebistara ohi doazela. Hala, azken urteotako joerari eutsiz, 7.000 lagunek ikusten dute egunero Goiena telebista Debagoienean eta 10.000 lagunek Gipuzkoa osoa kontuan hartuta.

Eskualdean seigarren telebistarik ikusiena da, Cuatro (6.000), LaSexta (4.000) edo TVE2ren (2.000) aurretik, eta TVE1 (9.000), Antena 3 (8.000) eta ETB1etik (8.000) oso gertu.

Bestalde, euskarazko tokiko telebisten artean, Goiena da nagusi: 10.000 lagunek ikusten dute egunero Goiena telebista, Hamaika (9.000), Goierri (5.000), 28 Kanala (4.000) eta Erloren (2.000) aurretik. Eta beste datu esanguratsu bat: 30.000 ikus-entzule dituzte Gipuzkoako euskarazko tokiko telebistek, Teledonosti (20.000) eta TVE2 baino gehiago (28.000).

**Interneten, gero eta sendoago**

Dena den, *Goiena.net* da, zalantzarik barik, urtetik urtera hazi eta hazi doan Goienaren hedabidea. Batez beste, 5.000 lagunek jarraitzen dute astelehenetik egubakoitzera, eta 3.000 lagunek zapatu eta domeketan.

2011ko datuekiko, %20,81 egin du gora bisita kopuruak eta, bisitari bakarrenak, %12,61. Datu esanguratsua, iaz urte osoan, milioi bat bisitarien mugan geratu bazen ere Goiena.net, aurten, aise gainditu du kopuru hori: 1.207.900 bisita izan ditu urte osoan.

Albiste bisitatuena, maiatzaren 11n, Arrasateko Gesalibar auzoko Aldape baserrian gertatutako ezbeharra izan zen: bi lagun hil ziren eta hirugarren bat larri zauritu. 8.884 bisita izan zituen albisteak.

"Errugabea" zela aldarrikatzeko Bergaran garabi gainera igo zen gizonezkoaren gaineko berriek eragin zuten horren ondotik bisita gehien.

Eta, hirugarren, hauteskunde biharamunean jaso zuen bisitari gehien *Goiena.net*-ek.

### Eskerrik asko!

Goienak eskerrak eman nahi dizkie irakurle, ikus–entzule eta erabiltzaileei, baita gure hedabideak horren jarraituak izateko Goienako lan taldearekin batera ari diren dozenaka kolaboratzaileei ere.

Aipatzea merezi du, baita ere, Aztikerrek gure hedabideen gainean iaz egindako azterketaren arabera, debagoiendarren ustez, Goiena "beharrezkoa edo oso beharrezkoa" dela, eta gure hedabideak "pluralak" direla.

## Sortu prozesua azken txanpan sartzera doa oraingo asteburuan

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA

Otsailaren 23ko Iruñeko kongresuarekin amaitu aurretik, herriz herri nola antolatuko diren erabakiko dute asteburu honetan Sortu prozesuan.

Hala, abenduan ildo politikoa aztertu ostean, jasotako emendakin guztiak bozkatuko dituzte, eta asteburu honetan antolaketa-eredu "parte hartzaile, malgu eta eraginkorra" erabakitzea dagokie. Eztabaidan jarriko dituzten galdera batzuk ondokoak izango dira: "Nola antolatuko gara gure herrian eraginkortasuna lortzeko? Zer egin militantziari konpromiso maila ezberdinak eskaintzeko? Nola lortu militantziak erabaki nagusiak hartzea? Nola zabaldu gure mezuak herritarrengana iristeko?

**Batzarrak non eta noiz**

Batzarrak (Elgetan izan ezik) bihar, zapatua izango dira, ondoko leku eta orduetan: Eskoriatzan: 10:00etan, Ibarraundi museoan. Aretxabaletan: 09:00etan, Arkupen. Arrasaten, 09:30ean, Kulturaten. Bergaran, 10:00etan, Irizar Jauregian. Oñatin, 09:00etan, Gaztelekuan. Antzuolan, 09:00etan, udaletxeko pleno aretoan; eta Elgetan, gaur, 19:00etan, kultura etxean.


Joseba Gabilondo eta Aitzol Loyola. | BAGARA

Aitzol Loiola eta Joseba Gabilondo | Bagara

## "Errealitatea eraldatu gura duten gazteak badaude ibarrean"

Urtarrilaren 30ean hasiko dira aurtengo saioak; bi astetik behin saio bat egingo dute

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Datorren astean abiatuko da Bagara Herrigintza Gaztea (BHG) gure ibarrean. Hirugarren urtea du aurten ekimen horrek. "Guztiontzat irekia" dela azpimarratu dute antolatzaileek:

**Iaz hezkuntza, kontsumoa, generoa, atez atekoa, hizkuntza... landu zenituzten, guztiak zuzeneko protagonistekin. Aurten zer lantzeko asmoa duzue?**

Lau balore hartzen ditugu oinarri: autogestio soziala, euskara, iraunkortasun ekologikoa, eta solidaritate soziala. Abiapuntu honekin gai oso ezberdinak lantzen ditugu. Urtero partaideei zein esparru jorratu nahi duten galdetu, eta guztion artean zehazten ditugu lantzekoak. Bi urtetako esperientzia ere kontuan hartuko dugu.

**Noiz dira saioak? Zelakoak dira?**

Urtarriletik maiatzera, bi astetik behin (guztira 10 saio inguru), asteazkenetan, 19:00etatik 21:00 etara. Lehena urtarrilaren 30ean da, Aretxabaletan Bagararen bulegoan (Larrin Plaza 1ean, Caja Laboral gainean, atzeko atetik sartuta). Elkar ezagutzeko saioa da, bakoitzak zein gai lantzea nahi duen ezagutu eta martxan hasteko. Ondorengo saioetan bailarako herrietan mugitzen joango gara, dauden talde sozial ezberdinen espazioetan saioak eginez. Hala bailarako taldeek zer egiten duten ezagutzen dugu ere.

**Iaz 12-20 bat lagun elkartu zineten; talde berak segituko du? Kide berriak onartuko dituzue?**

Bai, nahi duen oro apunta daiteke. Urtero taldekide berriak izaten dira, eta aurtengoan aurreko bi urtetako partaideak ere apuntatzea gustatuko litzaiguke. Horrela gazte ezberdinak elkar ezagutzeko baliagarria den espazioa ere bihurtzen da Herrigintza gaztea. Animatu nahi duenak: *gazteak@bagara.net*, edo 943 79 68 48ra deitu. Guztiontzat da irekia.

**Hirugarren urtea du ekimenak. Zenbat gehiago egingo duzue?**

Hau formazio ekimen bat da. Gazte ezberdinak biltzen ditu eta formazio saioak eurentzat interesgarriak direla ikusten duten heinean, antolatzen jarraitu ditzakegu. Ez dago aurre-eskemarik. Gure eskema erabat irekia da, partaideek urtero ebaluatzen dute egindako saioak interesgarriak suertatu zaizkien, hurrengo urtean BHG-a antolatzea merezi duen, zer hobekuntza egin daitezkeen…Eskema irekia gustatzen zaigu, ez dago diseinu itxi bat eginda; hori bai, urtero gehitzen doan esperientzia dugu.

**Gazteen formazioa bultzatzea da abiapuntua, zein da Bagarak gazteei buruz duen irakurketa?**

Askotan gazteei apatikoak izatea leporatzen zaie, baina bailaran badaude esparru ezberdinetan ideia berriak aurrera eramateko grina erakusten duten gazteak. Beharbada sormen eta ekintzailetasun hori sakabanatuta dago, eta beharbada ez da soilik ohiko gaietan azaleratzen, baina ekimen berriak sortzeko eta errealitatea eraldatzeko gogoa duten gazteak badaude.

**Besterik gaineratu gura baduzue...**

Bailarako herrietako gazteak biltzen direla, eta hori, bere horretan, oso aberasgarria dela. Sortzen diren harremanek potentzialtasun handia dute; gainera giro ederrean sortzen dira.

**"Bailarako gazteak biltzen dira, eta hori bere horretan oso aberasgarria da"**

## ZABALIK



**RESU ABASOLO**
http://goiena.net/iritzia/

# Zorioneko adostasuna

Errealitatea da atarteetan alkatearen bandoak ikustea Udal Gobernuaren akordioen ordez, edo jaietarako bi programa alternatibo jasotzea egitarau sendo baten ordez edota hainbat pertsona herriaren izenean hitz egiten entzutea norberarenean edo norberak ordezkatzen dituenen izenean egin ordez. Inork ez du bere erabakiaren zergatirik azaltzen, baina bai *bestearen* ezgaitasun eta erru guztiak.

Adibidez, zaborra arazo larria dela aitortzen dugu guztiok, eta bat eginik, irtenbidea bilatu ordez, besteengandik urruntzen gaituen horretan indarra jartzea erabaki dugu. Baina kontuz, hori bai, ezinbestekoa da proposamen bakoitza nork proposatu duen jakitea, horren arabera alde edo kontra jartzeko. Eta oker dabilena *bestea* da.

**"Bizitzako esparru guztietarako balio du: familiarako, lagunarterako..."**

Genero indarkeriara bagoaz, ez dago nik ezagutzen dudan amaren semerik horren alde dagoenik. Teorian ados egonez gero, zelan ezin adostu jokaerak? Adibidez, txiste matxistak behin betiko bukatu, berdintasunean oinarritzen ez diren tradizioak aldatu…

Politikariengana jauzi eginda, gobernu berriaren eraketa prozesua ikusten ari garen honetan, *akordioa* eta *kontsentsua* dira etengabe eta talde desberdinen aldetik entzuten diren hitzak. Eta ekintza adosturik? Nola lortu hori, hain interes gutxi adierazita *bestearen* proposamenengatik?

Baina adostasunak ere badu pedagogia. Norberarengandik, barruan daukagunetik hasi eta *bestea* kontuan hartzetik abiatzen dena, eta dituen abantailak izugarrizkoak dira. Adostasuna ekonomikoagoa, didaktikoagoa, osasuntsuagoa, sortzailea eta berritzailea da. Bizitzako esparru guztietarako balio du, gainera: familiarako, lagunarterako, lanerako… Horregatik, gizartegintzak eta politikagintzak ez du beste metodorik aurrera egiteko, adostasuna baino. Guztiontzako gustukoena ez izan arren, guztiontzat hoberena dakarrelako.

## USTEAK USTE

**ARRITXU BARRUSO** | abarruso@goiena.com

# Aretxabaletako misterioa

Kabina batean agertutako objektu misteriotsuek zeresana eman dute azkenaldian Aretxabaletan. Basurdea izan zen lehenengo, frutak gero, barruko arropak ere agertu ziren eta, azkenekoz, motor bat ipini dute kabina gainean. Misterioaren atzean zer eta zein dagoen ez dakit, baina eskerrak eman behar dizkiet artistei. Politika, hondakina, krisia, langabezia… Horrenbeste gai ilunen artean noizean behin gustura hartzen ditugu horrelakoak kazetariok. Gustatu zait, baita ere, alkatearen jarrera positiboa. Aretxabaletarrek irudimena duten seinale dela esan du eta errespetuz jokatzen den bitartean ez dagoela arazorik. Irrikan nago kabinan hurrengo zer agertuko den jakiteko.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/



## HANDIK ETA HEMENDIK

# Harold Fry–ren erromesaldia

**Joxe Aranzabal**
http://goiena.net/blogak/faroa/

Radio Euskadin izan nuen liburu honen berri, *El insólito peregrinaje de Harold Fry,* eta hizlariak halako sentimenduz hitz egin zuen liburuaz, erabaki nuen irakurri egin behar nuela.

Eta hementxe nago, ni ere hunkituta liburua irakurri ondoren, eta pozik irakurri dudalako.

Goiz batean, bere emaztea goiko solairuan ari dela xurgagailuaz garbitzen, Harold Fry etxetik irteten da gutun bat botatzeko asmoz hurbileneko postontzian.

Erretiratu berria da, eta imajinatu ere ezin du egin bidaia luze bati ekin diola, Ingalaterra hego muturretik ipar muturrera eramango duena.

Ibilian dabilela –Queenie aspaldiko lagunaren bila doa, hilzorian baitago, minbiziak jota–, bere burua aurkituko du han eta hemen, Ingalaterrako bazterretan aurkituko duen jendearen artean, eta oroimenetan aztarrika, aurre egingo dio bere bizitza markatu duen gertakizun izugarriari.

Beste askotan bezala, inportanteena ez da helmuga, bidaia bera baizik.

Eta egileak oso ondo bilbatzen ditu bidean zehar gertatzen diren istorioak.

Merezi du.

# Lagunak

**Anjel Lertxundi Esnal**
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Truman presidente ohi estatubatuarrak zioen Washington-en lagunen bat nahi duenak ondoan, hobe duela bere txakurrarekin joatea.

Obamak lagun mordoa bildu zuen joan zen asteleheneko aginte-hartze ekitaldian.

Orain lau urte baino askoz ere gutxiago, ordea: lagun asko galdu du bidean.

Ez du asmatu orduko konfiantzari eta ilusioari eusten, bere politikak ez du espero bezala luzitu.

Bi gerra eta krisi ekonomikoa izan ditu alibi.

Baina bidean hainbeste lagun galdu izanak badu zerikusirik agindutakoak ez bete izanarekin ere:

Lorpen sozialen balantzea ez da espero zena izan.

Eta Guantanamo ez ixteaz gainera, bera agintera iritsi zenetik Afganistanen eta Iraken atxilotutako zibil eta gerrillariek ez dute inolako berme juridikorik.

Mundu hobeago bat aginduz hasi du bigarren agintaldia.

Azkena du.

Lau urte barru ez dugu jakiterik izango zenbat lagun geratzen zaion txakurraz kanpo, zenbat galdu/irabazi dituen bidean.

OHARRAK (Post scriptum):

Luis Foix kazetari katalanaren kronika bati zor diot Truman presidenteak esandakoa.

Whashingtonengatik dioena berdin esan liteke munduko erresidentzia presidentzial gehienengatik ere.

Begira Zapateroren azkeneko hilebeteei Moncloan:

Inor gabe geratu zen Moncloan, kanpoan dena zakur eta dena zaunka zuelarik.

Martxa berdintsua hartua du Raxoik…

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# U-12

**Guillermo Azkarate-Askasua**
Bergara

Urtarrilaren 12an Bilbon izan nintzen, 110.000-115.000 horietako bat izan nintzen.

Esango nuke gizatasun heldu baten etsenplua izan zela; uretan pasatua, hori bai! Batzuek erantzun genion deiadarrari, horretan ere "busti" ginen, gero fisikoki euriarekin ere bustitzeko; beste batzuek ez ziren "busti" deiadarrarekin eta ezta euriarekin, ez ziren busti deus.

Nire uste apalean, izan zen giza eskubide basiko batzuen eskaera, ideologia gertuko batzuek antolatu zutena, eta Herriak erantzun eta artikulatu zuena; zergatik? Dei hori Herriaren sintonian zegoelako; horrela izan ez balitz, jendea –eta hainbeste– ez zen joango... edo bai? Ba ez! Zalantzan jartzen dut konbokatu ez zuten denek –batzuek kontra, beste batzuek... ai beste batzuek!–, denek batera ez zutela manifestaldi hain jendetsua lortuko, eta ziur nago ez dutela kapazitaterik biltzeko, ez –berdinegiak dira, eta zer esango luke Herriak; nire ustez, atzea emango lioke–.

Herria "defendatzen" dutenei, puntu honetara ailegatu eta esango nieke ez dela bidezkoa "politika fikzioa" egitea, zeren egoerak dira direnak, ez teoriak, eta ez teoria arraroekin justifikatu lezaketenak.

Hori horrela izanda, nabarmen ikusi ahal dezake, Herriaren dinamikaren kontra daudenak –telebistatik eta periodikoetan ikusi/ irakurri ahal izan dugu–, bi motatakoak izan dira "argumentu" moduko horiek.

Bata manifestaldia gertatu baino lehen argumentu arraroekin, adibidez esanaz gaizki dagoela eta abar, egin eta gero gertatzen da hau: 115.000 –batzuek interes zuzenekin, familiartekoak direlako presoak– oker dabiltzala eta bat –bakarrik bat– egiaren arrastotik, eta hau oso arraroa, ezinezkoa egiten zait, gezurraren kiratsa dario.

Egin eta gero esan dute horietakoak 10.000 pertsona zirela.

Ni neu ez naiz mutiko bat eta zin dagit agian sekula santan ez dudala hainbeste jende ikusi. Honek ere gezurraren kiratsa dario, gezurra zutabe duen ekintza politikoak oso urrats gutxi emateko bidea du. Hau da politika fikzioa bete-betean.

Ezin albo batera utzi isilean gelditu direnak, besterik ez bada gizalege oinarrizkoak, errebindikatu ez dituztenak eta euren burua euskalduntzat dutenak.

Nire hitzak ez ditzala haizeak eraman.

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Ander Lizarraldek eta beste batzuek ez dute ahaztuko

**Inge Irizar**
Arrasate

Aurrekoan, GOIENA paperean, berehala deitu zidan atentzioa eskutitz hasiera batek: "Herriak ez du ahaztuko aurreko asteko GOIENAn Alex Ugaldek egin zuen komiki tristea". Aurrerago GOIENAko linea editoriala aldatzearen alde egiten zuen Anderrek. Komikiak benetan deigarria izan behar zuela konbentzitua, aste bat lehenagoko GOIENA papera hartu nuen esku artean.

Animatzen zaituztet komikia berriz irakurtzera. Egia esan, komikia deigarria da. Eta ez hori bakarrik, anbiguoa ere bada, baina zentzu onean. Hau da, nire ustez, esanahi desberdinak izan ditzake. Nik, behintzat, ez nuen hartu Anderrek hartu zuen bidetik, ezta gutxiagorik ere.

Uste dut komiki honek noizean behin gure herriaren errealitateak ematen dizkigun paradoxak islatzen dituela. Urte batzuk lehenago arrazoi bategatik idatzitako pintada batek orain beste esanahi bat hartu du egoera berri baten aurrean.

Paradoxikoa eta umoretsua ere bai.

Hori da ilustrazio on batek duena, batzuetan bi edo hiru edo esanahi gehiago izan ditzakeela. Eta ez da zaila ikustea. Burua pixka bat ireki behar da, hori bakarrik. Izan ere, besteen ikuspuntua ulertzeko gogoa erakutsiz gero, lortzen da besteek zure ikuspuntua onartzea.

## Zorionak, zorionak, zorionak!

**Miren Laborda**
(Bergarako San Martin Agirre Herri Eskolako irakaslea)
Bergara

Ez dira garai errazak, are gutxiago eskola publikoarentzat. Alde guztietatik datozkigu murrizketak: ordezkapenetan, proiektu desberdinetako diru kopuruetan, langileon soldatetan... Hala ere, Bergarako San Martin Agirre Herri Eskolak oraingoan ere bere lanaren errekonozimendua jaso du: Eskola Jasangarri izendatu dute. Eta hori ez da oparitzen den *agiria*; izan ere, izendapen horren atzean ingurumena zaintzeko eskolak egiten duen lana dago. "Eskola jasangarria lortuz, gizarte jasangarria lortzeko lana bultzatuz".

Eskolaren konpromisoa da ikasleari heziketa integrala eskaintzea, eta, horregatik, ezinbestekoa da jasangarritasuna bultzatuko duen hezkuntzaren alde lan egitea. Hortaz, zorionak, hori guztia posible egiteagatik!

Zorionak ere eskolak abenduan jasotako Kalitatea Hezkuntzan (ikastetxeetan etengabeko hobekuntza-prozesuak sustatzen, errazten eta bultzatzen duen kudeatzeko sistema) ziurtagiriagatik.

Hemen ere, garrantzitsua da gure eskola kalitatekoa izan dadin egin dugun eta egiten jarraitzen dugun lana aipatzea.

Zoriontzekoa da azken hamarkadan gure eskolaren matrikula hirukoiztu izana. Duela urte batzuetatik hona gure eskolako azpiegiturak nahikoak izan ez diren arren, herritar askoren konfiantza eskuratzea lortu dugu denon lanari esker.

Gainera, datorren ikasturtetik aurrera, berreskuratu berri dugun Martinez de Irala eraikuntza martxan egongo da. Horrek gure proiektuarekin era egokian aurrera egin ahal izatea erraztuko du.

Zorionak, beraz, hori guztia posible egin duzuenoi. Zorionak, Zuzendaritzari, familia guztiei kalitateko eskola eskaini behar diegula argi izateagatik eta hori lortzeko lan itzela egiteagatik. Zorionak, irakasleriari, murrizketak jasan arren, lanean tinko jarraitzeagatik. Zorionak, gainontzeko langile guztiei (atezaina, garbitzaileak, sukaldariak, hezitzaileak, begiraleak...); eskolak bere lana burutu ahal izateko beraien laguntza ezinbestekoa baita. Zorionak, eskolako familiei, beraien seme-alaben heziketan inplikatu eta gurekin batera lan egiteagatik. Zorionak, ikasleriari, gure proiektuetako oinarria izanik, eskolako egunerokoan ilusio handiz parte hartzeagatik.

Eta zorionak, orokorrean, gure eskolak gaur egun herrian duen prestigioa sendotzen lagundu duzuen guztioi.

## Lourdes Idoiagari

**Iñaki Arregi**
Oñati

Kaixo, Lourdes. Lehenik eta behin, elkartasun mezu bat bidali nahi dizut, uste dudalako inork ez duela eskubiderik beste pertsona bat mehatxatzeko, bakarrik desberdin pentsatzen duelako. Badakit ere oñatiar petoa zarela eta zure herria maite duzula, ez daukat inongo dudarik.

Baina astelehenko *Goiena* papera hartu eta zure elkarrizketa irakurri dut, eta badauzkat ezadostasun puntu batzuk zurekin.

Lehenik eta behin, 350 pertsona joan zirela atez atekoari aukera bat eskatzera eta PaP Ez! Plataformako kideek 2.416 sinadura aurkeztu zituztela udaletxean bosgarren edukiontziari aukera emateko eskatzen.

Nik pixka bat urrunago joan behar dut. Hauteskundeetan, Bilduk, bere programan, Oñatin atez atekoa jarri behar zuela esaten zuen, beste gauza batzuen artean, eta herritarrek gehiengo osoa eman zioten, 3.000 bototik gora emanda. Horregatik uste dut zure taldetik (EAJ) hainbat aldiz defendadutako joko demokratiko horretan, Bilduk eskubide osoa daukala atez atekoa martxan jartzeko, eta ez eskubidea bakarrik; gainera, nire ustez, herritarrei emandako hitza betetzen ari da.

Garbi utzi nahi dut auzi honetan ez nagoela ez Bilduren alde eta ez EAJren kontra, ni atez atekoaren alde bakarrik nago.

Ados nago zurekin atez atekoa inposizio bat dela herritar batzuentzako, baina, nire ustez, ohiturak aldatu beharra dago zabor bilketarekin, eta bosgarren edukiontziarekin ez dut uste lortuko dugunik.

Adibide bat jarriko dizut: pentsa ezazu trafiko arau guztiak kentzen ditugula (trafiko araua ere inposizio bat da, baina ohituta gaude), nor bere autoarekin edozein kaletan ibili, edozein lekutan aparkatuta utzi, nahi duen norabidean ibili... Uste dut nirekin ados egongo zarela kaosa izango litzatekeela esaten dudanean.

Nire ustez, gaur egun zabor bilketaren gestioa horrela dago, eta herritar guztiei bilketarako arauak ipintzea beharrezkoa da, eta gaur egun ezagutzen dudan gestio bakarra hori arautu egiten duena atez atekoa da.

Bukatzeko, utzi politika alde batera eta pentsatu pixka bat atez atekoa martxan jartzen bada, hemendik urte batera herria hobeto, txarrago edo berdin egotea lortzen badugu denon artean %80 birziklatzea, ez dut uste inongo kalterik egingo digunik.

Agur bat, nire partetik.

## Korrika

**Maite Ilarduia Iztueta eta Lorea Ugarte Laskurain**
Bergara

Badatorkigu berriz Korrika, eta berarekin betiko bihotz taupa, betiko irrika.

Hala ere, eta lehenago gertatu bezala, hasiko zaizkigu zirika; hasiko zaizkigu talaia arrotzetatik harrika.

Euskara baita (eta beti izan da) aldarri nagusi, baina ez bakar. Korrika beti izan baita kolorea, aniztasuna eta bizia.

Euskararen aldeko aldarriak hartu izan ditugu, edonondik etorrita ere, eta gustura gainera. Bretainiatik zein Eskoziatik; Ameriketatik zein Irlandatik; atzerritik zein kartzelatik. Gurekin korrikan egin nahi eta, edozein arrazoi dela bide, egon ezin duten guztiak hartzen ditugu aldarri erraldoi honetan, bideoz, audioz, literaturaz, berriz, hitzez, argazkiz, kantuz, bertsoz, poemaz edo jokoz.

Eta minez ikusten dugu nola ito nahi izaten duten aldarri honen oihartzuna, nola nahi izaten duten isilarazi arima korrikan eta gorputza lotuta duten batzuen eskubide osozko aldarria, Euskararen, AEKren eta aniztasunaren aldeko oihua.

Beraz, togei eta mailuei zilegitasuna kendu eta Euskararen aldarri zintzoari leku egitea dagokigu, hauxe da eta herri honek eta bere hizkuntzatxo handiak behar dutena: elkartasuna, maitasuna eta, batez ere, "ahotan zein burutan, erabiliko duna".

Gora Euskara eta Eman Korrika Elkarri!

**Azaitz Unanue** | Biologoa eta Fraking Ez Araba plataformako kidea

# "Frakinga erabilita beste energia jasangarriago batzuetarako trantsizioa atzeratzen gabiltza"

▸ Fraking Ez Araba plataformako kideak dio frakinga, epe luzera, ez dela errentagarria

▸ Era berean, aldaketa klimatikoa azkartzen duela eta osasunarendako kaltegarria dela

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Gasa lurpetik atera eta ustiatzeko fraking teknika erabiltzearen kontrako ahotsak geroago eta gehiago dira, besteak beste, teknika hori ingurumenarendako eta osasunarendako kaltegarria delakoan. Azaitz Unanue biologo gasteiztarra, Fraking Ez Araba taldeko kidea, Bergaran izan da gaiaren gainean berbetan. Harekin izan gara.

**Fraking Ez Araba taldeko kide zara. Zeintzuk batzen zarete talde horretan?**

Plataforma irekia da, hainbat talde, elkarte, alderdi politiko, sindikatu eta norbanakok osatzen dute taldea. Manifestu baten inguruan, teknika horren kontrako ekimenak burutzen ditugu. Asanblada eragile bat dauka taldeak, asanblada irekia. 2011n sortu zen eta herritarrei informatzea da gure helburuetako bat, gainera datorkigunaz berba egitea. Era berean, azpimarratu behar dut iaz urrian Gasteizen oso manifestazio jendetsua egin genuela, Gasteizen inoiz egin den jendetsuenekoa, 13.000 lagun inguru batu ginen bertara. Horretaz gain, hainbat udaletan mozioak aurkezten gabiltza, gasa lurpetik ateratzeko fraking teknika erabiliz egin nahi dituzten zundaketen harira.

***Fraking* berba oraindik ere arrotza da askorendako...**

Bai, egia da, baina frakinga ez da teknika berria. Frakinga haustura hidraulikoa da. Modu laburrean esanda, hauxe: gas ez konbentzionala erausteko teknika bat. Harrian, pinporta txikietan, harrapatuta dagoen gasa erausteko teknika. Gasa pinporta txiki horietatik ateratzea zaila denez, harria hautsi egiten da, gas molekula horiek libre geratzeko eta erausteko. Eta, hori egiteko, ur txorrota bortitzak erabiltzen dira, ikaragarrizko presiokoak. Zehazki, ura, beste gehigarri batzuk eta harea erabiliz, 700 atmosferako presioko txorrotak jaurtitzen zaizkio harriari. Betiere, lur azpian dagoen harriaz eta gasaz ari gara.

**Teknika ez dela berria diozu...**

Hala da, 70eko hamarkadan hasi ziren garatzen eta erabiltzen Ameriketako Estatu Batuetan. Ez zen errentagarria izan urte askoan, baina 2000. urte inguruan hasi ziren erabiltzen errentagarria zelakoan, bereziki, zenbait baldintzapetan. Izan ere, garai hartan, gasaren prezioa handia zen eta 2005ean sortu zen lege berezi bat ahalbidetzen zuena zenbait ingurumen lege ez betetzea, Energy Policy Act delakoa, Dick Cheney Bushen bigarrenaren ardurapean. Traba burokratiko gehienak kenduta, 2005ean hasi zen teknika hau erabiliz gasa lurpetik modu masiboan erausten. Baina, gasaren prezioa murriztu egin zenean, teknika hau erabilita gasa ateratzea horren errentagarri ez zela ikusita, munduan barrena hedatu zuten. Eta hala heldu da Europara eta Euskal Herrira ere. Horretarako, Bushen gobernuak sortu zuen The Global Shale Gas Iniciative delakoa, frakinga zabaltzeko.

**Europan ere hedatzen joan da, hortaz?**

Bai, Polonian, esate baterako. *Boom* espekulatibo batean murgilduta gaude eta itxaropenak sortzen ari dira, hidrokarburoen mendekotasunaren karrera hau ahalik eta aurreren eroateko, beste energia jasangarriago mota batzuetarako trantsizioa atzeratzeko. Saihestezina den talka baten atzerapena besterik ez da. Oso modu arduragabean egina, gainera, ingurumenarekiko eta osasunarekiko sor ditzakeen kalteak handiak direlako.

**Euskal Herrian non egin nahi da?**

Jendeak uste du Arabako kontu bat dela, baina Euskal Herri osoan daude emakida eskariak. Araban, egia da, petrolioa edota gasa lurpetik ateratzeko hainbat saiakera eta zundaketa egin direla aspaldian. Hori da, esaterako, hidrokarburoen esplorazioa eta ustiapena egitea helburu duen Euskadiko Hidrokarburoak erakundea sortzeko arrazoia. Halere, Gipuzkoan bi emakida daude, eta Bizkaian, Nafarroan eta Iparraldean ere badira asmoak. Kantaurialdeko arroko zenbait plaka geologikotan zerbait atera nahi dute.

**Zundaketak egiteko ere erabiltzen da frakinga?**

Bai. Gas ustiaketa bat errentagarria izango den jakiteko frakinga erabiltzen da zundaketetan eta kaltea egiten da.

**Ingumenarekiko kaltegarria da?**

Bai, batetik, ur kantitate handiak erabiltzen direlako eta ura etorkizunean baliotsuagoa izango da gasa baino, ura eskasagoa izango delako. Bestetik, ur txorrota ez da urezkoa bakarrik, beste zenbait osagai kutsagarri eta kaltegarri eta area ere badauzka. Eta, azkenik, klima aldaketaren aurkako borroka atzeratu egiten da hidrokarburoen aldeko apustua egiten delako.

**Osasunarendako?**



Azaitz Unanue, martitzenean, Bergaran. | ENEKO AZKARATE

> **"Lur azpitik gasa ateratzeko, urarekin harria haustea da frakinga"**

> **"Klima aldaketaren aurkako borroka atzeratu egiten da metodo honekin"**

> **"Debagoienean ere frakinga erabiltzeko baimen eskaera egina dago"**

> **"Orain arteko eredu energetikoarekin jarraitzeko aitzakia da frakinga"**

Frakinga egiteko erabiltzen den urari hainbat sustantzia kutsagarri sartzen zaizkio. Horiek minbizia sor dezakete, mutagenikoak dira; hormonen sisteman kaletak egiteko ahalmena dute...

**Ze gas kopuruz dihardugu?**

Oso txikiaz. Aurreikuspenak handiak izan arren, benetan erausten dena ez da horrenbeste. Hori ikusi dugu Polonian. Urte gutxiren buruan asko murrizten da ateratzen den gasa.

**Teknika segurua da?**

Kontrakoa, oso arriskutsua da. Gainera kutsatzen ditu lur aziko zein lur azaleko urak; gas ihesak gertatzen dira, akuiferoak pozoitzen dira...

**Gipuzkoan non egin nahi dituzte zundaketak?**

Oraingoz bi eskaera egin dituzte, lurralde osoari eragiten diotenak. Batean, Sustraia deiturikoan, Bergara dago erdi-erdian. Oñatitik Elgoibar Iparralderaino eta Elorriotik Azpeitiko mugaraino doa frakinga erabiliz gasa lurpetik ateratzeko eta ustiatzeko zundatu nahi duten eremu hori. 56.000 hektareako lur eremua da. Bestetik, Tolosaldean, Durangaldean, Araban, Ebro aldean, Nafarroan…, asko dira eskaerak. Ikerketa baimenak dira.

**Zundaketak egiteko eta gasa ateratzeko hobiak erabiltzen dituzte?**

Bai, eta ez gabiltza hobi bakarraz hitz egiten. Hobi eta dorre bat jartzen da, baina handik urtebetera, haren ekoizpen ahalmena %65 gutxitzen da eta ondoan beste hobi bat jartzen da. Horrela etengabe, lur azala eta azpia zulatuz. Industrializazio sakabanatuaz ari gara, non eremu zabalak hobiz eta dorrez betetzen diren.

**Ze eremu hartzen dute dorreek?**

Bi hektareako bi edo lau dorre eta hobi erabil daitezke. Dorrea ez da horren altua.

**Enerjetikoki burujabe izateko aukera bat da?**

Gauza bat dira aurreikuspenak edo itxaropenak, baina orain arteko esperientziek erakusten dute hasierako aurreikuspenetatik oso urrun dagoela benetan lortzen den gas kopurua eta, batez ere, urtebeteren buruan asko murrizten dela gas ustiaketa ahalmena. Patxi Lopezek esan zuen hemen lor daitekeenarekin ematen digula burujabetza energetikoa 60 urtetarako Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumoa kontuan izanik. Ameskeria da. Beste industrializazio bat garatzeko kimera, oraingo eredu energetikoari eusteko aitzakia.

Mailu Lasarte eta Gurutze Sarasola | Gasteizko IKAko arduradunak

# "Gasteizko IKA Debagoienera begira"

HABEren azterketa gainditzeko prestakuntza ikastaroen beharra sumatu dute IKAko euskaltegietan.

**IKA Nafarroako eta Arabako zenbait euskaltegik osaturiko koordinakundea da. IKA 1989an sortu bazen ere, osatzen duten euskaltegiak askoz lehenagotik ari ziren helduen euskalduntze eta alfabetatze lanetan. Gasteizen daude IKAko ikasle gehienak, eta eskaintza zabala du, Debagoieneko jendeari ere interesatu ahal zaiona.**

**Zer ikastaro eskaintzen dituzue Gasteizko IKAn?**

Gasteizen gaudenez gero, ia ikastaro guztiak euskalduntzekoak izaten dira, alfabetatzeko ez da eskaririk sortzen; baina badugu bestelakorik ere, esaterako, administraziorako trebakuntza ikastaroak, lan munduari eta merkatariei zuzendurikoak eta abar. Ikasle gehienak euskaltegietan ditugun arren, enpresa, institutu, administrazio eta Arabako hainbat herritatik etortzen zaizkigun eskariei ere erantzuten diegu.

**Astean zenbat orduko ikastaroak izaten dira?**

Euskaltegietan, batez ere, astelehenetik ostiralera bitarteko ikastaroak izaten dira: egunean bi, hiru edo bost ordukoak; goizeko zortzietan hasi eta gaueko hamarrak artekoak. Mailen edo helburuen arabera, astean bi edo hiru egunekoak ere badauzkagu, eta aurten larunbatetan ere eskaini nahi dugu. Horiez gain, ikastaro espezifikoen ezaugarrietara moldatzen gara, dela ordutegia, dela egutegia... Zer eskatu hura ematen dugu.

**Zer behar izaten dituzte zuenera hurbiltzen diren ikasleek?**

Lehen esan dugun bezala, guregana etortzen diren ikasleak euskara ikastera datoz, ezagutza jasotzera, batik bat. Ikasteko bide horretan, gaur egun lorpen garrantzitsuak dira tarteko mailetako egiaztatzeak; hori dela eta, askoren helburua izaten da titulua eskuratzea. Hezkuntza arautuan B eta D ereduetan ibilitakoek ere euskaltegira jo ohi dute tituluak lortzeko azterketak prestatzera. Bestetik badira ere batzuk euskara ikasi ondoren nahi beste erabiltzeko aukerarik ez izaten dutenak, eta horiek ere guri eskatzen digute nolabaiteko zerbitzua.

**Beraz, euskara irakasteaz gain, euskararen erabilera sustatu egiten duzue?**

Jakina, guretzat ikastearen azken helburua erabiltzea da, baina ez da hurrenkeran azkena, hau da, ikas prozesuaren hasieratik bertatik bultzatzen dugu erabilera gure metodologia komunikatiboaren bidez, eta hori indartzeko udan barnetegiak antolatzen ditugu Lesakan (Nafarroa). Horretaz gain, euskara eskoletatik ateratzeko ahalegin handiak egiten ditugu eta kultur ekitaldi ugari antolatu: antzerkia, txangoak, hitzaldiak, asteburuko barnetegiak...

**Bistan da jende askorengana iristen zaretela, baina Debagoieneko ikasle asko gerturatzen zaizue?**

Badira batzuk, baina ez da arruntena; Debagoieneko herri guztietan edo gehienetan badira euskaltegiak, eta horietan gure ohiko zerbitzu bera edo antzekoa eskaintzen dute. Beraz, lana edo ikasketak edo bestelako konturen bat tarteko ez bada, zaila da Gasteizko euskaltegiren batera jotzea. Gure asmoa ez da bailarako eskaintza bikoiztea, baizik eta dagoena osatzea.

**Orduan, zer dela eta iruditu zaizue interesgarria Debagoienean eza-gutaraztea?**

HABEren azterketak direla-eta Debagoieneko ikasle asko etortzen da Gasteiza mailak egiaztatzeko azterketak egitera. Kanpo ebaluazio bat da azterketa horien bidez egiten zaiena, eta hainbat ikaslek ez du lortzen gainditzea euskaltegian urratsa gainditu arren. Hala, larunbatetan ikastaro batzuk antolatu ditugu azterketa horietarako ikasleak trebatzeko. Hartara errazagoa izango da Debagoieneko ikasleek izena ematea. Eta badugu eskaintza berezi bat eskualde honi begira: 4. mailako azterketa prestatzeko ikastaroa.

**Zergatik da hain berezia 4. mailako ikastaro hori?**

Gure ustez, gure inguruan behintzat, orain arte inork eskaini ez duen ikastaroa delako. Ez da azaltzen erraza. HABEren azterketetara aurkeztu ahal izateko, lehen-lehenik euskaltegian urrats jakin bat edo, 4. mailaren kasuan, proiektu bat gainditu behar da. Behin proiektua gaindituta, HABEren 4. maila eskuratzeko 4 deialdi dauzka ikasleak; kanpo azterketa gainditu ezean, deialdi batetik bestera ez dauka inolako laguntza berezirik azterketa prestatzeko, eta horixe da guk eskaintzen duguna.




Mailu Lasarte eta Gurutze Sarasola, bulegoan.

**Ondo ulertu badut, larunbatetako ikastaro horien bidez ikasleak azterketa jakin baterako prestatuko dituzue?**

Hala da. 1., 2. eta 3. mailako ikasleen kasuan, euskaltegietako ohiko eskaintzaren bidez ere lortzen dute azterketa horiek gainditzeko behar besteko ezagutza maila, baina hala ere ikastaro hauetan azken bultzada emango diegu azterketari begira. 4. mailakoen kasuan, berriz, azken laguntza ematen saiatuko gara, behin proiektua gainditu eta ikasturtea amaituta euskaltegietan ez baita bestelako eskaintzarik egiten.

**Larunbata, bost orduz... ez al da oso gogorra?**

Nondik begiratzen diogun! Jende askok zailtasunak ditu astean zehar eskoletara joateko, eta errazago egingo zaio larunbatetan ikastaro trinko bat egitea. Gainera, Gasteiztik kanpoko ikasleak etortzeko hobe da egun bakarra izatea..

**Etxerako lanik ez dute izango, beraz?**

Bai, etxean ere lan egin beharko dute, baina horretarako tarteak ateratzea norberaren baitan egongo da, eta lan horrek ez du ordutegi jakin batera mugatuko.

**Argi dago taldeen beharretara egokitzen duzuela zuen jarduna, baina ba al duzue bakarka ikasi nahi dutenentzako eskaintzarik?**

Arlo hori ere jorratzen ari gara, eta otsailetik aurrera tutoretza saioak eskainiko ditugu mintzamenean eta idazmenean sakontzeko, eta horiez gain, norberaren neurriko saioak emateko ere prest gaude. Bestetik, ikusita jendeak teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzen dituela, datorren ikasturteari begira, 3. eta 4. mailetarako on-line ikastaroak prestatzen hasiak gara. Gure helburua Euskal Herria euskaldunten laguntzea da, eta bide luze horretan ari gara ahalik eta jende gehienarengana iristeko eskaintza zabaltzen; orain eskaintza horri jendeak nola erantzuten dion ikusi behar.



Gasteizko ikasgeletako bat.

**HABEko azterketak prestatzeko ikastaroak larunbatetan!**




**1., 2. eta 3. mailak; baita 4. maila ere!**

**Noiz:** Larunbat goizetan, 08:30etik 14:00etara

**Informazioa:** Aratz Euskaltegia
945 15 43 41
aratz@ikanet.net
gasteiz.ikanet.net

ika
euskara errazago egiten

# HERRIAK

OÑATI

## Milaka erabiltzaile hamar urtean

▸ 2003ko urtarrilean inauguratu zuten eraberritutako kultura etxea, Santa Marinan
▸ Liburutegiak, erakusketa-aretoa, bilera-gelak eta zinema-aretoa dauden bertan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

2003ko Errege Egunaren ondoren inauguratu zuten eraberritutako kultura etxea. Urte hartako urtarrilaren 3an ateak ireki zituzten, ia hiru urte iraun zuten lanen emaitza erakusteko. Luncha egin zuten kultura etxean bertan eta gauean, Benito Lertxundiren emanaldiak borobildu zuen inaugurazio ekitaldia.

Eraberritze lanen ondoren, kultura etxeak itxura bera zuen kanpotik: jatorrizko fatxada errespetatu zuten. Baina barrutik dena zen berria: liburutegia goian, bilera-gelak eta erakusketa-aretoa behean... eta hasierako proiektuan aurreikusten ez zen 128 lagunendako zinema-aretoa.

Kultura etxea barrutik hustu eta berria egin zuten. Ordura arte han zeuden udal zerbitzuendako lekua egokitu zuten. Bi izan ziren lekuz aldatu zituztenak: eskulanetako eta tailerretako gelak –Bidebarrietara eroan zituzten– eta udal komunikabideak. Azken horiek Olakua dorrean kokatu zituzten.

Egun, kultura etxean daude udal langileak, liburutegiak, bilera-gelak, zinema-aretoa, erakusketa-aretoa eta KZgunea. Azken zerbitzu hori ez du Udalak ematen, Eusko Jaurlaritzaren informatika zerbitzua da.

### Erakusketa gelaren beharra

Kultura etxeak egin duen hamar urteko ibilbidean, gora egin du erabiltzaile kopuruak. Milaka lagunek erabili dute kultura etxea: kontsultak eta maileguak egiteko, batzarrak egiteko, zinemara joateko edo erakusketaren bat ikusteko. Azken hori izan zen eraberritze proiektuaren izarretako bat: erakusketak egiteko 190 metro koadroko aretoa. Hamar urtean 126 erakusketa egon dira ikusgai, eta handik pasa dira 36.223 herritar. Urtero, batez beste, 10-14 bat erakusketa ipintzen dituzte eta 200 bat ikusle joaten dira.

Erakusketa aukeratzeko unean, hiru motakoak aztertzen dituzte: herriko eta bailarako artistek egindakoak; zirkuitu profesionalean dihardutenenak –esaterako, Corrado Massaciren txotxongilo erakusketa–; eta herriko eragileek eta Udalak antolatzen dituenak.

Erakusketa gela kultura etxean egoteak baditu aldeko eta kontrako gauzak: aldekoak, beste zerbitzu batzuetako erabiltzaileak erakusketako ikusle izatea; eta kontrakoak, berriz, kultura etxea itxita dagoenean erakusketa gela itxita egotea.



Santa Marinan dagoen kultura etxeko sarrera nagusia. | MIREIA BIKUÑA

**DATUA**

**36.223**
BISITARI
Horiek dira kultura etxean egokitutako erakusketa-aretoak izandako bisitariak. Hamar urtean 126 erakusketa ipini dituzte. Batez beste, 200 bat ikusle izan dituzte.

**36.500**
DOKUMENTU
Hori da liburutegiak egun duen fondoa: liburuak (30.330), diskoak (2.308), pelikulak (3.709) eta CD-ROMak (153). Aldizkariak eta egunkariak ere badituzte.

### Liburutegi handiagoa

Kultura etxe berrian liburutegiak presentzia handiagoa hartu zuen: haurrendako gunea beheko solairuan egokitu zuten eta nagusiena, goiko solairuetan. Aldaketak nabarmen aldatu zituen liburutegiaren ezaugarriak: handiagoa, argitsuagoa, barne-zerbitzu gehiagorekin eta erabiltzaile gehiagorekin. Egun, 6.604 bazkide dituzte, orain dela hamar urte baino lau aldiz gehiago. Tarte horretan 58.000 bisita izan dituzte. Liburutegiko datu gehiago: 2012an 282 bazkide berri egin zituzten, eta 40.016 mailegu egin.

Datu horiek halakoak dira liburutegiaren fondoa hazi egin delako hamar urteotan: 36.500 dokumentu dituzte egun; liburuak, diskoak, pelikulak eta CD-ROMak. Aldizkariak eta egunkariak ere jasotzen dituzte.

Oñatiko liburutegia orain dela sei urte sartu zen Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalean. Hori horrela, bazkide txartel bakarrarekin, sarean dauden liburutegietan maileguak egin daitezke. Hamar urtean programazioa sendotu egin dute: *Bularretik mintzora* proiektua; umeendako eta helduendako ipuin kontaketak; idazleekin solasaldiak; irakurketa kluba; *Biblioporrak*; Neguko Gida... Teknologia berriek ere badute lekua: automailegu zerbitzua, wi-fia liburutegian, eta, aurrerantzean, radio-frekuentzia sistema.

### Hiru pelikula astero

Eraberritutako kultura etxearen beste izarra zinema-aretoa izan zen. Hasierako proiektuan batzar-gela bat aurreikusi zuten gune hartan. Udalak zinema-areto baten aldeko apustua egin zuen. Astero, irailetik sanjuanetara, hiru pelikula ematen dituzte: zinema komertziala, zinekluba eta umeendako pelikula.

Hamar urtean 115.000 ikusle egon dira: urte onenetan 15.000 eta txarrenetan, 10.000 inguru. 2012an, adibidez, 12.045 lagun joan ziren zinemara.

### Batzar-gelak herritarrendako

Beheko solairuan hiru batzar-gela daude herritarren eskura. Zinema-aretoan eta erakusketa gelan ere egin daitezke batzarrak, beste hiruak betetzen badira. Iaz 200 bat batzar egin zituzten han eta 2011n, 242. Urteko sasoi batzuetan lekua hartu ezinik ibiltzen dira herritarrak.

### Urtebete digitalizatuta

Urtebete da Oñatiko Udalak digitalerako pausoa eman zuela: zinemarako makina digitala erosi zuen. Horrek aukera ematen du estreinatu berri diren pelikulak azkarrago emateko. Adibide garbiena, *Lo imposible* pelikula. Hiriburuetan estreinatu eta bi astera eman zuten Oñatin. Arrakasta itzela izan zuen: 1.181 ikuslek aretoa lepo bete zuten emanaldi guztietan. Ilarak ikusgarriak izan ziren.

Dena den, Bayonaren pelikula ez da zinema-aretoak duen hamar urteko ibilbideko pelikularik ikusiena. *La pelota vasca* pelikulak dauka ohore hori: 1.249 lagunek ikusi zuten 2003an. Hirugarren lekuan dago *Aupa, Etxebeste* 1.118 ikuslerekin eta laugarrenean, *Kutsidazu bidea, Ixabel* (621).




zatoz ikastolara!
matrikula epea zabalik urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra
GIZATASUNA LANEAN
MONDRAGON
ikastolenelkartea
informa zaitez
943 77 20 25
www.arizmendi.eu
arizmendi ikastola

# Auzo-konpostaren aldeko apustua egingo du Udalak

## Hiru gune egokituko ditu Udalak: Uribarrin, erdigunean eta ospitale inguruan

**ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL**

Arrasateko Udalak auzo-konposta bultzatu gura du gune ezberdinetan: Uribarrin, erdigunean eta ospitale inguruan. Uribarriko bizilagunekin elkartu zen Josu Pereda –Ingurumen zinegotzia– martitzenean, eta, sistema azaltzeaz gainera, zalantzak ere argitu zizkien.

"Bi helburu ditu auto-konposta egiteak: hondakin organikoa bilketa sistematik ateratzea eta, gainera, gastuak murriztea". Hala adierazi zuen Peredak bileran.

"Autogestioren bidez funtzionatuko luke; hau da, nork bere etxetik eramango luke organikoa, eta edukiontzian utzi". Hala ere, Udalak zeregin bat beteko lukeela ere gaineratu zuen: "Alde batetik, ikuskaritza lan bat egingo luke, konposta modu egokian egiten dela ikusteko. Hornitze lan bat ere egingo luke, etxeko materia organikoari beste materia bat gehitu behar baitzaio, eta horixe emango luke Udalak. Argi utzi gura dugu prozesua ongi eginez gero ez duela gaizki usaindu behar, ez eta zabortegi bat izan behar ere". Eta lortzen den konposta bizilagunek erabili ahal izango dute, "edo bestela Udalak, loradegietarako-eta".



Organikoaren ontzia. | OIHANA ELORTZA

### Konpostaren abantailak

Udaleko Ingurumen zinegotziak esan zuenez, hainbat abantaila izango lituzkete konposta egiten duten herritarrek. Alde batetik, %25eko hobaria izango lukete zabor tasan. Baina, gainera, atez ateko bilketa sistema ezartzerakoan, "organikoa botatzeko ordutegi bat egongo da, eta konposta egiten dutenek ez dute bete behar izango". Abantaila horiez disfrutatzeko, baina, baldintza bat egongo da, Udalak eskainiko duen ordubeteko ikastaroa egin beharko da, "derrigor".

### Xehetasunak erabakitzeke

Interesatuen kopurua ikusi eta zein zona edo ataritakoak diren kontuan hartuta, guneak kokatzeko toki hoberenak zeintzuk diren erabaki beharko dute.

Erdiguneko eta ospitale inguruko bizilagunekin ere bilerak egingo dituzte epe laburrera. Data zehatzik ez badago ere, Peredak "San Juan ingururako hiru guneak martxan" egotea gura dutela esan zuen. Eta herritarrei dei egin die auzo-konposta egitera animatu eta izena-eman dezaten. Amaitzeko, Ingurumen zinegotziak gogoratu zuen "lursail bat eduki eta konposta egin gura dutenei ere" zuzendutako deialdia dela.

Informazio gehiago edo izen-ematea: 943 25 20 09 edo *agenda21@arrasate-mondragon.net*.

# Lurpeko edukiontzien "boikota konfirmetan da"

## Arrasate Garbiak Oñatiko taldeari elkartasuna eman eta antzeko anonimoa jaso izana salatu du

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Arrasate Garbia plataformak desegin berri den Oñatikoari elkartasuna adierazi dio: "Baitakigu mota honetako presiñuek min haundixa egiten dabela". Eta horrekin batera, Arrasateko taldekide batek antzerako "anonimo" bat jaso izana salatu dute, "baina horrenbeste min egitten dauen kultura diktatorial honi kikildu barik aurre egiteko prest gaz", gaineratuz.

### Durangon, guztiak ondo

Lurpeko edukiontzien egokitasuna ukatu izanari erantzunez, haien abantailak azpimarratu dituzte: biltze kostu murritzagoak "hustuketa frekuentzixak gutxitzen baitie; "usain txarrak eta plaga urbanuak ekiditzen dittuzte; "zaborrek ez dauke lurrarekin kontakturik" eta mantenketa prebentibo erreza dauke". Eta bestetik, gezurtatu egin dute Pereda zinegotziak esan moduan, Durangoko Udalak lurpekoak itxi dituela: "Arduradunarekin kontaktuan jarri baikara eta adierazi dozku, 7 puntuetan ezarritako 42 lurpeko-edukiontzi guztixek funtzionatzen dabela".

Arrasateko Udalari gaiaren gainean galdetuta, esan du, oraingoz, ez daukala ezer esateko.

### Aldi baterako hiru lanpostu hornitzeko dei egin du Udalak; tartean, Udaltzaien lan-poltsa irekiko du

Asteleheneko Tokiko Gobernu Batzordean erabaki zuen Arrasateko Udalak hainbat lanpostu hornitzeko deialdia irekitzea: Udaltzain eta AUKEAko informazio eta tramitazio agente lanpoltsa irekiko ditu eta ur eta mantenu teknikari bat kontratatu gura du. Aldi baterako lanpostuak izango direla eman du aditzera Udalak, eta interesatuek otsailaren 1a baino lehen egin behar dute deialdi hauetan izen-ematea. Informazio gehiago BAZen edota 943 25 20 00, edota *http://www.arrasate-mondragon.org*.




Guk bezala,
egin apustu, egin kiñu
Euskal Eskola
Publikoaren alde!



BEDOÑABE • Tel.: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel.: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel.: 943 79 77 74

Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

Gurasoen Elkartea
arrasate Herri Eskola
baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

# Al-Andalusen 23. urteurrena ospatuko dute domekan

J.B. | ARRASATE

Arrasaten bizi diren andaluziarrek zita berezia izango dute domekan. Izan ere, Al-Andalus elkartea sortu zutela 23 urte beteko direla ospatuko dute egun horretan. 1990. urtea ezkero, urtero antolatu izan dituzte urteurrena ospatzeko ekintza bereziak: "Aurtengo egitaraua nahiko sinplea da Andaluziako Eguna ate joka dugulako. Hala ere, gure sorreraren urteurrena ezin dugu ahaztu eta horregatik egingo dugu ospakizuna", adierazi digu Rafael Gomez elkarteko presidenteak.

**Urteurreneko bazkaria**

12:30etik 14:00etara ardoa eta Andaluziako jaki tipiko bat –marisko txikitura– dastatzeko aukera izango dute bazkideek eta bertaratzen direnek. 15:00etan urteurreneko bazkaria egingo dute, Sarayola *catering* enpresaren eskutik: "Horrela bazkide guztiok bazkari guztiaz gozatzeko aukera izango dugu", dio Gomezek. Amaitzeko, 16:00etan DJ Dani Marquezen eskutik dantza egiteko aukera egongo da.



Iaz lehenengoz egin zen baserrien arteko patata-tortila lehiaketa. | JULIO CALLEJA

# Egitarau oparoa San Baleixo jaietarako

Gaur hasi eta domekara arte, denetariko ekintzak: mus txapelketa, patata-tortilla lehiaketa, dantzak...

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aste bukaeran San Baleixo jaiak ospatuko dituzte Meatzerreka auzoan. Haur, gazte zein helduendako denetariko ekintzak izango dituzte eta iazko nobedadea izan zen baserri arteko patata-tortilla lehiaketari eutsiko diote aurten ere: "Hamar bat tortilla izan genituen iaz eta epaimahaiak azken emaitza eman arte lehia sanoa egon zen. Ea aurten baserri gehiago aurkezten diren", adierazi digu Unai Arana auzo alkateak. Bestalde, jaietako ekitaldi arrakastatsuena mus txapelketa izaten da urtero. Duela zenbait urte txapelketa zapatutik egubakoitzera pasatzea erabaki zuten eta auzo afaria, berriz, egubakoitzetik zapatura.

Bestalde, jaien bereizgarri da, era berean, txerri-harrapaketa: "Elkarte atarian egiten dugu, lur zati bat inguratuz. Bi minutu igaro baino lehen txerria harrapatzen duenak etxera eramango du", esan du Aranak.

## SAN BALEIXOAK MEATZERREKAN

**HILAK 25, EGUBAKOITZA**

**20:00** Suzirien jaurtiketa jaiei hasiera emateko.

**22:30** 32. Mus Txapelketa

**HILAK 26, ZAPATUA**

**12:00** II. Auzoko baserri arteko patata-tortilla lehiaketa.

**16:00** Haur eta gazteendako jolasak.

**17:00** Gorritiren eskutik pottokak. Gero, txokolatea bertaratzen direnendako.

**21:00** Auzo afaria.

**23:30** Erromeria Orots taldearekin.

**01:00** Txerri-harrapaketa.

**HILAK 27, DOMEKA**

**11:00** Meza San Baleixo ermitan, Gesalibar eta Garagartzako koroekin.

**11:30** Dantza saioa Txikitxu Arrostaitz taldeen eskutik. Trikitilariak ere egongo dira.

▶ Mus txapelketan izena eman daiteke gaur, 18:00etatik 22:30era.

▶ Bikote bakoitzak 25 euro ordaindu beharko ditu.

## Euskal presoen aldeko elkarretaratzea gaur Herriko Plazan (19:30)

Urtarrileko azken egubakoitza da gaur eta hilero moduan, Arrasateko Herrirak euskal preso eta errefuxiatuen eskubideak bermatu daitezela eskatzeko elkarretaratzea deitu du. Deialdian, urtarrilaren 12an Bilbon egindako manifestazioa izan dute hizpide: "Bilboko kaleetako ilusioa eta olatu geldiezina gure herri, hiri eta auzoetara eramateko garaia da. Guztion artean lortuko dugu!". Herriko Plazan egingo da elkarretaratzea, 19:30ean.

## San Blas opila egiteko azken aukera gaur Usaetxeko ludotekan

Txatxilipurdiko Haur Sailak kudeatzen dituen ludoteketan San Blas opila egiteko aukera egon da asteon. Eguaztenean Santamainan egon ziren, atzo Okendon, eta gaur, azkenik, Usaetxeko ludotekan egongo dira. Ate irekiak dira eta beraz, 3 eta 12 urte arteko edonorendako ateak zabalik daude: "Aurrekoetan ondo irten da, asko gustatzen zaie-eta jatekoak diren gauzak prestatzea", adierazi du Mirari Arando arduradunak. 17:00etan hasiko dira lanean.




# "Elorrioren kontrakoak derbiak dira guretako, lehia borrokatuak"

## Kantabrian irabazita ARTkoek bi partidu jokatuko dituzte etxean

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Kanpanzar ART taldekoei luzea egin behar zaie ligako bigarren itzulia, lidergoa defendatzeak desgaste handia izaten duelako. Horregatik, eta min hartuta nahi baino jokalari gehiago dituztelako –Igor Isasik ez ditu nahiko lituzkeen jokalari guztiak eskura. Daudenak, baina, oso motibatuta daude, halaxe onartu digu taldeko ordezkari Xabier Gardoki *Jabo*-k: "Datozen bi partiduak etxean jokatzen ditugu, eta bi partidu hauen ostean lider jarraitzen badugu taldeak moralki indarra hartuko du. Egia da orain gauden fasean lehenengo geratzeak ez daukala aparteko saririk, baina sari handia da liga motibatuta amaitzea, aurreko postuetan, talde gaztea delako hau, egiten dabilen taldea, eta datorren urtera begira garrantzitsua delako ondo bukatzea. Gainera, lehenengo egonda baliteke jendea taldeagatik gehiago interesatzea, taldekideen lagunak ere gerturatzea"



*Jabo* pasea emateko gertu, iazko denboraldian, Santanderko Rivago taldearen kontrako partiduan. | J.ARANTZABAL

### Elorriorekin lehia handia

Etxean jokatuko dituzten bi partidu horietako lehena Elorrioren (zapatua, 16:00, Mojategi) kontrakoa izango da –bestea Aratusteetan jokatu beharreko partidua izango da, aurreratu egingo dute. Hala, Arrasateren eta Elorrioren artean broma gutxi egon ohi da, Atxabalpen jokatzen zuten sasoitik, nahiz eta belaunaldi berriak etorri, Kanpanzar mendate osteko taldeaz lehia polita izan dute –tarteka gogorra– eta asteburorako ez dute gutxiago espero: "Eurak ere motibatuta etorriko dira, seguru, gure arteko partiduak derbiak izan direlako beti, eta lehia handia izan dugulako. Guk ere espero dut talde polita izatea, ez dakit zer gertatzen den, baina etxeko partiduetan jende gehiago batzen gara jokatzeko gertu. Kanpoan, berriz, larriago ibiltzen gara".

**ESANAK**

**"Etxeko bi partidu hauek irabazteak indarra emango dio taldeari"**

**"Ea lider egoteak balio duen jendea taldeagatik interesatzeko"**

XABI GARDOKI 'JABO' | JOKALARIA

### Joan den astean, justu-justu

Hain zuzen, joan den astean Kantabrian lortutako garaipenak balio handia du. Batetik, kantabriarrek kopuruz talde sendoa eraman zutelako: "Lehenengo zatia indartsu hasi genuen, baina justu-justu iritsi ginen atsedenaldira, eta bigarren zatian ez nuen uste eusteko kapaz izango ginenik". Ba lortu zuten (14-24).

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Iluna - Sonografos | 0-1 |
| Fidel - Haizea's Weah | 2-3 |
| Iriztu - Lasagabaster | 3-2 |
| Dribling - Aston Birra | 11-4 |
| AT Betrayer - Abokajarro | 2-6 |
| Ostantz - Aldatz | 6-4 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Sonografos | 22 | 8 |
| 2 | Iriztu | 19 | 7 |
| 3 | Abokajarro | 16 | 7 |
| 4 | Dribling | 15 | 7 |
| 5 | Ostantz | 14 | 7 |
| 6 | Aldatz | 12 | 8 |
| 7 | Haizea's Weah | 12 | 8 |
| 8 | Lasagabaster | 9 | 8 |
| 9 | Iluntz | 7 | 7 |
| 10 | Fidel & Discipulos | 6 | 7 |
| 11 | AT Betrayer | 4 | 7 |
| 12 | Aston Birra | 4 | 8 |
| 13 | Iluna Taberna | 0 | 7 |

**PARTIDUAK**

URTARRILAK 26, ZAPATUA
**10:30** Fidel & Disc.-Abokajarro / **Ostantz**
**11:30** Ostantz-Haizea's Weah / **Abokajarro**
**12:30** Dribling-Sonografos / **Haizea's Weah**
URTARRILAK 27, DOMEKA
**11:30** Iluna tab.-AT Betrayer / **Iriztu**
**12:30** Iriztu-Aston Birra / **Iluna taberna**
**Atsedena:** Lasagabaster

### Garaipen erraza liderrarendako, baina desatsegina

Sonografosek errazegi irabazi zuen zortzigarren jardunaldiko partidua, Ilunakoak ez zirelako jokatzera azaldu (zuzenak izateko, hiru jokalarik bakarrik eman zuten aurpegia). Badirudi, gainera, etorri behar zitzaienaz jabetuta, etxean geratzea erabaki zutela.

### Driblingeko Juanjok txalotzeko moduko lana egin zuen

Aipagarria izan zen, bestalde, Dribling taldeko Juanjok Aston Birrakoen kontra egin zuen lan ona. Driblingek 11-3 irabazi zion Aston Birrari, eta gol gehienak Juanjok sartu zituen: bederatzi, hain zuzen. Pitxitxia da 17 golekin, eta bigarrena den Ostantz taldeko Ruben bi goletara dago.

# Abian da Dorletako Beteranoen pilota torneoa

X.U. | ARRASATE

Debagoienean pilotan jokatu nahi duenak Gatzagan izango du aukera. Aurten ere Mauri Zubillagak federatuta ez dauden pilotariendako Dorletako Pilota Txapelketa antolatu du, eta, hain zuzen ere, otsailaren 24a izango da izena emateko azken eguna.

Pilotari bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu, eta partiduak domeka goizetan jokatuko dituzte, 09:00etan hasita, hilean behin. Txapelketa martxoaren 3an hasiko dute, eta finalak Gatzagako jaietan izango dira, irailaren 8an eta 9an. Lehen mailako beteranoek partiduak Punpako pilota goxoekin jokatuko dituzte, eta bigarren mailakoek oso-oso goxoekin (kontaktua: 605 72 40 96 Mauri).

# Egun baterako edo aste bukaera osorako eskiatzera joateko aukera Besaiderekin

## Aste Santurako, berriz, Alpeetara joateko bidaia prestatu dute

X.U. | ARRASATE

Besaide neurrirako eskaintzak prestatzen dabil eski alpetarra egitera joateko, hau da, asteburu osoko irteerak, eta baita egun bakarretakoak ere (Formigalera). Hala, otsailaren 16 eta 17ko asteburuan, martxoaren 2 eta 3koan, eta martxoaren 16 eta 17koan asteburu osorako irteerak egingo dituzte Formigalera. Prezioei dagokienez, merkeenak 60 eurokoak izango dira (Arrasatekoak diren bazkideendako), eta garestienak 90 eurokoak (Arrasatekoak ez direnak, ezta bazkideak ere). Prezio horren barruan dago autobusa, eta Formigalgo Nievesol hotelean gau bat pentsio erdian.

Horrekin batera, baina, egun bateko irteerak ere prestatu dituzte otsailaren 24rako eta martxoaren 10erako. Hala, 20 euro ordainduta autobusean joan-etorria egin ahal izango dute Formigalera. Eta amaitzeko, Aste Santuan urteroko irteera egingo dute Alpeetara. Val Thorens-Mottaret -Courchevel inguruetara joango dira. Bidaia martxoaren 30ean egingo dute, eta apirilaren 5ean itzuliko dira, 6an sagardotegira joateko (bazkideak 600 euro, ez bazkideak 630 euro). Izen-emateak astelehen, martitzen eta eguaztenero (18:30-19:30).

PATXI CASTRO
Era guztietako aulkien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
•
Besaulki, mahai, saskiak e.a
943 78 71 65
639 01 69 69

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50


San Viatorreko ikasle taldea Santa Barbaran, 70eko hamarkadan. | CLERIGOS DE SAN VIATOR (CSV)

# Viatoristak Arrasatera etorri zireneko diamantezko ezteiak

2013an 75 urte beteko dira viatoristak Arrasatera iritsi zirela: 1938an sinatu zuten San Jose Ikastetxeari bizia eman zion dokumentua

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Eskoriatzatik etorri ziren Arrasatera viatoristak, 1937an. 1938an hasi eta 2007ra arte jardun zuten hemen irakaskuntzan, harik eta Arizmendi Ikastolak San Viatorrena zen eraikina bere egin, eta bertan bizi ziren hiru viatoristak (Arrasateko Angel Ipiña, Basauriko Cosme Salazar eta Fermin Otxoa gasteiztarra) Gasteizera joan ziren arte. Harrezkero ez da viatoristarik geratzen Arrasaten.

"Ricardo Orejak Eskoriatzako elizgizonengana jotzen du Arrasaten ikastetxea irekitzeko gogoa azalduz. Garai hartan herrian 6.000 biztanle zeuden eta eskola arazo larria zen. Kongregazioak onartzen du eskaintza, eta 1938an Bolibar izeneko eskolan kokatzen dira, handik aurrera San Jose Ikastetxea deituko zaio. Jada 1939an Arrasateko San Jose Ikastetxean Lehen Hezkuntzako lau gela eta Batxilergoko bi gela ziharduten. Urte berean martxan jartzen da Aprendizen Eskola ikastetxea. Egunero zortzi ordu klase ematen dira, lau goizez eta beste lau arratsaldez. Lehen zuzendaria Juan Zubizarreta anaia da".

Halaxe jaso dute Aitor Antxia maisu izandakoak eta haren emazte Arantza Berezibar andereñoak viatoristen 75. urteurrena gogora ekartzen duteneko kontakizunean.


Txistulari, agintari eta viatoristak eraikin berriko lehen harria ipintzera. | CSV

### Eraikin berria

Bi irakasleek gogora ekartzen duten moduan, Arrasateko etorreratik abiatuta, sendotuz joan zen viatoristen lana hemen Adibide bat jartzearren: 1948an San Jose Ikastetxean 230 ikasle zeuden eta Aprendizen Eskolan, 60.

Eta sendotzen horren adibide izan zen 50eko hamarkadatik aurrera ikastetxe berria sortzeko pausoak ematen hasi zirela: "1956. urtean Santa Barbarako ikastetxea eta lur saila kongregazioari ematea gauzatzen da, 1939a ezkero Bolibar ikastetxea viatoristek erabili baitute. 1962an batxilergoa onartzen da ofizialki eta ikastetxe berrirako lurrak erosten dira Santa Barbara inguruan, Veraguako dukearen *Jardines de Mendia* izeneko orubea, hain zuzen ere. Urte horretan ikasturteari hasiera ematerakoan 575 ikasle zeuden eta batxilergoko lau talde osoak, lehen aldiz" (...). Nazario anaiak eta Gobernadore Zibilak San Viatorreko ikastetxe berriaren lehen harria jarri zuten ekainaren 15ean eta 1968ko apirilaren 15ean inauguratu zuten. Bertan agertu eta sinatzen dutenak honako hauek dira: Nagusi Jenerala, Probintziako Arduraduna, alkatezen Andres Bidaburu, Ikasle Ohien Erakundeko presidentea eta parrokoa, On Jose Luis Iñarra. Neurri honekin Eskoriatzako San Jose Ikastetxeko ikasleak Arrasatera pasatuko dira", gogorarazten dute Antxiak eta Berezibarrek.

Datu gehiago ere ematen dituzte: "Dukeari erositako orubean 800 ikasleentzat besteko ikastetxea eraikiko da. Lursail osoa- 3.500 metro karratu- bere osotasunean aprobetxatuko da".

### Kooperatiba bihurtu

Hortik aurrera, eraldatzen doa viatoristen lana eta izaera: irakasgai berriak, kooperatiba eraketa 1980an (Arrasateko San Viator Kooperatiba osatu zen uztailaren eta abenduan ikastetxearen titulartasuna kooperatibaren esku gelditzen da) eta Arizmendi Ikastolarekin bategitea: "2003an Leintz Bailarako ikastola guztiak elkartzen dira eta Arizmendi Ikastola osatzen da; bertan Umezaintza, Eskoriatzako Almen Ikastola, Arrasateko San Frantzisko Xabier Ikastolak eta Arrasateko San Viator Ikastolak parte hartzen dute".

Behin pauso hori emanda, esandako moduan, 2007an Arizmendi Ikastolak viatoristen eraikina bere egin zuen, eta Arrasaten geratzen ziren hiru viatoristak Gasteizera joan ziren bizitzera.

### Viatoristen jatorriaren nondik norakoa

Luis Querbes izan zen Clerigos de San Viator kongregazioaren sortzailea. "1793ko abuztuaren 21ean jaio zen, Lyon-en (Frantzia), Beldur izeneko giroan. Luis Querbes fededun gizona zen, adimen eta ikusmira sakonekoa. (...) Aita Santuaren onespenarekin taldea hazten eta hedatzen hasi zen. Fundatzailea hil zenerako, 1859, Frantzian San Viatorreko 200 katekista baino gehiago ziharduten.

**DATUA**

**800**

IKASLE

Veraguako dukeari erositako orubean 800 ikasle hartzeko eraikina egin zuten.

## Umeendako antzerkia eta nagusiendako zinema saioa

Asteburuan Arrasaten dauden hitzorduen artean, bihar, zapatua, umeendako antzerkia izango da, Amaia antzokian: *Printzea eta ahatea*. 17:00etan hasita, "kontu handiez hitz egiten duen" istorio "ttipia" taularatuko dute. Besteak beste, Gorakada taldeak erakutsi gura du "lagun bat edukitzea baino gauza handiagorik ez dagoela".

Bestalde, nagusiei begira, gaztetxean Askapenak antolatutako zine forumaren hitzordu berria izango da domekan. *Gueto 2009* dokumentala emango dute, 18:30ean.

## Erraldoi eta Kilikien Konpartsako deia, gazteei zuzenduta

Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsak bideo berezi bat prestatu du herriko gazteak konpartsan sartzeko animatu guran. "*Youtube*n *Konpartsak behar zaitu* sartuz gero aurkitu ahal da bideoa. Desberdina da; besteak beste, Anger musika taldearen laguntarekin, rock and roll estiloko kantu batekin borobildu dugu -eta bideoa", kontatu du Iñaki Arsuaga konpartsako kideak. "12 gazte animatuko balira (neskak edo mutilak, biak onartzen ditugu) aurrerapauso garrantzitsua emango genuke", gaineratu du.

## Datorren martitzenean hasiko dira Santa Ageda prestatzen

"Aurtengoan ere hurbildu da otsailaren 4a, eta Santa Ageda koruoi ordua iritsi zaigu ohitura zaharra betetzeko". Berbokin deia egin diete urtarrilaren 30ean, 21:00etan, Karkabal elkartera joan daitezen Santa Ageda koruetako abesbatza, poltsero eta laguntzaileei. Horrekin batera, lantegi eta saltokiei gutuna bidali diete, aurtengo eskaria egiteko. Bertan gogora ekarri dute iaz 5.676 euro batu zituztela, eta ohi duten moduan, Caritasen bitartez banatu zituztela, hainbat talderen artean.

Carrascal aroztegia
SUKALDEAK
ARMAIRUAK
BAINUAK



ZEURE NEURRIRA ZEURE GUSTURA
Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 • Faxa: 943 10 69 66 • scarrasc_1@infonegocio.com

## San Juan kalea oinezkoendako egokitzeko proiektua jendaurrean dago

**O.E.** | OÑATI

San Juan kalea oinezkoendako egokitu gura du Udalak, eta proiektu horren planoak jendeaurrean jarri ditu, herritarrek ikusi eta alegazioak jarri ahal izateko. Hilabetez egongo da ikusgai, udaletxeko Hirigintza Sailean.

San Juan kalea oinezkoendako egokitzeko egin behar diren lanen aurrekontua 163.000 euro da. Jendeaurrean egon ostean esleituko dituzte obrak. Asmoa da martxoaren bukaeran hastea lanak eta hiru hilabeteko epean bukatzea.

2013ko aurrekontuetan jasotzen da San Juan kaleko proiektua. Baita Errekaldeko garajeetako sarbideak egokitzea eta San Lorentzon iragazpen arazoak konpontzeko lanak egitea Aldapa tabernaren ondoan.



Oñatiko San Juan kalea. | O.E.

## Bertan behera gelditu da gaur gaztelekuan From The Jam taldeak eman behar zuen kontzertua

Bertan behera gelditu da gaur, ostirala, gaztelekuan From The Jam talde britaniarrak eman behar zuen kontzertua. Bruce Foxton baxu-joleari *tos ferina* deritzon gaitza diagnostikatu diote. Kutsakorra da, antza, eta medikuek bidaiatzea debekatu diote. Espainiako eta Australiako birak bertan behera utzi dituzte, baina antolatzaileak saiatuko dira data berria bilatzen.

## Sorturen antolaketa eta barne funtzionamendua landuko dute bihar goizeko bileran

Hirugarren batzarra egingo dute bihar, zapatua, goizean, Oñatiko Sortzaile taldeak deituta. 09:00etan elkartuko dira gaztelekuan eta Sorturen antolaketa ezaugarriak eta egituraren funtzionamendua hausnartzeko helburuak izango dira, besteak beste, batzar horren ardatzak. Bilera irekia izango da eta gura duten herritar guztiek har dezakete parte.

## Gaur, egubakoitza, da azken eguna argazkilaritza digitaleko ikastaroan izena emateko

Gaur amaituko da Ilunpetan argazki taldeak antolatuta Oñatin egingo duten oinarrizko argazkigintza digitalari buruzko ikastaroan parte hartzeko izena emateko epea. Itziar Bastarrika izango da ordu eta erdiko hamar saio izango dituen eta datorren astean hasiko den ikastaroko irakaslea. Haren esanetan, helburua da etxean dugun kamera digitala ondo menderatzen ikastea.

## Metal eta folk-rock doinuek girotuko dute zapatu gaua Oñatiko Antixena gaztetxean

Bihar, zapatua, Nekez eta McOnak taldeen zuzenekoaz gozatzeko aukera egongo da Oñatiko Antixena gaztetxean, gaueko hamarretan hasita. Nekez taldeak metal doinuak ekarriko ditu *Argiak piztu!* izeneko diskoarekin. McOnak taldeak, berriz, dantzan jarri gura izango ditu entzuleak folk doinuarekin.

## Betiko ipuinei probetxua nola atera jakiteko gomendioak emango dituzte Elkar Hezin

Lur Kortak gidatuta, betiko ipuinei zukua nola atera ikasi ahal izango dute 3 eta 6 urteko seme-alabak dituzten herriko gurasoek. Martitzenean izango da, 18:30ean. Eguaztenean, berriz, *Inside Job* dokumentala Santa Marinako eraikinean, 18:30ean.

# Bilketaren gastua eta auzo-konposta, herritarrek egindako galderen artean

- Orain arteko bileretan 857 lagunek hartu dute parte
- Datorren astean beste sei aukera egongo dira

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Auzo-konposta egiteko aukerak, atez ateko hondakin bilketa sistemak ekarriko dituen gastuak, hondakina sartzeko ontziak apurtuz gero nola konpondu, bilketaren ordutegia zein izango den edo produktu jakin batzuk zein ontzitara bota behar diren. Horiek dira orain arteko parte-hartze bileretan herritarrek izan dituzten kezka edo galdera nagusiak.




Astelehen goizean Santa Anan egindako bilera. | O.E.

### %25eko hobaria

Astelehen goizean Santa Anan egin zuten bileran ere kezka horiek errepikatu ziren. Euskadi etorbideko eta haren bueltan dauden kaleetako herritarrak zeuden deituta. Adi jarraitu zituzten Mikel Biain alkateak eta Leire Egaña Ingurumen zinegotziak emandako azalpenak. Batzuek, gainera, apunteak ere hartu zituzten, atarian egin beharreko bileran azalpenak ondo emateko. Giro onean egin zen bilera.

Auzo-konposta egiteko aukerak, esaterako, interesa piztu zuen. Horren aurreran, alkateak garbi azaldu zien betebeharreko eskuorrian aukera horren aldeko iritzia jarri arren, auzo-konposta egiteko interesa duen herritarrak informazio bulegoetan eman behar duela izena. "Auzo-konposta egiten duten herritarrei, hondakinen fakturan %25eko hobaria aplikatuko zaie", gehitu zuen.

Atez ateko sistemak ze gastu ekarriko dituen galdetuta, ez duela gastu gehiagorik eskatzen erantzun zion alkateak. "Egia da bilketa garestiagoa izango dela, baina hondakinetatik dirua etorriko da gero, eta frogatuta dago sistema bideragarria dela. Antzuolan ikusi da hori, esaterako". "2013rako ez dugu aurreikusten igoerarik fakturetan, eta datozenetan izan daiteke KPIa igotzea", argitu zuen Biainek. Bilketa egingo duten enpresa eta langileak Oñatikoak edo ingurukoak izango diren galdetuta, hauxe erantzun zuen Biainek: "Enpresa esleipen publikoz izendatuko da, eta, tamalez, Udalak ezin du ezer egin herriko langabeak hor sartzeko, enpresak kontratatuko ditu".

### Ekarpenak ere bai

Atez ateko sistema bilketarekin, orain arteko edukiontzi batzuk mantendu egingo dira, hala nola beirarena, olioarena eta oihalarena. Horri lotuta, herritar batek galdetu zuen zergatik ez mantendu papera batzeko edukiontzi urdina ere. "Horrelako ideiak, ekarpenak, jasotzeko gertu gaude; beraz, zuen eskuorrietan idatzi eta aztertuko dugu", erantzun zion Biain alkateak.

Hondakinak ateratzeko eta jasotzeko ordutegiari buruzko galderak ere egin zituzten herritarrek. "Bilketa gauez egiten bada ere, arratsaldez lan egiten duenak aukera izango du kuboa ateratzeko, lasai egon dadila. Bestalde, kontuan izan larrialdi guneak ere jarriko direla, bat Eteon eta bestea Garagaltzan. Arazoak konpontzen saiatuko gara beti. Gainera, ez da derrigorrezkoa beti ateratzea, sortu ahalaz baizik", azaldu zien Leire Egaña zinegotziak.

### AUZO-KONPOSTA EGITEKO INFORMAZIOA

Udalak hainbat gune jarriko ditu herrian auzo-konposta egiteko. Guneak zeintzuk diren, auzo-konposta nola egiten den, herritarrek ze laguntza izango duten eta bestelako informazioa emateko, bilerak egingo dituzte hurrengo astean.

**BILERA EGUNAK**

| | |
|---|---|
| **Urtarrilak 28** | Eteo |
| **Urtarrilak 29** | Eteo |
| **Urtarrilak30** | Kultura etxea |
| **Urtarrilak 31** | Zuazola Institutua |

Bilera guztiak 19:00etan dira.



Ugarkalden jarriko dute guneetako bat. | OÑATIKO UDALA

# Andoaingo piano lehiaketara doaz herriko bost gaztetxo

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolako bost gaztetxok parte hartuko dute otsailaren 23an eta 24an Andoaingo Bastero kulturgunean izango den VIII. piano jaialdian.

A kategorian, adibidez (11 urtez azpikoak), parte hartuko dutenak dira: Unai Agirre, Asier Berreteaga, Naroa Martirena eta Ange Maiztegi. Ainhoa Galdos da haien irakaslea. B kategorian, berriz (11tik 14 urtera), Marta Igartzabalek hartuko du parte. Araceli Guridi da haren irakaslea.

Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako gaztetxoek parte hartzen dute Andoaingo piano jaialdian eta Oñatitik zazpi urtez joan dira Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleak. Bi modalitate egoten dira, bakarlariak eta lau eskutara. Oñatiko bost gaztexoek bakarlarien modalitatean parte hartuko dute aurten eta bakoitzak pieza bat joko du.

**Oñatin eta Arrasaten ere bai**

Andoaingo jaialdiaren aurretik, beste bi hitzordu ere badituzte Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek: hilaren 30ean, esaterako, Arrasateko Amaia antzokian dute hitzordua, piano emanaldian, eta otsailaren 18an, Oñatiko Santa Anan, gitarrako ikasleekin batera.

# Ipuinak nahastuko dituen pertsonaia dator domeka eguerdian gaztelekura

O.E. | OÑATI

*IpuinEzIpuin* izeneko antzezlana ekarriko dute domeka eguerdian gaztelekura lau eta zortzi urte arteko umeendako. Ipotx Burumotz izeneko pertsonaia ipuin bat kontatzen hasiko da, baina ez kontatzeaz gain, beste hainbat ipuin nahastu egingo ditu. Hasier eta Amaiaren etxean gertatu da hori, eta jolasen eta antzerkien bidez, orden pixka bat jarriko dute.

Antzezlana domekan da, 12:30ean, gaztelekuan. Orain arte ez zen ohikoa ordu horretan antzerkia egotea gaztelekuan, baina hemendik aurrera normalagoa izango da, horren alde egin dute-eta gaztelekuan.



Errekaldeko gunean egin dute aurkezpena. | A.T.

# Urgain ikastetxe publikoak abestia eta bideoklipa dauzka

'Urgain ikasbidaia' kantua oinarritzen da ikasleek eskolan egiten duten heldutasunerako bidean

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Abestia eta bideoklipa sortu ditu Urgain Oñatiko eskola publikoak. Urgain Ikasbidaia izenburua dauka kantuak eta proiektuan parte hartu dute guraso, ikasle eta irakasleek. Iñigo Bian gurasoak sortu du abestia eta hark ekoiztu du bideoklipa ere. Kantuarekin nahi izan dutena da Urgain izenaren jatorria islatzea eta ideia oinarritzen da errekan doazen hostoak moduan, ikasleek eskolan egiten duten heldutasunerako bidea.

Guraso elkartetik eta ikasle eta irakasleen partetik ilusio asko zegoela ikusten zuten eta lan asko egin arren, ilusioz aurrera egiteko indarra hartu zuten. Orain, ilusioaren fruituarekin pozik daude..

**Hamabostaldi kulturala**

Abesti eta bideoaren aurkezpenarekin batera, Zuazolako gunean egingo den VII. hamabostaldi kulturala ere aurkeztu dute. Egitarauan gehien bat ikasleei zuzendutako ekimenak daude; tailerrak, pelikula emanaldiak edota antzerkia ingelesez, besteak beste. Baina bereziki gurasoei zuzendutako hitzaldi bat ere egongo da otsailaren 5ean arratsaldeko 18:00etan, Erosketa Berdea izenburukoa.

**Ate irekiak**

Bestalde, gaur eta bihar egingo dituzte ate irekien jardunaldiak herriko hiru ikastetxeek. Gaur, Txantxiku ikastolan egingo dute, 17:00etan. 0 eta 6 urteko ikasleen gelak ikusteko aukera izango dute gurasoek. Bestalde, Potxin eta Patxin pailazoek emanaldia egingo dute. Elkar Hezi ikastetxean bihar egingo dute, 10:30ean. Musikoterapia, sukalde tailerra eskulanak eta masaje alternatiboak egongo dira ume, gaztetxo zein gurasoendako eta 12:00etan, luncha. Errekalden ere bihar, zapatua, egingo dute ate irekien jardunaldia, 17:00etan. Irakasleekin eskola ikusteko aukera egongo da, eta tailerrak eta bertso eta dantza saioa ere bai. Urgainen Zuazola gunean 29an egingo dute ate irekien eguna, 18:30ean.

Matrikulazio epea urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra da.






Dionewarko eskola argazkietan ikusten den moduan zegoen duela hiru hilabete. | NDANK-NDANK



Bergarako elkarteak eraberritu dituen bi ikasgelak kanpotik. | NDANK-NDANK



Dionewarko neska-mutikoak eskola berrituan. | NDANK-NDANK

# Ndank Ndank-ek bukatu ditu eskolako bi gela eraberritzeko lanak

- Dionewarko eskolako bi gela eraberritzeko lanak amaitu berri dituzte
- Lehenengo fasea amaituta, orain komunak eraikitzeari ekingo diote

**ARRITXU BARRUSO** | BERGARA

Duela gutxira arte Senegalgo Dionewar herriko neska-mutiko askorendako arriskutsua zen eskolara joatea. Sabaia, esaterako, oso egoera kaxkarrean zegoen eta lurzorua, berriz, oskolez beteta. Zorionez, egoera horrek erabateko aldaketa izan du hiru hilabeteren buruan eta Bergarako Ndank Ndank elkarteak zerikusi handia izan du horretan. Senegaldarren lagunen elkarteak Aretxabaletako Udalaren, bazkideen eta herritarren laguntzari esker, Dionewarko eskolako bi ikasgela berritu ahal izan ditu.

Eskolak 320 neska-mutiko inguru hartzen ditu gaur egun. Guztira, hamaika ikasgela ditu, eta horietatik sei herritarrek eurek egokitu zituzten 2012ko lehenengo hiruhilekoan. Beste lau ikasgela bertako nekazaritza batzordeak konponduko ditu. Beraz, bi ikasgela gelditzen ziren konpontzeko finantzazio barik. Horiek dira, hain justu ere, Ndank Ndank elkarteak konpondu dituenak. Lanoi esker, gainera, lortu dute Senegalgo Gobernuak beste bi irakasle ipintzea Dionewarko eskolan.

**Orain komuna eraikiko dute**

Bi gelen egokitzapenarekin amaitutzat emango duten proiektuaren lehenengo fasea eta laster bigarrenari ekingo diote. Bergarako Udalak emandako dirulaguntzari esker, eskolan komunak eraikiko dituzte. "Gaur egun beharra izanez gero inguruko etxeetara joan beharra izaten dute, eta neska-mutiko asko gero ez dira itzultzen eskolara", azaldu du elkarteko Eli Dominguezek.

Martxo inguruan Dionewarrera joango dira komunen eraikuntza proiektua bideratzera, eta baita sor daitezkeen beste behar batzuk aztertzera ere.

ESANAK

**"Hezkuntza oso garrantzitsua da herriaren etorkizunerako"**

**MAMADOU SAAR** | NDANK NDANK

**Bergararren erantzun ona**

Ndank Ndank elkarteko kideak oso pozik daude urtebetean egindako ibilbidearekin, eta baita Udalak eta herritarrek elkarteari egindako harreragatik ere. Eskerrak eman nahi dizkiete orain arteko lana posible egin duten guztiei: "Oso pozik gaude, eta baita Dionewarren ere. Bergararrek oso ondo hartu gaituzte. Bi kulturek oso ondo egin dute bat eta bide luzea dute egiteko elkarrekin".

## Aurrefabrikatutako etxeak hustu eta ikasle guztiak Seminarioan dagoeneko

Orain arte museoa izan den tokian bi gela egokitzea bakarrik falta da

**A.B.** | BERGARA

Aranzadi Ikastolako lanak azken txanpara iristen ari dira. Azken pausoa izan da Seminarioko jolastokiko aurrefabrikatutako etxetxoak kendu eta ikasle guztiak Seminarioko eraikinean kokatzea.

Gabonetako oporren aurretik, Seminarioko etxetxoetan zeuden ikasleak, 100 inguru, Seminarioko eraikinaren bigarren solairuan kokatu ziren. DBHko lehenengo eta bigarren mailetako neska-mutikoak, hain justu ere. Hasiera batean, Gabonetan ziren aurrefabrikatutako etxeak jolastokitik kentzekoak, baina, azkenean, asteon hasi dituzte desmuntatzeko lanak.



Aurrefabrikatutako etxetxoak kendu dituzte asteon. | ARRITXU BARRUSO

**Orain, museoa egokitu behar**

Prozesua luzea izan den arren, esan bezala, Aranzadi Ikastolako lanak azken txanpara iritsi dira eta gauza bakarra gelditzen da egiteko: Udalak Gabonetan hustu zuen Seminarioko museoa, hain zuzen ere. Espazio horretan bi ikasgela eta biltegia kokatuko dituzte, baina zehazteke dago lanak noiz hasiko diren.

**Inaugurazio ekitaldia**

Aranzadi Ikastolako zuzendari Ane Barrusok adierazi du lanak bukatutakoan inaugurazio ekitaldia egingo dutela, herritarrei ikastolaren itxura berria erakusteko.

## Goio Arrietaren monologoak Zabalotegin eta Mitxelenaren argazkiak Aroztegin

**A.B.** | BERGARA

Asteburua umore puntu batekin hasi nahi dutenek hitzordua daukate egubakoitzean 22:00etan Zabalotegi aretoan. Goio Arrietak *Sustraiak han dituen* bakarrizketa saioa eskainiko du. Pertsonaia eta musikari ezagunen imitazioetan oinarritutako ikuskizuna da Goio Arrietarena. Pertsonaien istorioak kontatu eta kantatu egiten dira, eta, aktorearen attrezzoa aldatzen doan bitartean, bideoklipak erabiltzen ditu publikoa girotzen laguntzeko. Sarrera zortzi euro ordaindu behar da.

**Mikel Mitxelena Aroztegin**

Aroztegi aretoan, bestetik, erakusketa berria inauguratuko dute egubakoitzean: Mikel Mitxelenaren *Jaizkibel, forma eta koloreen sinfonia*. Jaizkibeleko amildegietan mundu osoan bakarrak diren haitzen argazkiak aurkeztuko ditu artista errenteriarrak.

## Equo Bergarak herritarrak gonbidatu nahi ditu urtarrilaren 31n egingo duten hitzaldira

Equo Bergarak herritarrak gonbidatu nahi ditu urtarrilaren 31n, eguenean, Bergarako kultura etxean egingo duten hitzaldira. 19:30ean hasiko da eta honako gaiak jorratuko dituzte, beste batzuen artean: mapa politiko berriak udalen borondatean oinarrituta, *Oparitu zuhaitz bat* egitasmoa, Fiare banku etikoa eta Goiener kooperatiba energetikoa. Interesa duten guztiak gonbidatu nahi ditu Equok.

# Zer eskatzen diozu ikastetxe bati?



Guk...

- HURBILTASUNA
- ESPERIENTZIA
- KONFIANTZA
- INPLIKAZIOA
- KALITATEA



## HURBILTASUNA

- Hitzen altxorra, irakurzaletasuna bultzatzeko.
- Bertako udaleku irekiak ere ez zaizkigu falta.
- ...



## ESPERIENTZIA

- Ortua ere badugu.
- Aitxitxa eta amamen eguna ospatzen dugu.
- ...



## KONFIANTZA

- Sukalde propiodun jangela.
- Adituekin guraso eskolak eskaintzen ditugu.
- ...



## INPLIKAZIOA

- Irakasleen formazio etengabea eta eguneratua.
- Errealitatearekin konpromisoa (FISC, Gallinero...)
- ...

## KALITATEA

- Bertsotan bertsozale elkartearen laguntzaz.
- LHn arlo artistikoa ingelesez ematen dugu.
- First Lego League (Zientzia eta Teknologia lehiaketa)
- Holandarrekin elkartrukea egiten dugu.
- ...



## Zalantzarik gabe...

1799 – 1999

**Mariaren Lagundia Ikastola**
Espaloia 1
Tel. 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net
www.mlagundia.net

## MATRIKULAZIOA

**Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra**

**2 urteko umeen gurasoentzat bilera urtarrilaren 30ean arratsaldeko 18:00etan**

# 70 gutun, iaz baino bost gehiago, jaso ditu Jardunek Amodiozko Gutunen 21. Lehiaketarako

M.B. | BERGARA

Dagoeneko amaitu da Jardun euskara elkarteak antolatzen duen amodiozko gutunen lehiaketan parte hartzeko epea eta elkarteko kideek 70 gutun batu dituztela azaldu dute, iaz baino 5 gehiago. Gipuzkoatik 49 gutun jaso dituzte; Bikaiatik, 16; Arabatik, bat; Nafarroatik, 2; eta Ameriketako Estatu Batuetatik, beste bi.

Idazleen perfilari dagokionez, gutunen %70 emakumezkoek idatzitakoak dira eta adinaren batez bestekoari dagokionez, berriz, 31 urtekoa da.

**Saria erabakitzear dago**

Datozen egunotan batuko dira epaimahai nagusia zein gaztea eta eurak erabakiko dituzte aurtengo irabazleak. Epaimahai nagusiari dagokionez, Unai Azkarate kantariak, Arrate Illaro bertsolariak, Jon Martin bertsolariak eta Ekhiñe Egiguren iazko irabazleak. Epaimahai gaztea, berriz, Aranzadi ikastolako eta Ipintza institutuko bina ikaslek osatuko dute.

Ohi bezala, lau sari emango dira San Valentin egunean 19:00etan, kultura etxean, egingo den ekitaldian.

## OHARRAK

**SORTUREN GAINEKO BATZARRA BIHAR**

Irizar jauregian izango da, 10:00etan. Antolaketa eredu parte-hartzaile, malgu eta eraginkorra erabakitzea izango da biharko batzarraren egitekoa.

**ATZERATU EGIN DUTE MENDI ESKI IRTEERA**

Pol-Pol mendi taldetik jakinarazi dutenez, hilaren 26-27-rako iragarrita zuten mendi eski irteera atzeratu egin dute otsailaren 1-2ko asteburura, mendian egon zitekeen arriskuagatik. Irteera antolatzeko batzarra hilaren 29an egingo dute, 19:00etan, pilotalekuko bulegoan.

**HANKA LABANKA-REKIN PATINATZEKO AUKERA**

Hanka Labanka patinatzaile taldetik jakinarazi dutenez, ume zein nagusiek Labegaraietako kiroldegian patinatzeko aukera izango dute domekan, hilak 27, 09:15etik 10:45era bitartean.

**ATE IREKIAK ETA BATZARRA SAN MARTIN IKASTETXEAN**

Ikastetxearen funtzionamendua ezagutzera emateko asmoz, hilaren 29an batzar informatiboa egingo dute San Martin Herri Eskolan. 18:00etan egingo dute, eskolako liburutegian. Otsailaren 2an, berriz, ate irekien jardunaldia egingo dute 16:30etik. 19:30era.

**Alex Labaien** | Udal Euskaltegiko zuzendaria

# "Ez ditugu akatsak bakarrik landuko; hizkuntza aberasten ere saiatuko gara"

Bertako euskara lantzeko ikastaroak antolatu dituzte otsailerako, eta izen-ematea zabalik dago

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Udal Euskaltegiak antolatu dituzte ikastarook, Jardunen lankidetzarekin. Udal Euskaltegian izango dira eskolak. Alex Labaienek eman dizkigu xehetasunak.

**Bertako euskara lantzeko ikastaroak antolatu dituzue. Zergatik? Ez al dugu, ba, ondo erabiltzen?**

Ez, ez da hori kontua, eta, gainera, garbi laga nahi nuke ez dela bergararron arazo bat, Bergaran gaizki egiten dela edo hemengo euskalkia besteak baino kaskarragoa dela… Ez, inondik inora ez. Hemengo euskara polita eta aberatsa da oso, eta, Bergaran, denetik dago. Primeran berba egiten duen jende asko dago, baina bestelakoa ere bai: arazoak dauzkana adierazi nahi duena egoki adierazteko, erraztasunik ez duena… azken batean, konfiantza falta duena. Bestalde, bistakoa da badirela egitura batzuk nahastu egiten ditugunak edota zuzen erabiltzen ez ditugunak, eta horiei erreparatuko diegu.

**Zeintzuk dira ondo ez erabiltzearen arrazoiak?**

Arrazoi asko egon daiteke, baina, bat azpimarratzekotan, ohitura falta azpimarratuko nuke nik. Jende asko dago euskaraz gutxi egin duena, batez ere gaztelaniaz jardun duena, lanean, lagunartean…




Alex Labaien. | M.B.

**"Primeran berba egiten duen jende asko dago, baina bestelakoa ere bai"**

**Eta zeintzuk dira akatsik ohikoenak?**

Ohikoena ez dakit, baina ezagunena, seguruen, *kalian ikusi dotsut* izango da. Aspaldiko kontua da hori, etxean askotan entzun duguna. Aditzarekin lotutako akats nabarmen batzuk badaude; adibidez, egun, gazte jendeak, askotan, nahastu egiten ditu *jau* eta *jaku* aditzak, eta *etorri jau* esaten dute *etorri jaku* esan ordez, edota *joango nintzan joango nintzake*-ren ordez. Deklinabidearekin lotutakoak ere badira: *zuria gabiz berbetan* edo *betiko bezela nabil…*

**Eta pentsatzen dut, kasu batzuetan, akatsetako batzuk hain ditugula barneratuta, konturatu ere ez gara egiten gaizki erabiltzen ari garenik.**

Bai, hala da. Azken batean, hizkuntza-transmisioa ahoz egiten da, entzunaz, eta era batera entzuten baduzu, ba, horrela ikasiko duzu. Hala ere, askotan, gaizki dihardugula jakin arren, ez dugu zuzentzen, batzuetan, ez dakigulako zein den forma zuzena, eta, beste batzuetan, lotsa moduko bat ematen digulako forma zuzena lagunen aurrean erabiltzeak. Bitxia da, baina hala aitortu izan didate zenbait ikaslek: lagunen aurrean, nahiago dutela *lagako notsan* esan –gaizki dagoela jakinda–, *lagako notsake* esatea baino…

**Hori guztia kontuan izanda, zer da ikastaroan irakatsiko duzuena?**

Ikastaro motza da: 10 ordu dira. Baina hainbat arlo jorratuko ditugu; ez ditugu akatsak bakarrik landuko. Ahal den neurrian, hizkuntza aberasten ere saiatuko gara: gero eta gutxiago entzuten diren berbak eta esamoldeak ikasiko ditugu, hiztun onen grabazioak entzun eta aztertu… Ikasleek eskatutakoari ere erreparatuko diogu.

**Nork eman dezake izena?**

Bertako euskara landu nahi duen edozeinek. Euskaraz egiteko gaitasuna izatea da baldintza bakarra. Berdin dio euskalkian edo batuan. Ez dago zertan alfabetatuta egon edo euskaldun zaharra izan.

**Eta non eman behar da?**

Euskaltegian, Barrenkalean. Irizar jauregian gaude, goiz eta arratsaldez. Telefonoz deituta (943 76 44 53) edota *berg.eusk@udal.gipuzkoa.net*-era idatzita. Urtarrila amaitu aurretik, ahal dela.

### Iñaki Amutxastegi apaiza zenaren aldeko meza domekan

San Pedroko eta Santa Marinako parrokiek eliztarrei jakinarazten diete zendu berri den Iñaki Amutxastegi apaiz gaztearen aldeko meza izango dela domekan, hilak 27, 12:00etan, Santa Marina parrokian. Eliztar guztiak mezan parte hartzera gonbidatuta daude.

### 'Su haietatik ke hauek' liburua aurkeztuko du Iñaki Petxarromanek

*Berria*-ko kazetariak *Su haietatik ke hauek* liburua aurkezteko berbaldia egingo du hilaren 30ean Irizarren, 19:30ean. Errauskailua jartzeko Gipuzkoan egin diren saiakerei eta atez atekoaren agerpenari buruz arituko da, Bergara Zero Zabor-ek eta Angiolillo liburutegiak gonbidatuta.



Uberako zenbait auzotar Mari Justarekin. | GOIENA

# Gaur, San Paulo Eguna, jaiak hasiko dira Uberan

Herri bazkaria, meza, tortilla eta tarta lehiaketak eta musika emanaldiak egongo dira, besteak beste

M.B. | BERGARA

San Paulo jaiak ospatuko dituzte asteburuan Ubera auzoan. Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara bitartean zenbait ekitaldi egongo dira jaiak ahalik eta alaien ospatzeko. Gaur, San Paulo eguna, goizean hasiko dira ekitaldiak, 11:00etan egongo den mezarekin eta ondoren banatuko dituzten salda eta txistorrarekin. Dena den, ekitaldi nagusiak iluntzetik aurrera izango dira, 20:30ean Mari Justa eta Pedro Joxe auzora jaisten direnetik aurrera. Horren ondoren, 21:00etan, afaria egongo da auzoko elkartean trikitilariekin, eta afalostean *photocall* saioa egingo dute.

**Zapatuan herri bazkaria**

Zapatuan salda eta txistorra banatuko dituzte 12:00etan eta tortilla eta tarta lehiaketa ere egingo dituzte ordu berean. Etxetik prestatuta eraman behar dira eta lehenengoek saria jasoko dute. Eguerdian herri bazkaria egongo da eta nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute. Eta bazkalosterako, etxetik argazki zaharrak eramateko eskaria egin dute, guztien artean ikusteko.

Domekan diana joko dute Bergarako txistulariek 10:00etan, eta 10:30ean meza nagusia egongo da. 11:30ean Alai Taldeak kantaldia egingo du eta ondoren, Bergarako trikitilari gazteek. Gainera, salda eta txistorra ere egongo da bertaratzen diren guztiendako. Horrekin batera, Uberako IV. Ugarixo Tiroketa jokatuko da. 3 euro izango da izen-ematea eta lehenengo hirurek saria eskuratuko dute. Jaiei amaiera emateko ezustekoa ere egongo da.

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09




# Ongi etorri

# ARANZADI IKASTOLARA



**ZATOZ ETA IKUSI**

**Urtarrilak 28**

**18:00**
Hitzaldia:
2 URTEKO HAURREN EZAUGARRIAK

**18:30**
Ikastola proiektuaren aurkezpena eta instalazioak ikustea

**Otsailak 3**

**11:30**
Ate irekiak

**Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra bisita gidatu pertsonalizatuak. Deitu 943769071 telefonora eta hartu hitzordua**







ikastolenelkartea

# Zerbitzuak eta proiektuak trukatzea hitzartu dute Huhezik eta Udalak

## Otsailaren 16an ate irekiak egingo dituzte herritarrek eta interesatuek fakultatea ezagut dezaten

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Elkarlanerako hitzarmena sinatu dute astean Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateak (Huhezi) eta Aretxabaletako Udalak. Hala, zerbitzuak eta proiektuak trukatzeko konpromisoa hartu dute bi aldeek.



Ana Bolinaga alkatea eta Nekane Arratibel dekanoa hitzarmena sinatzen. | M.A.

**Ate irekiak otsailaren 16an**

Nekane Arratibel Huheziko dekanoak eta Ana Bolinaga alkateak eguaztenean sinatutako hitzarmenarekin bi erakundeen arteko harremana arautu dute. Huhezik hainbat konpromiso hartu ditu; horien artean daude, liburutegiaren eta gelen erabilera zabaltzea aretxabaletarrei –beti ere unibertsitatearen funtzionamenduaren barruan– eta MUko Kirol Zerbitzuak antolatzen dituen ekintzetan herritarrek ere parte hartu ahal izatea: "Fakultatea kokatuta dagoen herriaren garapenean aritzea ere badelako gure helburua", zioen Arratibelek.

Gainera, ate irekien saio bat egingo dute herritarrek instalakuntzak ezagut ditzaten. Otsailaren 16an, zapatua, izango da hori; 11:00etan hasi eta eguerdia artean bertako langileek eta irakasleek egingo diete lagun fakultatea ikustera doazenei.

**Udalaren konpromisoak**

Udalak, bere aldetik, campus inguruko zelaiaren eta bertako argiztapenaren ardura izango du. Gainera, erraztasunak emango dizkio Huheziri Udalarenak diren hainbat gune erabiltzeko, tartean, Arkupeko aretoa, Ibarra futbol zelaia eta Iturrigorri pilotalekua –lehentasuna Kurtzebarri eskolakoek izango dute–.

Elkarlanean bultzatuko dituzten proiektuen artean, ostera, Euspot lehiaketa dago, komunikazio ikasleen praktikak eta proiektuak aprobetxatuta Arteman publizitate agentziarekin batera egin izan den lehiaketa.

**135 ikasle**

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko campusak Ikus-entzunezko Komunikazioaren titulazioa hartu du eta espezialitate horretarako egokitutako instalakuntzak ditu. Irailetik dago martxan eta 135 ikasle daude.

> **ESANAK**
>
> **"Herriaren garapenean aritzea ere bada helburua"**
>
> NEKANE ARRATIBEL | DEKANOA

# Kabina protagonista Aratuste kartelean ere

**M.A.** | ARETXABALETA

Aratusteak iragarriko dituen kartela dagoeneko aukeratu du epaimahaiak, Peli Beltran de Herediak egindakoa, hain zuzen. Lehiaketara zazpi aurkeztu zituzten eta irabazleak 200 euro jasoko ditu.

Azken asteotan hain ezaguna egin den Durana kaleko telefono kabinak –barruko arropak zintzilik dituela– eta UDAko kamiseta duen pailazoak iragarriko dizkigute 2013ko Aratusteak.



Aratusteak iragartzeko kartela. | P.B.H.

# Entseguetan dabiltza Santa Ageda neska-mutilak

## 40 bat lagun dira; egubakoitzetan elkartzen dira

**M.A.** | ARETXABALETA

Egubakoitzetan (22:00) dute hitzordua Santa Ageda neska-mutil izango direnek; 1994an jaiotako 40 bat lagun. Azken asteotan elkartu dira entseguetarako, eta otsailaren 4a iritsi bitartean beste hainbat egingo dituzte.

**Dantzan egiteko bi egun**

Urteroko ohiturari eutsita, baserriz baserri joango dira kantuan eta eskean otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera; eta kaleko bazterrak alaituko dituzte hurrengo egunean, Santa Ageda eguna. Orduantxe egingo dute dantzan Herriko Plazan. Ohitura da Aratuste-domeka arte domeka guztietan egitea, eta aurten domeka bakarra dago: Aratuste-domeka. Hortaz, dantzan egiteko bi egun bakarrik izango dituzte: "Halako aukera bizitzan behin izango eta bi egunetan bakarrik dantzan egitea, pena da gero!" diote.

### Odol ateratzeak egingo dituzte Arabako odol bankuko kideek datozen bi astelehenetan

Arabako odol bankuko kideek odol ateratzeak egingo dituzte osasun etxean. Ohi bezala, astelehenetan etorriko dira, hilaren 28an eta otsailaren 4an (16:30-20:00).

Gainera, *Lagun bat ekarri* kanpaina jarri dute abian oraintsu. Odol emaile bakoitzak senide, lagun edo lankide bati odol ateratzearen gaineko informazioa eskaintzea eta bertan parte hartzera animatzea da kanpaina horren helburua.

# Aitor Irure: 10 urte entrenatzaile lanetan

10 urte daramatza Aitor Irurek entrenatzaile lanetan UDAn. Talde asko entrenatu ditu tarte horretan; orain, esaterako, kadeteekin dabil (argazkian). Egindako lan hori guztia aitortu eta eskerrak emateko urrezko intsignia eman dio UDAk. Hori jaso duen lehen entrenatzailea da hain zuzen, 10 urte badira zerbait eta!



M.A.

## OHARRAK

**'OPERACION E' FILMA**

Helduek *Operacion E* filma izango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00).

**PUZGARRIAK IGERILEKUAN**

Puzgarriak izango dituzte neska-mutikoek bihar Ibarra kiroldegiko igerilekuan: 3-6 urte artekoak, 16:00-17:00; 7-10 urte artekoak, 17:30-18:45; eta 11-12 urtekoak, 18:45-20:00. Abonatuek debalde dute sarrera; gainerakoek, 5 euro.

**BIODANTZA: ATE IREKIAK**

Biodantza Bai taldeak ate irekiak egingo ditu eguenean, hilak 31, kuartel zaharrean (19:30). Izena emateko aurrez deitu: 644 35 10 40.

**Maier Etxebarria eta Aitzol Altuna** | Jaiki elkarteko kideak

# "Jolastuz sormena berreskuratzea da kontua, ume izatea berriro"

- Bat bateko sormen saioak egingo dituzte hilabeteko azken domeketan
- Musika, antzerkia, dantza eta margolaritza askatasunez landuko dituzte

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Bat bateko sorkuntza saioak antolatu ditu Jaiki elkarteak. Lehenengo saioa domekan da kuartel zaharrean (17:30-19:30), eta hilabeteko azken domeka guztietan elkartuko dira. Ez dago aurrez izenik eman beharrik, hortaz, jakin-mina duena bertan ager dadila.

**Zer dira bat bateko sorkuntza saioak?**

Iaz lau ikastaro intentsibo egin genituen: margolaritza, dantza, musika eta antzerkia. Horiei jarraipena emateko pentsatu dugu hilean behin elkartu guztiok eta inprobisatzea.

**Bi orduko saioak dira, zer egingo duzue?**

Orain dela lau urte antzeko zerbait egin genuen, nahiz eta orduan deialdi irekia ez egin. Lehenengo beroketa saioak egiten genituen bateratzeko, hau da, armonizatzeko, gidari baten bitartez; eta hortik aurrera libre da guztia.

**Esperientziarik ez duzue eskatzen; bat ere ez?**

Ez, musika edozein instrumenturekin atera daiteke, baita ahotsarekin ere; antzeztu, dantzan egin… Konfiantza kontua da, lotsak alde batera utzi eta taldean konfiantza izatea. Eta derrigorrez ez dago zerbait egin beharra, gura duzunean atera zaitezke lan espazio horretatik, gura duzunean itzuli…




Maier Etxebarria eta Aitzol Altuna sorkuntza saioen kartelarekin. | M.A.

## "Sorkuntza landu eta imajinazioa libre utzi barruan duguna ateratzeko"

**Jaikikook dagoeneko taldetxoa osatuta duzue; kanpotik datorrenak ez du arazorik taldera egiteko?**

Bat ere ez. Guztiz librea denez etortzen denak askatasun osoa du parte hartzeko edo ez. Zabalik etor dadila, besterik ez.

**Hortaz, parte-hartzaileek ez dute aparteko ezaugarririk izan behar?**

Ez. Bere burua ezagutzeko gertu egon eta inolako aurreiritzi barik etorri. Musika, antzerkia, dantza… orokorrean arte ederretan zaletua denari zuzendua dago.

**Saio horiek zein helburu dute?**

Batetik, sorkuntza lantzea, imajinazioa libre uztea, norberak barruan duen zerbait ateratzea ekintza artistikoen laguntzarekin… Izan ere, jolastuz sormena berreskuratzea da kontua, ume izatea. Eta ildo horretatik ondo pasatzea: barre egin…

**Hortaz, terapia ere bada?**

Bai… Mediku bako terapia.

**Halako saioak aurretik eginda dituzue. Zelako erantzuna izan zuten?**

Orain dela lau urte egin genituen eta jende asko elkartu ez arren esperientzia polita izan zen.

**Zerbait eraman beharra badago?**

Ez dago zertan. Baina gura dena ekar daiteke: instrumenturen bat, oihalak, maskara bat… Espresatzeko zerbait behar izanez gero, lasai ekarri.

**Bestetik *Dantza gogoz* ikastaroa ere abian du Jaikik, ezta?**

Bai, sormen dantza da, kontakt… eguaztenetan elkartzen gara eta taldea zabalik dago.

## Zoru pelbikoa indartzeko taldea eguenetan elkartuko da

Zoru pelbikoa errekuperatzeko taldea osatu du Kuku Miku elkarteak, eta orain arte egubakoitzetan elkartu da. Egun aldaketa egon da, eta orain, eguenetan elkartuko dira taldekideak; ordua (14:30-15:30) eta lekua (Kuku Mikuren lokala) ez dituzte aldatu.

Oraindik lekua daukate, eta, gainera, bigarren talde bat osatzeko gertu daude: "Horrela, arreta pertsonala eskaintzeko". Izena emateko: *sanefisioterapia@hotmail.es* edo 943 25 24 40 (Ane).

## Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa bihar

Bihar, hilak 26, jokatuko dute Urbaltz elkartean (16:00) Euskal Herriko V. mus txapelketako kanporaketa. Izena bertan eman behar da (20 euro bikoteko).

Gutxienez, lau bikotek elkartu beharko dute kanporaketa onartua izateko. Eta bakarra sailkatuko da elkartutako bikoteak hamar edo gutxiago badira. Gipuzkoako kanporaketa otsailaren 23an jokatuko dute eta finala, martxoaren 9an. Sari bikainak iragarri dituzte.

PAUSOKA

Pausoka Haur Eskola, Belorrieta 8, 20550 ARETXABALETA Tel.: 943 77 03 77



ZEURIA

ZEUENA

GEURIA...

PAUSOZ PAUSO ELKARREKIN

0tik 3 urtera

PAUSOKA HAUR ESKOLA udal zerbitzua

ETORRI ETA EZAGUTU!

IZEN-EMATE EPEA ZABALIK: URTARRILAREN 28TIK OTSAILAREN 8 ARTE

BULEGO ORDUTEGIA: 09:00 - 14:00 / 16:00 - 18:00

Aretxabaletako Udala



Batzarra egin zuten eguaztenean, kultura etxean. | MIRIAN BITERI

# Liburutegi zaharra izango da umeen neguko aterpe

## Otsailerako gura dute martxan jarri 0 eta 7 urte bitartekoendako lokala; asteburuan egongo da zabalik

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Zapatu eta domeketan, 17:00etatik 19:00etara. Horixe izango da herriko 0 eta 7 urte bitarteko umeak gurasoekin egoteko aterpe berriaren ordutegia. Gazteria teknikari Maider Etxanizek jakinarazi du otsailerako gura dutela kultura etxeko liburutegi zaharreko lokala martxan jartzea.

Eguaztenean batzarra egin zuten guraso talde batek eta udal ordezkariek. Maider Etxaniz teknikariak eta Itziar Martinez zinegotziak egitasmoaren berri eman zuten, eta horretarako, gurasoen konpromisoa eskatu zuten. Parte hartzeko gertu daudenen izen-ematea eskatu zuten, lokalaren funtzionamendua beraiekin adoste aldera.

**Gurasoak, dinamizatzaile**

2012ko parte-hartze prozesuan, haurrak gurasoekin egoteko neguko aterpe baten beharra jaso zen. Ordutik hona hainbat batzar egin dira, eta Udalak dituen lokalak aztertu ostean, liburutegi zaharra gurasoen esku uztea pentsatu dute. Horren harira, honakoa azaldu du Etxanizek: "Beharrezkoa zen lokala plazan egotea, eta hortaz, kultura etxeko lokal horretan pentsatu genuen. Batzuen ustez txikia da, baina hasteko nahikoa izan daitekeela adostu dugu batzarrean. Gurasoak izango dira lokala dinamizatuko dutenak, eta beraiek joango dira ikusten".

Esan bezala, interesa dutenen izena jasotzen dabiltza orain. Hainbat bide dituzte eskura: kultura etxera joanda, 943 71 46 88 telefonora deituta edo *gazteria@eskoriatza.net* helbidera idatzita. Lokala zabaltzen denean ere aukera izango dute gurasoek.

## Bigarren eskuko mozorro azoka egingo dute

**M.B.** | ESKORIATZA

Aratusteen harira, jaialdia antolatu dute otsailaren 1erako, Jose Arana, Almen eta Luis Ezeizako guraso talde batek eta Udalak elkarlanean. 18:00etatik 19:30era egingo dute, eta, besteak beste, aurpegi margotzea, txokolate-jana, torrada tailerra eta bigarren eskuko mozorroen azoka izango dira.

Azken horren harira, Udaletik jakinarazi dute etxean gordeta dauden mozorro zaharrak saltzeko eta erosteko aukera egongo dela azokan. Edonork parte har dezake; baldintza bakarra aldez aurretik abisatzea izango da. Hiru bide daude horretarako: kultura etxera joatea, 943 71 46 88 telefono zenbakira deitzea edo *gazteria@eskoriatza.net* postara idaztea.

### Pagadien kudeaketaren gaineko berbaldia dago gaur Ibarraundin

*Pagadien kudeaketa gaur egun* lelopeko hitzaldia antolatu dute gaurko, 19:00etan, Ibarraundin. Diputazioko Bixente Dorronsorok, Basogintza elkarteko gerente Fernando Otazuak eta basolanak egiten dituen enpresa bateko arduradun Javier Beitiak egingo dute berba. Interesa duten guztiei dago zabalik.

### Zuhaitz Egunaren harira, etzi, 10:30ean geratu dira museoan

Zuhaitz Eguna egingo dute aurten ere; etziko, 10:30ean, jarri dute hitzordua, Ibarraundin. Handik Tesa eta Zubia enpresen arteko bidegorri zatirantz abiatuko dira, han landatuko dituzte-eta urkiak, haritzak eta arantzak. Iaz Eskoriatzan jaio zen haur kopurua izango dute kontuan zuhaitzak landatzerakoan; denera, 37 ume jaio ziren.

## OHARRAK

**FORMAZIO IKASTAROA**

Amuskaren eskutik *Juntas somos mas* izeneko ikastaroa izango da gaur, 16:00etatik 20:00etara, kultura etxean. Bakoitzaren bizitza, etxea edo negozioa kudeatzen ikasiko dute han.

**SORTUREN BATZARRA**

Sortu eratzeko hirugarren herri batzarra egingo dute bihar, 10:00etan, Ibarraundin. Sorturen antolakuntza ereduaz jardungo dute horretan. "Abertzale eta ezkertiar" sentitzen diren eskoriatzarrak daude gonbidatuta.

**ANGER INKERNUN**

Bonberenea Ekintzak-ekin elkarlanean kaleratutako *Hirugarren azala* disko berria aurkeztuko du Anger musika talde arrasatearrak bihar, zapatua, 23:00etan, Inkernu tabernan.

## NIRE USTEZ



**MARIJO PAGALDAI**

# Hiltzen ikastea

Guztioi eragiten digun errealitate bat izan arren, oraindik gehienontzat tabua izaten jarraitzen duen gai honekin ausartuko naiz.

Zerbait tabu bihurtzen denean ez diogu aurrez aurre begiratzen, ez ditugu ikuspuntu berriak bilatzen, ez dugu harekin ikasten, enkistatu egiten zaigu eta ez da horretaz hitz egiten, ikuspuntu zaharrak errepikatzeko baizik. Eta alde horretatik ez digu eboluzionatzen uzten. Gela ilun batean gelditzen da, esperientzia berriari lekua utzi barik.

Horregatik gela horretako atea zabaltzera ausartuko naiz, argi pixka bat sartzen utzi eta bertan gordeta dagoen apopilo ezezagunari (Heriotzari) galdetu ea zer daukan niri erakusteko.

Atea zabaltzerakoan beste lagun batzuekin bizi dela ikusi dut: bakardadea, lotura falta, erantzukizuna eta askatasuna ere han daude. Garai batean guztiak gorde genituen beldurra genielako; ez kaltegarriak zirelako, baizik eta ezagutza edo esperientzia faltagatik.

Konturatzen naiz bata ulertzeko besteak ere ulertu behar ditudala. Eta bakoitzak bere aldetik gela horretatik ihes egin eta egunero lagun egiten digutela. Bizitzen benetan ikasteko bakardadean ere bizitzen, lotura barik biratzen, arduratsua izaten eta egunero hiltzen ikasi behar dudala eta era horretan libre eskubidea lortuko dudala.

> **"Heriotzari galdetu diot ea zer daukan niri erakusteko"**



AMAIA GARATE

# Herriko zaharren egoitzarendako 11.758 euro

Irailean egindako Garagardo Festan zein Gabonetako Loteriarekin batutako 11.758 euroak zaharren egoitzari emateko ekitaldia egin zuten joan den eguaztenean; Eskoriatzako herriaren izenean, kopuru horretako txekea eman zieten udal ordezkariek zaharren egoitzakoei. Azken horiek pozik azaldu ziren diruarekin, egoitzak beharrezko duen zaharberritze proiektua egiteko lagungarri izango da–eta.

# Jauregi: "Haurrek eta eskulanek bete naute"

- Astean, 80 ume inguru izaten dira Xinkonan eskulanak egiten
- Helduek hala eskatuta, gantxilloa ere irakasten du Jauregik

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Alaitz Jauregi haur hezitzaile antzuolarrak Xinkona txoko goxoko ateak ireki dizkigu. Xinkona denda izatetik haratago doa: arratsaldero, gaztetxo zein nagusiagoen bilgune bilakatzen da. Abian dira dagoeneko aurtengo lehenengo hiruhileko ikastaroak. 80 umetik gora izango ditu txanda ezberdinetan, eta, helduek hala eskatuta, gantxilloa egiten ikasteko taldetxo batekin ere badihardu lanean.

"Harrera oso ona izan dute ikastaroek, eta gaztetxo zein helduak ere animatu dira". Gauza asko egin eta lantzen dutela azaldu digu: "4-5 urtekoek gantxilloa eta puntua egiten dute. Baina motrizitate fineko eskulanak ere egiten ditugu: bolatxoekin eta erraz lantzen diren materialekin eskumuturrekoak, lepokoak... eginez. Jostera ere animatzen dira, helduen moduan".

Birziklatzeko materialak ere erabiltzen dituztela azaldu digu Jauregik. "Etxeko trapu zaharrekin kuxinak edo zaku beroak egiten ditugu, esaterako. Denerako materialak erabiltzen ditugu, probatzeko: moldeatzeko, margotzeko...". Umeak gustura; batzuk, baina toki barik kanpoan geratzen direla esan digu: "Gogorra da, baina, pixkanaka, denak joango dira ikastaroa probatzen".

### Harremanak estutzeko

Eskolatik kanpora euren txokoa dute herriko txikitxoek. "Elkarri laguntzen ikasten dute, elkarlana oso polita da. Lehen izaten zen moduan, kontuak kontatu eta eskulanak egin bitartean. Gainera, ardurak hartzen ere ikasten dute, arrainei jaten emanda, esaterako. Elkarri laguntzen ere ikasten dugu eta senide edo lagunei opariak egiten dizkiete", azpimarratu digu.

Oso talde txikiarekin hasi zen, eta, ezustean, handitzen joan da hasieran abiatutako proiektua. "Eskulanak eta umeak lotzea niri gustatzen zaizkidan bi gauzak batzea da, guztiz betegarria; eskerrik asko, nigan konfiantza izan duten gurasoei eta, noski, ume guztiei!".

### Helduendako, gantxilloa

Modan dago gurean gantxilloaren artea berriro berreskuratzea. Eta, herritarrek propio eskatuta, gantxillo ikastaroa ere eskaintzen die helduei Jauregik. "Taldetxo bat sortu dugu eta zazpi emakumez osatu dugu. Martxa onean doa, oraingoz", nabarmendu digu Jauregik.



Xinkonan, Alaitz Jauregi gaztetxoekin eskulan ikastaroan. | MAIDER ARREGI

# Bost bikotek jokatuko dute Antzuolako Mus Txapelketako finala domekan

Euskal Herriko Mus Txapelketako lehen kanporaketa otsailean jokatuko da

M.A. | ANTZUOLA

Urtarrilaren 27an, domekan, Antzuolako Mus Txapelketako finala jokatuko dute herriko bost bikotek Arin tabernan, 16:30ean hasita. Horietatik lau sailkatuko dira Euskal Herriko Mus txapelketako hurrengo kanporaketarako. Hain zuzen, finalerako hurrengo kanporaketa otsailean jokatuko da, Seguran.

Azken kanporaketa pasa den asteburuan jokatu zen. Barikuan, Gailurren, Maikel Ortiz eta Xabi Gartzia-Pascual bikotea sailkatu zen; domekan Eperran egindakoan, aldiz, Josu Larrea eta Iker Murua eta Txomin Alberdi eta Iñaki Agirre bikoteak. "Partaidetza itxurosoa izan da, guztira 32 bikotek hartu dute-eta parte herriko txapelketan. Finalera bost pasa dira eta horietatik lau joango dira Euskal Herriko txapelketako kanporaketara", azaldu digu Jesus Kortabarria antolatzaileak.



Gailurren jokatutako finalaurrekoa. | JESUS KORTABARRIA

### Antzuolako finala

Esan bezala, bost bikotek jokatuko dute finala domekan: Felix Alonsok eta Claudio Cabrerak; Sergio Santxezek eta Jabi Berraondok; Maikel Ortizek eta Xabi Gartzia-Pascualek; Josu Larreak eta Iker Muruak; eta Txomin Alberdik eta Iñaki Agirrek.

# Iñaki Lete zenari 2013ko Urrezko Danborra eman zioten domekan

M.A. | ANTZUOLA

Iñaki Lete zenaren alargunak, Mila Agirrek, jaso zuen 2013ko Urrezko Danborra Donostiako alkatearen Juan Karlos Izagirreren eskutik. Izan ere, Donostiako Klasikoa edota Euskal Herriko Itzulia moduko probak antolatzen egindako lana errekonozitu eta omendu gura izan du aurtengo Urrezko Danborrak.

Domekako ospakizunean, Donostiako udaletxeko osoko bilkura aretoan izan ziren Donostiako Klasikoaren arima Jaime Ugarte, haren ondorengo Jose Luis Arrieta eta Iñaki Leteren alargun Mila Agirre. Hirurek jaso zuten urrezko errekonozimendua egindako lanagatik.

Jaime Ugartek, hunkituta, orain dela 20 urte auto istripuz hil zen Iñaki Lete antzuolarra, –orduan alkate ere bazena– ekarri zuen gogora.

### Omenaldi polita

Mila Agirrek, 15 egun lehenago, aurrez jaso zuen albistea. Oso hunkituta eta pozik jaso zuen, gainera. "Orain 15 bat egun jaso zuen Urrezko Danborraren notizia. Pozik, berarekin oroitu direlako; baina penaz, bere fata sumatzen dugulako", azaldu digu Agirre alargunak."Hartu-eman handia daukat oraindik ere denekin. Esan behar dut asko gogoratzen direla Iñaki Leterekin oraindik ere, beti dute gogoan", dio.

Urrezko Danborra Donostian geratu zela azaldu digu; baina jasotako oroigarriaren erreplika bana emango diotela kontatu digu Agirrek: "Intsignia bat ere eman ziguten eta haren erreplika bana emango digutela esan digute. Urrezko Danborra, baina, Donostian geratu zen". Hunkituta eta pozik dago Ugartek Leteri eskainitako hitzengatik.

## OHARRAK

**ORGANO ENTZUNALDIA**
Gaur, 17:00etan, parrokian, Bergarako eta Azpeitiko musika ikasleen organo emanaldia.

**SORTU ERATZEKO 3. BATZARRA**
Sorturen antolaketaren eta funtzionamenduaren inguruan hausnartuko dute bihar, 09:00etan, Olaranen. Antzuolako Sortzaile Taldeak herritarrei dei egin die parte hartzeko. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

# Haize freskoa aurten Santa Ageda bezpera ospatzeko

Abesbatza, Bertso eta Trikitixa Eskolak eta hainbat herritar irtengo dira kantuan

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Esaerak dio kantatzen duen herria inoiz ez dela hilko. Hori horrela bada, ez dago zalantzarik: Aramaioko herria bizi-bizirik dago. Horren adierazle garbia da Santa Ageda bezpera berreskuratzeko ahalegin bereziak izan duen erantzuna. Aurten, Bizente Goikoetxea abesbatzaz aparte, Bertso Eskolako zein Trikitixa Eskolako kideek eta adin guztietako herritarrek hartuko dute parte.

Otsailaren 2an egingo dute ospakizuna: "Otsailaren 4an askok eskola edo lana dute eta horregatik zapatuan egingo dugu Santa Ageda batzea", adierazi du Bittor Kortabarria abesbatzako presidenteak.



Entseguko une bat. | JOKIN BEREZIARTUA

### Ibilbidea, urterokoa

10:30ean elkartuko dira eta Matxain kaletik abiatuz honakoa izango da ibilbidea: Solareaga, Maskaiño, Ibabe, Araneko Errota, Arane, Goiko Errota eta, 13:30 aldera, Iturrietara bazkaltzera. Bazkalostean Arragako baserrietan hasiko dira eta handik beherantz egingo dute: Basagoitia, Errota Berri eta Zalgo, besteak beste. Gero, Ibarrara jaitsiko dira azken saioa egiteko, 18:00 aldera. Eguna borobiltzeko, mokadutxoa egingo dute Kultur etxean.

### Espero baino harrera hobea

Deialdiak espero baino harrera hobea izan du. Manex Agirre bertso eskolako kidearendako sorpresa atsegina izan da: "Normalean kalean jartzen diren kartelek ez dute arrakastarik izaten baina oraingoan ez da hala izan. Espero baino harrera hobea izan du, zalantza barik. Adin ezberdinetako jendea batu da eta hori oso garrantzitsua da. Santa Ageda bezpera indartsu irtengo da aurten". Bertsolarien ekarpenak egunari "beste kolore" bat emango diola uste du Agirrek: "Santa Agedako ohiko koplaren doinua aprobetxatuz eta guztiek leloa abesten duten bitartean, bertso eskolako nagusiok inprobisatu egingo dugu. Eskolako gazteenek ere abestuko dute, paperean prestatu dituzten koplak abestuz".

### Caritas eta Harreman-ekin bat

40 bat lagun elkartzea espero dute aurten, eta jasotako diruaren erdia Caritasera bideratuko da. Beste erdia, berriz, Harreman Gobernuz Kanpoko Erakundeak jasoko du. Martitzenean hirugarren entsegua egin zuten: "Jende mordoxka elkartu gara eta oso ondo doaz entseguak. Oso pozik gaude denok, oso animatuak izaten ari dira", dio Kortabarriak. Datorren martitzenean egingo dute azken entsegua, Kultur etxean (19:00).



ARAMAIOKO UDALA

## Lur-jausiak, luze joko duten arazo

Joan den asteko lur-jausiek sortutako arazoek luze joko dute. Aste bukaeran lur mugimendu gehiago izan ziren hainbat puntutan, baina arazoak konpondu dira orokorrean. Hala ere, Diputazioko teknikariak Untzillarako bideko lur-jausian izan dira asteon; geologo baten arabera, Adif-ek ez zuen obra egin eta lurrak ez daude ondo. Lanen bermearen barruan egonda, obrak Adif-ek ordainduko dituela espero du Udalak.

## Euskal Herriko Mus Txapelketaren lehen kanporaketa bihar

Euskal Herriko Mus Federazioak antolatzen duen Mus Txapelketa abian da. Aramaioko lehen kanporaketa bihar jokatuko da, Eki tabernan (16:00). Antolatzaileek jakinarazi dutenez, bosgarren edizio honetako Arabako finala Aramaion jokatuko da, otsailaren 23an.

## Korrika batzordea osatzeko lehen bilera irekia egin zuten atzo

Korrikaren 18. edizioa ez da Aramaiotik pasako, baina horrek ez du esan nahi aramaioarrek ez dutenik euskararen aldeko lasterketarekin bat egingo. Atzo egin zuten lehen bilera; besteak beste, Korrika Txikia eta Korrika Kulturala antolatzen hasteko lanak banatu zituzten.

# Arabako bertsolariendako txapelketa nagusia badator

Aurten bost aramaioar: Izaga, Igoa, Amilburu, Arriolabengoa eta azken txapelduna, Manex Agirre



Ondo aukeratu zuten aurkezpena egiteko lekua: Abornikanoko Abel Enbeitaren baserria. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

**J.B.** | ARAMAIO

Gaur hasiko da 2013ko Arabako Bertsolari txapelketa. 30 bertsolari lehiatuko dira, bost kanporaketetan banatuta: Lanteno (gaur), Elosu (domekan) eta Agurain (otsailak 1), Laudio (otsailak 2) eta Lantziego (otsailak 3). Finalaurrekoak Izarran (otsailak 16), Aramaion (otsailak 23) eta Dulantzin (martxoak 2) jokatuko dira eta final handia, azkenik, martxoaren 16an (17:30), Gasteizko Printzipal antzokian. Abornikanoko Abel Enbeitaren baserria aukeratu zuten aurkezpena egiteko. Izan ere, bertsolari eta bertsozaleen topagunea izan da baserri hori: 1982.urtean bertara hurbildu ziren Martin Imentza, Xabi Rico, Amaia Otsoa, Txipi Ormaetxea eta Rikardo Gonzalez de Durana, Gasteizen bertso eskola bat sortu nahi eta Abel Enbeitaren laguntza behar zutelako. 31 urte ondoren 45 bertsozale eta bertsolari baino gehiago elkartu ziren 2013ko txapelketa aurkezteko.

### Hiru aramaioar aste bukaeran

Aramaioko ordezkaritza bost bertsolarik osatuko dute: Maria Izaga, Xabi Igoa, Paula Amilburu, Andere Arriolabengoa eta Manex Agirre, 2011ko txapelduna. Lanteko arte eskolan (21:00) jokatuko den lehen kanporaketan Izagak eta Igoak hartuko dute parte. Lehenarendako lehen txapelketa da: "Ondo pasatzera eta ikastera noa. Sailkatu izana saria da niretako", dio. Igoarendako hirugarrena da, baina lehen saioan hartu ahalko du parte bakarrik, ikasketengatik otsailaren 13an Txina eta India aldera joan behar delako: "Pena handia ematen dit, 2015ekoan izan beharko da", aitortu digu. Amilburuk, ordea, domekan Elosuko (14:00) bigarren kanporaketan kantatuko du lehen aldiz txapelketan: "Oraingoz urduri ere ez nago, nahikoa izan zen sailkatzea". Argibide gehiagorako: *www.arababertsozale.org*.

## NIRE USTEZ



**ANDERE ARRIOLABENGOA**

# Lotu!

Joan den zapatuan aurkeztu genuen Abornikanon, Abel Enbeitaren baserrian, 2013ko Arabako Bertsolari Txapelketa. Begirada etorkizunera jarrita izan arren, oso presente dugu duela 30 urte, bertsotan ikasteko gogoz Abelen sukaldean aurkeztu zen gazte koadrila. Horixe izan zen Arabako bertsolaritzaren hazia. Ordutik gauzak asko aldatu dira, baina bada gauza bat bere horretan dirauena: ilusioa, bertsotan egin eta bertsoaz gozatzeko ilusioa. Aramaion ere badakigu zer den hori. Ohiane Perea lehenengoz etorri zenean bertsoak errimatzen zuenik ere ez genekien, eta gaur egun Arabako bertsolaritzaren erreferente bihurtu gara.

Gaur hasten den txapelketan bost aramaioarrek hartuko dugu parte duela bi urte Manex Agirrek lortutako txapela herrian mantentzeko helburuarekin.

Saioz saio dugun onena emango dugu, hurbiltzen den orok bertsoaz eta bertsolaritzaz goza dezan. Araba ezagutzeko ere aukera paregabea da, iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera lurralde osoa zeharkatuko dugu-eta kantuan, mapa askotan agertzen ez diren auzo eta txokoak deskubrituz. Oraindik konbentzitu ez bazaitut sartu *arababertsozale.org* webgunean eta edan bertatik, fresko fresko dago- eta! Ziur naiz saioren baten elkar ikusiko dugula!

**"Saioz saio onena ematera gatoz"**

Lotu txapelketari! Lotu bertsolaritzari!

ELGETA

# Sei mendeko historia duen kofradiaren etorkizuna ezbaian

## Kofradiako kide gehienak nagusiak dira, eta kasu askotan ez dute erreleburik

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako eta Uberako San Sebastian kofradiako nobleek urteroko batzarra egin zuten domekan, hilak 20. Elgetako parrokian meza entzun ostean urteko gorabeherak eguneratzeko batzarra egin zuten sakristian. Ondoren, bazkaria egin zuten.

Kofradiako idazkari Juan Ramon Irazabalek gogoratzen du Errege Katolikoen garaitik datorren taldea dela San Sebastian kofradia. "Lehengo eginkizuna zen Elgetako, Uberako eta Angiozarko jabeei armak edukitzeko baimena ematea erasoengandik eta lapurreta saiakerengandik defendatzeko". Eginkizuna zaharkituta gelditu zen aspaldi, baina kofradiak bizirik iraun du gaur egunera arte. Azkenaldian, ordea, kofradiako kideen kopurua jaisten doa.



Elgetako nobleak, domeka eguerdian, sakristiako ekitaldian. | JOSETXO ARANTZABAL

### 23 noble ditu kofradiak

Pena litzateke gurean sei mendeko historia duen elkartea desagertzea. Juan Ramon Irazabal lanerako prest agertzen da: "Jarraitzea da asmoa, eta hemen gauden bitartean egingo dugu lantxo hori", esan zuen domekako ekitaldian. Kofradiaren azken urteotako bilakaerak erakusten du, ordea, historia zati hori mantendu gura bada zerbait pentsatu beharra dagoela. "Gordeta daukaten 1.700. urteko arautegiak jasotzen du talde bakoitzean hogei noble zeudela; hogei Elgetan, hogei Uberan, eta hogei Angiozarren", dio Irazabalek. "Badira urte batzuk Angiozarkoek beren aldetik ospatzen dutela eguna, eta ez dakit zenbat izango diren, baina uneotan Ubera eta Elgeta artean 23 noble dira. 25 ziren, eta aurten bi lagunek eman dute baja. Hortaz, 40 izatetik 23 izatera pasa dira. Kofradiako kide gehienak nagusiak dira, eta askok ez dute ordezkorik edo ordezkoek ez dute jarraitu gura", dio Irazabalek. Idazkariak kontatzen du baita ere antzina ospakizuna zorrotzagoa zela: "Noble bakoitzak bere arropak zituen, baina elizan lanak egin zirenean desagertu egin ziren guztiak. Jasota dago baita ere antzina korporazio edo udalbatza osoak hartzen zuela parte San Sebastian eguneko ekitaldian".

# Santa Ageda bezpera eta Aratusteak otsaileko lehen astean

L.Z. | ELGETA

Aratusteak ate joka ditugu, eta Elgetan otsailaren 8an, barikua, ospatuko ditugu. Eguraldia lagun bada, Herri Eskolako umeek urteroko mozorro desfilea egingo dute eskolatik 15:00etan abiatuta, eta herriko plazara iritsitakoan jokoak eta dantzak eskainiko dituzte. Mozorrotzeko gaia, aurten ere, librea dela jakinarazi dute ikastetxeko zuzendaritzatik, eta eguraldi txarra izanez gero mozorro desfilea bertan behera utzi eta jokoak pilotalekuan egingo dituzte.

Eskolako umeen ekitaldiaren ostean Maala guraso elkarteak txokolate beroa banatuko du 16:00etan, eta Aratuste festari jarraipena emateko Udalak DJ saioa antolatu du Espaloian. Amaia Txintxurretak gidatuko du dantzaldia, 17:30etik 20:30era.

### Santa Ageda bezpera

Santa Ageda bezperako ospakizuna ere Herri Eskolaren eskutik etorriko da aurten. Baserritar jantzita ikastetxeko neska-mutikoak koplak abestera irtengo dira otsailaren 4an, astelehena. 15:00etatik aurrera ibiliko dira herriko kaleetan irakasleen laguntzarekin koplak abesten. Eguraldi txarrarekin udaletxeko arkupean abestuko dituzte koplak.

## Otsailaren 21ean hasita sendabelarrei buruzko 10 orduko ikastaroa antolatu du Kutxa Ikasgelak

Kontu baten jabe diren Kutxabankeko 16 urtetik gorako bezeroei dago zabalik ikastaroa. Uned Bergararekin batera antolatu du Kutxak ikastaroa, eta irakaslea Gabriel Vazquez Molina izango da. Saioak —bi orduko bost saio— eguenetan, 17:00etatik 19:00etara, egingo dituzte, kultura etxean. Matrikularen prezioa 70 euro da, eta Internetez egin daiteke, *Kutxasocial.net* atarian.

## Neska-mutikoendako saskibaloi saio irekia egingo dute gaur, barikua, 18:30ean, gimnasioan

Elgetako Udalak eta Bergara kirol taldeak elkarlanean hilean behin egiten duten haurrendako saskibaloi saio irekia gaur, urtarrilak 25, izango da. Saioa 18:30ean hasiko da Bolatokiko gimnasioan, eta, kasu horretan, Aitor Gorostiza elgetarrak gidatuko du. Ordubeteko saioa izango da, doan, eta ume guztiendako dago zabalik, bereziki seigarren mailako ikasleendako.

## Elgetako biztanle kopurua handitzen doa, apurka-apurka; 1.141 gara, iaz baino 121 herritar gehiago

Datuak Urteberri egunekoak dira. Urtarrilaren 1ean 1.141 lagunek osatzen zuten Elgetako errolda: 581 gizonezkok eta 560 emakumezkok. Atzerritarrak, erroldaren arabera, 76 ziren. 2012ko urtarrilaren 1eko datuekin alderatuta, 121 herritar gehiago gara. Bestalde, 2012an jaiotza asko izan dira herrian: 17 ume jaio dira, eta heriotzak bost izan ziren.

## Administrari lanak betetzeko jardunaldi erdiko eta urtebeterako lanpostua atera du Udalak

Urtebeterako kontratua litzateke, martxoaren 1ean hasita. Eskatzen diren ezaugarriak dira: erdi mailako administrari ikasketak, EGA titulua eta ofimatika jakitea. Baloratuko dira goi mailako titulazioa, esperientzia eta bizilekua. Interesatuek hilaren 30era arte dute curriculumak aurkezteko.

## OHARRAK

**MONOLOGO MOSTRA**
Sara Escudero eta Miguel Iribar monologistak kafe antzokian izango dira barikuan eta zapatuan, 22:30ean. Sarrerak salgai daude 12 eta 10 eurotan.

**TUTOREA KZGUNEAN**
Astelehenean, 16:30etik 19:00etara, kultura etxean izango da.

**KANTSATZEKE MENDI TALDEA**
Eguaztenean, hilak 30, 19:00etatik 20:00etara txartelak tramitatzeko hitzordua kultura etxean.

**KARTA JOKOA**
Eguaztenean, hilak 30, 16:00etatik aurrera briskan eta tutean egiteko aukera erretiratuendako. Ozkarbin da hitzordua.

FUTBITO TXAPELKETA

## Beste lau norgehiagoka asteburuan

Gizonezkoen txapelketan, uneotan, Astuan Villa taldea da sailkapeneko buru; golegile nagusia, Iraitz Bolinaga: 11 gol. Emakumezkoetan, Gaztiak taldea da lehena sailkapenean, eta golegileen taulan bina golekin berdinduta daude Leire Urgoitia eta Nagore Oianguren.

| AZKEN EMAITZAK | |
|---|---|
| Astuan Villa - Jaitxo | 6-4 |
| Etxaon - Gaztiak | 1-6 |
| La Kokotxa - Txapela | 10-5 |
| Naste Borraste - Tzibaz United | 6-12 |

**ZAPATUKO PARTIDUAK, URTARRILAK 26**
**16:30** Jaitxo - Intxorta's Crew. **Astuan Villa.**
**17:30** Bajaon - Gaztiak. **Etxaon.**

**DOMEKAKO PARTIDUAK, URTARRILAK 27**
**10:30** Txapela - Tzibaz United. **Naste Borraste.**
**11:30** Naste Borraste - Astuan Villa. **Tzibaz United.**

LEINTZ GATZAGA

# 2013ko aurrekontua herritarrekin batera landuko du Udalak gaur

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Udal aurrekontua gertatzeko lanetan dabil Udala eta herritarrekin batera hausnartu gura du horien gainean. Hala, Bagarak gidatuta parte-hartze saioa egingo dute gaur, eguena, kultur etxean (18:30). "Eskuartean ditugun asmoen berri eman, iritziak eta ekarpenak trukatu eta gure herria hobetzeko bidean herritarrak ere protagonista izatea gura dugu", jakinarazi dute astean Udal ordezkariek. Hori horrela, herritar guztiak gonbidatu dituzte gaurko saiora.

### Herritarren ekarpenak jaso

Eugenio Otsoa alkateak hasiko du saioa eta Udalaren asmoen berri eman. Ondoren Mikel Gonzalez zinegotziak aurrekontuaren gaineko azalpenak emango ditu: zer diren azaldu; azken urteotakoak begiratu; eta 2013ko zirriborroa aurkeztu.

Ondoren bost arloren gaineko azalpenak emango ditu dagokion zinegotziak: mendiak; turismoa; kultura; ingurumena; eta hirigintza eta zerbitzuak.

Horiek entzundakoan herritarrek arlo bakoitzaren gaineko ekarpenak egiteko aukera izango dute taldetan banatuta. Eta ekarpen horien guztien laburpena jasoko dute bukaeran.

### 396.895 euroko aurrekontua

Udalak dagoeneko eginda dauka zirriborroa: 396.895 euroko aurrekontua. Kopururik handiena gastu arruntendako izango da, 198.700 euro; eta pertsonal gastuendako gero, 111.660 euro. Inbertsiotarako, ostera, 5.000 euro aurreikusi dituzte.

Horren guztiaren berri eman gura diete herritarrei gaurko saioarekin eta euren iritziak jaso: zer falta da, zer hobetu behar da, zeri eman lehentasuna… Izan ere, herritarren iritzia oso garrantzitsua dela uste dute Udal ordezkariek: "Herri txikia gara, baliabide mugatuak ditugu, eta garai hauetan zer esanik ez. Baina baliabiderik garrantzitsuenak, herritarrak, ezin ditugu albo batera utzi".

Hori horrela, ahalegin berezia egiteko eskatu gura diete gatzagarrei eta urteko diru kontuen berri emango den saio horretan parte hartu.

# Bazkideentzat abantaila esklusiboak




## Eraman ezazu beti txartela aldean!




## DESKONTUAK

**Caravanas Oñate**
Otadui Zuhaiztia, 25 - Oñati
- 50€-ko erosketa egiteagatik, %10 deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).
- %20-ko deskontua lineako patinetan.

**Txuri Urdin izotz pista**
Anoeta Ibilbidea 24 - Donostia
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan*.
- % 20 zapatu eta domekatan**.
- % 10 zubi eta oporraldietan.

* Ez bada jaiegun, jaiegun bezpera edo oporraldia.
** Ez bada zubia edo oporraldia.

**Lastai**
Arkatza 1, 49 Pab - Gasteiz
- %5eko deskontu gehigarria helduentzako atseden arloan.
- %5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.
- %10eko deskontua* denboraldiko haur-arropan.

* Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik.

**Begiondo Optika**
Belorrieta, 11 - Aretxabaleta
- %15 produktu guztietan.
- Kontsulta doan.

**Etxe-Aundi Hotela/Jatetxea**
Torreauzo Auzoa 10 - Oñati
- %10 deskontua menu berezian (asteburuetakoan) eta kartan.

**Esko Sport**
Intxaurtxueta 5, Eskoriatza
- Arropa eta zapatiletan %10 deskontua.

**Kuttuna Estetika**
Aranburuzabala 19, behea - Eskoriatza
- %5 deskontua* zerbitzu guztietan.

* Beste promozio batzuk izan ezik

**Arrikrutz Kobak**
Araotz Auzoa - Oñati
- %10 deskontua sarreran*.

* Topea bost pertsona.

**AQUARIUM**
Jacques Costeau Plaza 1 - Donostia
- Bi erosi eta bat ordaindu*.

* Sarrera garestiena ordainduko da.

**Gaes**
Otalora 18, Arrasate
Zurradero 10 Bergara
- %10 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.

**Imprespal, C.B Imprimategia**
Komenio 2 - Bergara
- %5 deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.

**Estacion Servicio Arrasate**
San Andres 7 - Arrasate
- % 2 gasolindegian erregaia erosita.
- % 2 dendako produktuetan.

**Oñati Garajea**
Goribar Auzoa 9 - Oñati
- %5 beherapena egiten diren konponketetan.

**Alzu, S.L**
Arantzazuko Ama, 2 - Oñati
- Arropetan %10 beherapena.

**Lilura Edertze Institutua**
Bidekurutzeta 7 - Bergara
- %15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
- %20 elikagai intolerantzia proban.
- %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

Eskaintza gehiago: ***www.goienakluba.com***

## ZOZKETA ETA PROMOZIO BEREZIAK

### ADI EGON!

GOIENA Klubeko **4.000 bazkideon artean** URTARRILEAN honakoa zozketatuko dugu.

aisia HOTELES DEBA



### 3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala.

### 3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua).

Urtarrileko irabazleen berri urtarrilaren 28an emango dugu. Zorte on!

## URTARRILEKO SARIAK ETA PROMOZIOAK

- Pamiela: **Liburuak**:
  Joxe Mari Iturralderen "Frantzian je táime esaten dute"
  Patxi Zubizarretaren "Hiru gutun Iruñetik"
- **Erremeixuak** DVDa
- Argiako jokua: **Nairobitarra**
- Goiena: **Pendrive**
- **Arrikrutz** Kobetarako sarrerak
- Amaia Antzokian: "Printzea eta Ahatea" **antzerkia**. Urtarrilaren 28an.

**2 sarreren irabazlea:** OIHANA AGIRRE INZA (Bergara)

- Espaloia Kafe Antzokian: **Sara Escudero Eta Miguel Iribar** Monologo Mostra.

**Bina sarreren irabazleak:**
MARI BENI LARREA MENDIZABAL (Antzuola)
AMAIA GOROSABEL PAGALDAI (Bergara)

**Parte hartzeko**

**SMS:** KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05
**E-postaz:** *kluba@goiena.com*
**WhatsApp bidez:** 688 69 00 08 zenbakira, saria adieraziz

**Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.**

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com




## Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.

goienakluba"
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: **50 €.**
Tel.: **943 25 05 05**
*kluba@goiena.com*
*goienakluba.com*



Jokin Baltzategi baloia babesten, Lagun Onaken kontra etxean jokatutako partiduan. | JOSETXO ARABTZABAL

FUTBOLA

# Aretxabaleta eta Bergara ligako oilarren artean daude

## Sailkapenean hirugarrena da Aretxabaleta, eta bosgarrena Bergara

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Atzean geratu da ligako lehenengo itzulia, eta bigarrena oso ondo hasi dute Aretxabaletak (36) eta Bergarak (32): Albistegiren mutilek Mondrari derbia irabaziz, eta mahoneroek Lagun Onaken zelaian 1-3koa eginda.

Ohorezko erregionala jarraitzen duenarendako Aretxabaletarena ez da sorpresa, Ibarrako mutilak azken urteetan aurrealdeko borrokan sartuta ibili direlako, baita Hirugarren mailatik jaitsi ostean ere. Bergararena ez dugu esango sorpresa denik, kategoriara itzuli eta etxeko jokalarien aldeko apustu sendoa egin zutenetik –duela lauzpabost urte– Bergarak geroago eta bloke sendoagoa duelako.

Urteren baten Agorrosinen indartsu eginda lortu dituzte puntu asko, baina aurten etxean eta kanpoan, denean ari dira neurria ematen Neka Galanen mutilak (besteak beste Oñatin, Arrasaten, Zarautzen, Tolosan eta Azpeitian irabazi dute). Lan horri esker sailkapeneko aurrealdean kokatu dira ibarreko bi ordezkari horiek, eta ikusteko dago bigarren itzuli luzeari zelan eutsiko dioten.

Oraingoz, Bergarak Ostadar hartuko du bihar arratsaldean Agorrosinen, eta Touringen zelaira joango da Aretxabaleta.

**Aurrera eta Trintxerpe**

Aloña Mendiko eta Mondrako jokalarien gogoan ondo sartuta daude, seguru, bi talde horiek. Asteburuan izango dituzten kontrarioak dira, eta ez dira nolanahikoak. Kontrario zuzenak dira, jaitsiera postuetatik aldentzeko atzean utzi beharrekoak, nahitaez.

Azkargortaren mutilek etxean jokatuko dute Aurrerakoen kontra domekan, eta Arrasatekoek Trintxerpera egingo dute bidaia bihar (ordutegiak agendan).

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**EMAKUMEZKOEN BI. MAILA**
**San Juan-Mondra**
Zehaztu gabe.

**EUSKAL LIGA, EMAKUMEZK.**
**Arratia-Arizmendi**
Zapatua. 19:15. Urbieta.

**EUSKAL LIGA, GAZTEAK**
**Real Union-Aretxabaleta**
Zapatua. 11:30. Gal.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
**Bergara-Ostadar**
Zapatua. 16:00. Agorrosin.
**Aloña Mendi-Aurrera**
Domeka. 16:30. Azkoagain.
**Mondra-Trintxerpe**
Domeka. 16:30. Mojategi.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
**Zumaiako-Antzuola**
Zapatua. 15:30. Aita Mari.

**LEHEN ERREGIONALA, IGO.**
**Aretxabaleta UDA-Hernani B**
Zapatua. 16:30. Ibarra.

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**
**Ikasberri B-Bergara B**
Zapatua. 17:00. Garmendipe.
**Eibartarrak B-Arizmendi**
Zapatua. 15:30. Unbe.

**OHOREZKO GAZTEAK**
**Orioko-Bergara**
Zapatua. 17:30. Mendibeltz.
**Mondra-Aloña Mendi**
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
**Debabarrena-Eskoriatza**
Domeka. 11:30. Eibar.

**GIPUZKOAKO LEHEN MAILA**
**Euskalduna-Aretxabaleta**
Zapatua. 19:45. Andoain.

**KADETE GIZONEZKOAK**
**Samaniego-Arizmendi Esko.**
Zapatua. 10:00. Tolosa.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
**Soraluce BKE-Trapagaran**
Zapatua. 18:00. Labegaraieta.
**Corazonistas-Ford Mugarri Ar.**
Domeka. 18:30. Gasteiz.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKO SENIORRA**
**Aloña Mendi-Tecnifuelle**
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKO KADETEAK**
**Aloña Mendi-Pulpo**
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**GIPUZKOAKO TXAPELK.**
**Izarraitz Aloña-Lau Bide**
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**SASKIBALOIA**

**EBA MAILA**
**Pas Pielagos-Natra Oñati**
Domeka. 18:00. Kantabria.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
**Mikeldi-Mondragon Unibertsit.**
Zapatua. 20:20. Deustua.

**ERRUGBIA**

**SENIORRAK**
**ART-Elorrio**
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**GAZTEAK**
**Durango Arrasate - Bathco**
Zapatua. 15:30. Arripausueta.

**PILOTA**

**BERGARA**
Egubakoitza. 19:00. Udal pilotal. Hainbat kategoriatako lau partidu.
Zapatua. 11:30. Kadete eta gazteak. Bi partidu.

**ESKORIATZA**
**Bergara 1-Aurrera Saiaz (aleb).**
Egubakoitza. 19:00. Udal pilotal. Infantilak eta nagusiak. Bi partidu.

**ARRASATE**
Egubakoitza. 21:00. Uarkape. Gazte eta nagusiak. Bi partidu.
Zapatua. 17:45. Uarkape. Alebinak, bi partidu.
Domeka. 11:00. Uarkape. Kadeteak, bi partidu.

SASKIBALOIA

### Natra Oñatik porrot bakarraz amaitu nahi du lehen itzulia

Kantabriako Pielagos taldearen kantxan jokatuko du Eneko Blancoren taldeak domekan (18:00). Ligako 11. jardunaldia izango da, eta orain arte partidu bakarra galdu dute oñatiarrek. Hala, Pielagosi irabazi eta lehenengo itzulia marka horrekin amaitzeko asmoz abiatuko dira.

ESKUBALOIA

### Soraluce BKE taldeak Trapagaran hartuko du bihar Labegaraietan

Euskadiko Txapelketan, Soraluce BKE taldeak etxean jokatuko du zapatuan, sailkapenean azkeneko postuan dagoen Trapagaranen kontra (18:00). Lider dagoen Ford Mugarri Arrasatek, berriz, laugarren dagoen Corazonistasen kantxan jokatuko du zapatu arratsaldean (18:30).

PILOTA

## Soraluce Sariak baditu lehen kanporatuak: Muguruzak aurrera

### Martitzenean hasi zuten Bergarako Lau t'erdikoa

X.U. | BERGARA

Elgetako Lau t'erdikoak pilotazaleen artean utziko duen hutsunea beteko du aste barruan hasi duten Soraluce Sariak –hori ere lau t'erdi barruan. Bergarako pilota txapelketa ez da berria, dagoeneko hainbat urtetan antolatu dute, baina Elgetakoa desagertuta gureko lau t'erdiko torneo garrantzitsuena bilakatuko da, eta aurten ere amateur mailako pilotari onenak batuko ditu, urtero moduan.

Hala, Bergarako Udal pilotalekuak martitzenean hartu zituen lehenengo kanporaketak (martitzenetan izango dituzue partiduak, 19:00etan hasita) eta lehenengo partiduan etxeko pilotari batek, Eneko Muguruzak, aurrera egin zuen. Bergarakoak Artola izan zuen kontrario, eta 40 minutuko partidua jokatuta Muguruzak 15-22 irabazi zuen. Markagailuak 12-13 erakutsi zuen arte parean egon ziren indarrak –Muguruzak min handia egin zuen sakez, 8 tanto egin zituen horrela, eta kontrarioak, ostera, 6 tanto sakez– baina partidu erditik aurrera Mugurutzak aurrera egin zuen, torneoko lehen kanporaketa gainditxuz.

**Ojuelek, erraz**

Beste kanporaketan Bixintxo Bilbao eta Ojuel izan ziren zein baino zein gehiago. Aurreko ediziotan Bilbaok maila polita erakutsi izan du Bergarako zaleen aurrean. Martitzenean, baina, 6-22 galdu zuen. Sakez ez zuen tanto bakarra ere egin, eta Ojuelek sei tanto egin zizkion sakez. Jokoari dagokionez, berriz, Bilbaok bi tanto baino ez zituen egin, eta sei pilota galdu zituen guztira. Zenbaki horiekin, ezinezkoa aurrera egitea.



MENDI LASTERKETAK

## Bailarako emakumeak, mendian azkarrenak

ITZIAR ALDEKOA

Debagoieneko emakumezkoak protagonista izan ziren III. Kirolprobak herri lasterketen txapelketako sari banaketan; hala, Donostian egindako ekitaldian bailarako ordezkariak sakua bete sari etorri ziren. Beteranoen artean: lehenengoa, Arantxi De La Fuente (Bergara); eta sailkapen orokorrean: lehenengoa, Itziar Aldekoa (Bergara); bigarrena, Amaia Bernal (Oñati); eta hirugarrena, Maria Rosa Agirre (Bergara).

# Maitemin zaitez berriro Aisia Hoteletan

## Aisia Hoteletan txoko bakoitza gozamenerako eta atsedenerako pentsatuta dago.



Mireya Azpiazu eta Edurne Horta, Aisia Debako eta Aisia Lekeitioko jatetxeetako arduradunak, hurrenez hurren.

Ingurumenarekiko errespetua, produktuaren kalitatea eta jatorria lehentasun dituen gastronomia sortzailea, eta hidroterapia osasun eta edertasunaren formula moduan; horiexek dira definitzen dituzten kontzeptuak.

Nortasun propioa duten espazioak, gune pribilegiatuetan kokatuta daudenak, diseinu moderno eta gaurkotuarekin eta, gainera, zerbitzu eta arreta profesionalarekin.

### AMETSAK ERREALITATE

Edurne Hortak, Lekeitioko Aisia Hoteleko arduradunak, San Valentinerako bere proposamena azaltzen digu: "Gure bezeroei San Valentin ospatzeko modu originala eskaini nahi diegu aurten. Panak, gure sukaldeko arduradunak, Kantabrikoko itsaski freskoetan oinarritutako menu berezia prestatu du; hori itsasora begira ditugun bista ederrekin bateratzen badugu, horrek guztiak gaualdia une oso erromantiko bilaka dezake".

Bestalde, Mireya Azpiazuk, Aisia Debako jatetxeko arduradunak, ilusio handia dauka Inauterietarako prestatu duen proposamenarekin: "Gure bezeroek oso gau dibertigarria pasa dezaten nahi dugu; hainbat sorpresa, mozorro onenendako sariak eta kalitaterik handiena duten inguruko produktuekin egindako menuak prestatu ditugu".

Urteko sasoi honetan, bikoteak ezkontzarekin ilusionatzen hasten direnean, Lekeitio zein Deba Aisiako arduradun biak bat datoz ezkontzetarako dituzten menu berriek izaten ari diren erantzuna ona izan dutela esatean: "Gure bezeroak oso pozik daude ospakizunetarako prestatu dugun proposamen gastronomikoarekin. Koktelak aurkezteko modu berriak, gure taldearen profesionaltasuna eta gure hotelen kokagune pribilegiatuak edozein ospakizunen arrakasta ziurtatzeko osagai prefektuak dira. Gure bikoteen ametsa errealitate bihurtzeko ilusio eta kezka guztiak ezagutzean oinarritzen da gure formula".



Aisia Debako talasoterapia-gunea.



Aisia Lekeitioko logela bat, itsasora ematen duena.

### MENU BEREZIAK*

**SAN VALENTINERAKO MENU BEREZIA**

- ▶ Hasierakoak: antxoa eta fruitu gorridun koilaratxoa.
- ▶ Txangurroa donostiar erara.
- ▶ Onddoz betetako zakutxoa kalabaza-krema gainean.
- ▶ Zapotxoa sasoiko berduratxotan erreta.
- ▶ Zitriko-sorbetea.
- ▶ Ahate-konfita patata errisolatuekin eta fruitu gorrien saltsarekin.
- ▶ Txokolate eta laranja browniea, masusta-gorri izozkiarekin.
- ▶ Ura, ogia eta ardo ondua.
- ▶ Kafea.

**Prezioa:** 25 euro**

**INAUTERIETARAKO MENU BEREZIA**

- ▶ Hasierakoak: azalore-krema arina, kurruskatsuarekin.
- ▶ Langostino-carpaccioa, zitrikoen ozpin-olio saltsarekin.
- ▶ Arroz krematsua sasoiko perretxikoekin.
- ▶ Lupia, albahaka eta tomateen gainean erreta.
- ▶ Zitriko-sorbetea.
- ▶ Idi zatia belar leunekin.
- ▶ Inauterietako torradak.
- ▶ Ura, ogia eta ardo ondua.
- ▶ Kafea.

**Prezioa:** 25 euro**

* Ostiral gau, zapatu eguerdi eta gau eta domeka eguerdietarako.
** BEZ barik.

aisia HOTELES

**AISIA DEBA**
Markiegi 6 • 943 60 80 52
deba@aisiahoteles.com

**AISIA LEKEITIO**
Santa Elena Hiribidea • 946 84 26 55
lekeitio@aisiahoteles.com

www.aisiahoteles.com
902 82 09 97

## ERLAXATU ETA GOZATU

- Mariskada ederra.
- Aisia Relax.
- San Valentinerako eta Inauterietarako menu bereziak.
- Egonaldi termala.



# KULTURA

# Debagoieneko pianisten emanaldia eguaztenean Arrasaten, Amaian

- Bailarako sei musika eskoletako 7 eta 16 urte arteko 35 ikaslek hartuko dute parte
- Otsailean Andoainen izango den piano jaialdirako prestaketa modura hartuko dute



Emanaldiaren aurreko edizio batean parte hartutako piano joleak. | ARRASATE MUSIKAL

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Urtarril eta otsailarekin badatoz bailarako piano ikasleentzat ikasturteko hitzordu nagusiak: datorren eguaztenekoa Arrasaten eta otsailaren 23an eta 24an Andoainen egingo den jaialdia. Hain justu ere, Amaia antzokian izango diren 35 piano joleek, guztiek, hartuko dute parte gero Andoainen, pieza berak joz bi saioetan; ezin hobeto etorriko zaie, beraz, Arrasatekoa Andoaingoa prestatzeko.

Datorren eguazteneko –hilak 30, 18:30ean– saioan Bergarako, Oñatiko, Elgetako, Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko musika eskoletako ikasleek hartuko dute parte. Ordu eta laurden inguru iraungo duen saioan askotariko piezak interpretatuko dituzte, klasikoak bai eta baita gaur egunekoak ere; ondorengoak dira egitarauak jasotzen dituenetako batzuk: M.Mierren *Beach Buggy Boogie*, J.Bastienen *Tarantella*, P.Wedgwooden *Charleston*, W.Gillocken *Danza Indiana*, J.S.Bachen *Menuet BWV 115* eta Alan Haughtonen *Chill Out Zone*.

**Urduritasuna kontrolatzeko**

Arrasateko piano emanaldian parte hartuko duten ikasleek 7 eta 16 urte artean dituzte. Saioa antolatzen duen Arrasate Musikaleko ekintzen arduradun Edorta Aiastuiren arabera neska-mutikoei ondo datorkie horrelako jendaurreko emankizunetan txiki-txikitatik hastea: "Ondo datorkie trantze hauek txikitatik pasatzea, urduritasuna kontrolatzen ikasteko, nagusiago direnean hobeto eraman dezaten". Hala ere, ikasle txikienak ez dituzte estutasun handiegitan jarriko; joandako irailean hasitakoek, adibidez, pasarte labur batzuk baino ez dituzte joko, hain denbora laburrean hartu ahal izan duten abileziaren berri emanaz.

Arrasateko Amaiakoa piano ikasleentzako urteroko hitzordu bilakatu da dagoeneko: Andoaineko jaialdiarekin bateratsu sortua, zortzi urte inguru baditu dagoeneko, Debagoieneko luzezabalean tresna hau jotzen dutenen topaleku da. Lagun kopuru politak dihardu, gaur egun, pianoa ikasten bailarako musika eskoletan; Arrasateko kasua azagutzen du ondoen Edorta Aiastuik: "Hiru irakasle ditugu, horrek esan nahi du ikasle nahikotxo dagoela". Pianoa "instrumentu polita" delako izango da: "Polifonikoa da, aukera asko ematen dituena, soinu asko egin ditzakeelako une berean".

**Arrasatetik Andoainera**

Eta Arrasateko saioaren ondoren etorriko da, beraz, Andoaingoa. Bailaratik joango direnak ere tartean, 800 piano jole inguruk hartuko dute parte jaialdi hartan, adin eta maila guztietakoek: "Ikasleei ondo datorkie hara joatea, eurena espresatzeko eta besteena entzuteko; gutxienekoa da Andoaindik dominak ekartzea, ondo pasatzea da kontua", dio Aiastuik. Bi modalitatetan egiten den jaialdia da Andoaingoa: bakarlari gisa eta bi eskutara.

**DATUA**

**800**

PIANISTA

Kopuru hori izango da Andoaingo saioan. Hura prestatuko dute Arrasaten.

**ESANAK**

**"Ikasleei ondo datorkie trantze hauek txikitatik pasatzea"**

EDORTA AIASTUI | ARRASATE MUSIKAL

## 40. urtemugako ospakizunen barruan

Aurten dira 40 urte Juan Arzamendik Arrasateko musika eskola sortu zuela, eta hainbat ekintza egingo dituzte urteurrena ospatzeko: hauen artean sartu dute Debagoieneko piano ikasleen emanaldia, baina urterokoak ez diren beste batzuk ere izango dira, propio, aurtengo antolatuta. Honela, maiatzerako nahi dute festa polit bat prestatu. Herritarrek musikariak entzutera joan beharrik gabe, eurak izango dira egun horretan herritarrengana urreratuko direnak: kalejirak egin nahi dituzte hainbat talderekin, eta dantzarako saioa ere bai plazan. Bazkari bat ere litekeena da egitea. Hauek zehazteko daude, dena den; dagoeneko zehaztuta badaudenak dira otsailaren 8an egingo duten Inauterietako kontzertua, hilaren 24ko *Pedro eta otsoa* poema sinfonikoaren emanaldia eta martxoaren 22ko Aste Santuko kontzertua.

*Jatetxe Gida*

# Iturrieta sagardotegia

**Etxeko sagardo ekologikoa Eusko Labelarekin**




## ERREZETA

**Osagaiak:**

- Sagardo on bat (nahiz eta kupela ezberdinak izan).
- Lagun batzuk (ez gutxi, ez gehiegi)
- Ondo pasatzeko gogoa.
- Lotsatia ez izatea
- Dantza egiteko eta abesteko prest egotea.
- Euskaraz berba egitea (ikasten bazaude, aukera ezin hobea).

**Urratsak:**

- Ez daude! Berehala konturatuko zara kupelen aurrean zaudela ezezagun batzuekin berba egiten eta... nork daki!
- Ez egin nahasketarik, sagardoa bakarrik edan. Sagardoak bakarrik ez du arriskurik.
- Nahiz eta gaizki abestu edo dantza egin, animatu eta gozatu, zure gorputzak eskertuko du eta.

*Ondo ibili eta ondo etorri!*



## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

**Eskaintza**

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

**Egunero zabalik.**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

**Eskaintza**

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa ekologikoa Eusko Labelarekin.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / *www.restaurantelasa.es*

**Eskaintza**

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomia 2009.**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**




## Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab. San Andres auzoa
ARRASATE
943 79 90 29 / 629 41 59 58

**Eskaintza**

- Itsaski-janak
- Frijituak
- Plantxa
- Sushia
- Parrilladak
- Menua, postrea barne.

**10 menu hartuta, 1 DOAN.**

**Sara Escudero** | Monologista

# "Nire bizitzaren analisiaren saio barregarria egingo dut"

- Taularen gainean, Sara Escudero eta Miguel Iribar
- Egubakoitz eta zapatuan saio bana egingo dute

**A. A / M. A.** | ELGETA

Elgetako Espaloian aurreko astean arrakastaz hasitako I. Monologo Mostren bigarren kapitulua izango da gaur eta bihar. Taularen gainean eskarmentuko bi monologista izango dira; *El Club de la Comedia* saioko azken irabazle Sara Escudero eta Miguel Iribar, *Paramount Comedy*-ko komikoa eta gidoilaria. Egun bakoitzean saio bana egingo dute: Escuderok *No controlo mi vida* ikuskizunarekin zapalduko du taula gaina; Iribarrek, berriz, *Superdotados* ekarriko du Elgetara. Hitzordua, zapatu eta domekan, 22:30ean. Sarrerak 12 eurotan (aurrez erosiz gero 10 eurotan) eskuragarri daude txarteldegian edo *www.espaloia.com* atarian. Sara Escuderorekin izan gara, Elgetarako dituen asmoen gainean galdezka.



Sara Escudero monologista izango da gaur eta bihar Elgetan. | SARA ESCUDERO

**No controlo mi vida saioa egingo duzu. Zer kontatzeko?**

Nire bizitzaren analisia da. 31 urte ditut eta bete-betean krisian nago [Barre]. Ikuspuntu horretatik, mundua zelan ikusten dudan da kontatu gura dudana. Kontroletik kanpo nagoela diot, nire pentsamenduak kontrolatzen duelako nire bizitza.

**Zerekin egingo dute ikusleek topo?**

Inguruan ditugun baina ikusten ez ditugun detaileetxoen garrantziaz jardungo dut bereziki. Eguneroko bizitzako gauza txikiak, detaileak azpimarratuz; eta baita bestearen lekuan jartzeko beharraz ere.

## "Nire bizitzaren analisia egiten dut, detaile txikiei garrantzia emanda"

## "Bat-batean erabaki nuen medikuntza utzi eta Madrilen antzerkia ikastea"

**Barre egingo dute?**

Orain arteko emanaldien arabera, pila bat; eta espero dut Elgetakoa salbuespena ez izatea.

**Ikuskizuna amaituta, ikusleak zuk esandakoak hausnartzen ditu?**

Egokia litzateke baietz erantzutea, baina uste dut ezetz [Barre]. Kontatzen ditudan anekdotekin edo esaten ditudan hitz arraroekin edo egiten ditudan keinuekin geratzen dela esango nuke. Barre eragitea lortu badut, helburua bete dudala esango nuke, arazoak une batez ahaztu eta disfrutatu duen adierazle.

**Telebistan ere jarduten duzu. Zuzeneko emanaldiekin zerikusirik?**

Politagoa da agertokia. Monologoen xarma ikuslearekin aurrez aurre egotean datza. Ikusleak transmititzen dizunaren arabera ematen duzu edo moldatzen duzu aurrez prestatutako gidoia. Horregatik, publikoaren edo lekuaren arabera, testu bera modu batera edo bestera atera daiteke. Asko gustatzen zait inprobisatzea. Ikuslearen edozein keinu edo esandakota aprobetxatzen saiatzen naiz.

**Medikuntza ikasten hasi zinen.**

Bai, horrela da, baina egun batetik bestera utzi nuen, ez nintzen pozik bizi. Ez zait damutu!

***Poeta hilen klubak* liburuak izan zuen erabakian zeresana.**

Aspaldian oparitu zidaten liburu hori irakurtzen hasi nintzen kirolari gazte bat hil zela entzun nuen egunean. Goizaldeko 6etan oraindik liburua irakurtzen nengoen eta 07:30ean fakultatera joan behar nuen. Kirolari hari gertatutakoa niri gerta lekidakeela pentsatuta, iratzargailua itzungi nuen. Hurrengo egunean, gurasoei deitu eta ikasketak utzita, Madrilera antzerkia ikastera joan behar nuela esan nien.

**Zer esan Elgetara joango direnei?**

Eurena ere izan daitekeen istorioan sartzeko gogoarekin etor daitezela esango nieke, eta ondo pasatuko dutela.

**Bi monologista izango zarete taularen gainean.**

Bai; hala da. Miguel Iribarrek ere saioa egingo du. *Superdotados* da izenburua. Aparteko bi saio izango dira; hau da, nork bere gidoia izango du. Ez dakigu bata bestearen segidan izango diren edo bakoitzaren saiotxoak tartekatuko ditugun.

**Miguel Iribar ondo ezagutzen duzu. Gertuko duzu.**

Bai, horixe! Oso laguna dut. *Paramont Comedy*-ko umorerik finena dela esango nuke: gure lumatxo fina. Merezi du, duda barik, hura ere ikustea. Bide batez, gainera, tu Iribarrek ere ogibideaz aldatu zuela: bulegoan lan egiten zuen kazetari izatetik, agertokira igotzera pasatu zen, eta hari ere ez zaio damutu!

# Biharko Bertso Egunean Manex Agirre izango da

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen eskutik, Bertso Eguna izango da bihar, zapatua, Donostian.

Egun osorako egitaraua izango da: 12:00etan, Bulebarrean, Bretxan eta Konstituzio plazan; 18:00etan, Kursaaleko Areto Nagusian ekitaldi nagusia; eta 21:00etan, dagoeneko txartelak agortuta dauden afaria.

**Manex Agirre, Bretxan**

Goizekoan sei bertsolari izango dira; horien artean, Manex Agirre. Sarritan jotzen dute aramaioarraren atea, iaz arratsaldeko saioan izan zen.

Saio bana egingo dute Bulebarreko Erlojuan eta Bretxako merkatu parean. Ondoren, Konstituzio plazan, bertsolariez gainera, Haatik konpainiako dantzariak ere arituko dira.

**Kursaalen, krisiei bertsoak**

Arratsaldeko saioak krisiak izango ditu ardatz; gizakiak bizitzan zehar aurre egin beharreko gorabeheren inguruan bertsotan jarriko dituzte 12 bertsolari.

Honakoak taularen gainean izango diren bertsolariak: Beñat Gaztelumendi; Etxahun Lekue; Jexux Mari Irazu; Ramuntxo Christy;Jon Maia; Ander Solozabal; Igor Elortza; Maialen Lujanbio; Jone Uria; Andoni Egaña; Eneko Lazkoz eta Uxue Alberdi. Horiez gainera, askotariko artista gonbidatuak ere bai.

Sarreren salmenta azkar doan arren, eskuragarri daude: *www.bertsosarrerak.eu* atarian: 18 euro (orokorra); 12 euro (bazkideentzako); eta 8 euro (gazteentzako).

# Bergara utzita, hegan joango da 'Peter Pan' Elgetara

Otsailaren 2an bi emanaldi egingo dituzte; sarrerak dagoeneko eskuragarri daude

**ZURIÑE V.D.M / A. A** . | BERGARA

*Peter Pan* ikuskizunak jaioterria utzita Elgetan hartuko du lur datorren otsailaren 2an. Bi emanaldi eskainiko dituzte, 16:00etan eta 19:30ean.

Pikupe Produkzioek Bergaran duten lokalean aurkeztu zuten eguaztenean Elgetarako asmoa. Han izan ziren, besteak beste: musikaleko hainbat protagonista, mozorro eta guzti; Bergarako Musika Eskolako arduradunak; eta Espaloiko ordezkaria.

**Espaloiko filosofiarekin bat**

Gustura dira musikaleko kideak, Bergaratik kanpo aritzeko aukera dutelako. Pozik, era berean, Espaloikoak: "Euskarazko ikuskizuna da *Peter Pan*, eta herrigintzatik asko daukana; beraz, primeran egokitzen da Espaloiaren filosofiara", azaldu zuen Larraitz Zeberiok, Espaloiko ordezkariak. Gaineratu zuen Espaloiak musikal bat hartzen duen lehen aldia izanik, eurentzako ere saltoa ematea dela.



Musikaleko arduradunak eta Espaloiko ordezkariak aurkezpenean. | Z.V.D.M

Espaloiko oholtzaren tamaina dela-eta, aldaketa txiki batzuk egin beharko dituzte, besteak beste, dekoratuan eta zuzenean joko duen orkestraren kokapenean: fosorik ez dagoenez, publikoaren bistara egongo dira musikariak.

**Sarrerak dagoeneko salgai**

Emanaldietarako sarrerak 15 eurotan eta 12 eurotan (bazkidentzako) eskuragarri daude: Pikupeko bulegoan, Bergarako Musika Eskolan, Espaloian eta *www.espaloia.com* atarian.

## Aitor Arregi, ETBko 'Eskerrik asko, Petrov!' saioan gidoilari

Azkeneko 30 urteetako gertakariak batuko ditu ETB1 eta ETB2 kateetan hilaren amaieran *Eskerrik asko, Petrov!* telesailak. Ordubeteko 12 atal ditu eta hunkitzeko eta umorerako tartea izan gura du. 100 lagunen lekukotzek egiten dute historian gainbegiratua.

Gorka Otxoa aktoreak aurkeztutako saioan, besteak beste, Aitor Arregi oñatiarrak egin ditu gidoilari lanak. Arregik eskarmentua du telebistan eta zinemagintzan gidoilari lanetan. Goya sarietan ere izendapena jasotakoa da. Gaur egun, Huheziko irakasle ere bada Arregi.



DJ Buda eta DJ Rami, diskoak jartzeko mahaiaren aurrean.

UNAI ELKORO

Aitor Ramirez eta Jon Arteaga | DJak

# "Asier Baltzategi 'Balza' bergararrak irakatsi zigun diskoak jartzen, beti egon da guri laguntzeko prest"

LAIDA BERISTAIN | BERGARA

Jon Arteaga eta Aitor Ramirez 25 urteko bi DJ bergarar dira. Arteagak Automatizazio eta Robotika Industriala eta Diseinu Fabrikazio Mekanikoa ikasi ditu. Ramirezek, berriz, Erizaintzako laguntza osagarriak ikasi zituen eta Eskoriatzako Fagor Ederlan Scoop enpresan egiten du lan.

**Nolatan hasi zineten DJ lanetan?**

**Jon Arteaga:** 2007an hasi ginen diskoak jartzen, lagunen artean mendian geneukan lokal batean, hasiera batean musika elektronikoa askorik gustatzen ez zitzaigun arren. Ziripot tabernan ibiltzen ginen garai hartan, eta han musika elektronikoa entzuten zen, gehienbat. Gainera, aste bukaeraro DJ festak antolatzen zituzten, eta, Bergarako beste DJ batzuk ezagutu ostean, diskoak jartzen ikasteko interesa piztu zitzaigun.

**Nola ikasi zenuen diskoak jartzen?**

**Aitor Ramirez:** Zorte handia izan dugu orokorrean. Asier Baltzategi *Balza* bergarararrak irakatsi zigun diskoak jartzen. Beti egon izan da guri laguntzeko eta gauzak irakasteko prest, beti eskertuko diogu gurekin izan duen jarrera. Guretzat erreferente bat da, sekulako pertsona, DJ itzela eta melomanoa! [Barre]

**Noiz hasi zineten batera lanean?**

**J.A.:** Hasieratik, batera hasi ginen diskoak jartzen, txiki-txikitatik oso lagunak gara eta beti ibiltzen ginen batera.

**Zergatik batera eta ez bakarka?**

**J.A.:** Batera diskoak jartzeak, nire ustez, behintzat, abantaila asko ditu. Ez dago gau osoa norbera bakarrik pintxatzen egon beharrik, eta gaua eramangarriagoa egiten da. Uste dut gehiago disfrutatzeko aukera ematen duela binaka lan egiteak.

**A.R.:** Ondo pasatzeko egiten dugun gauza bat da eta lagun batekin batera egitea beti da entretenigarriagoa. Bat diskoak jartzen ari den bitartean bestea dantzan edo hitz egiten egon daiteke.

**Non ibiltzen zarete DJ lanetan?**

**A.R.:** Normalean, Bergarako tabernetan ibiltzen gara. Gehienbat, Aldoka Maldoka eta Ziripot tabernetan, baina, noizean behin, herritik kanpo ere ibili izan gara: Azpeitia, Eibar, Elorrio...

**Inauterietarako hitzordurik bai?**

**J.A.:** Pare bat hitzordu ditugu konfirmatzeko Bergarako pare bat tabernatan. Asmoa betikoa da, jendeak musikarekin gozatzea.

**Jendearen aldetik harrera ona izan ohi duzue?**

**A.R.:** Hasieran, 4-5 lagun etortzen ziren gu ikustera, konpromiso moduan, baina poliki-poliki jendea gu ezagutzen joan da eta gaur egun ezin gara kexatu. Gainera, Kogollo Party Krew kolektiboaren barruan egoteak ere asko lagundu digu. Festetan diskoak jartzeko eta jendeak gure saioak entzuteko aukera eman digu. Eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei, Brunnet eta Kogollokoei.

**Zein musika mota jartzen duzue?**

**A.R.:** Ni Deephouse eta tech-house estiloen artean ibiltzen naiz. Baina momentu bakoitzera egokitu behar da. *After* batean banago, adibidez, techno nahiko gogorra jartzea ere gustuko dut.

**J.A.:** Ni ere, normalean, estilo horien artean ibiltzen naiz, baina, normalean, Aitorrek baino musika lasaiagoa jartzen dut. Ahotsa duten abestiak ere oso gustuko ditut.

**Anekdota berezirik?**

**A.R.:** Duela pare bat urte, emanaldi batera hilabete lehenago agertu ginen... [Barre] Ekipoa alokatu egin genuen eta han agertu ginen tabernan ekipo guztiarekin. Bietako bat egunarekin nahastu zen. Ile motza daukana... [Barre]

**Beste zaletasunik baduzue?**

**J.A.:** Betidanik gustatu izan zait saskibaloian jokatzea.

**A.R.:** Olioan margotzea eta autoak ditut gogoko.

**Zer egiten duzue denbora librean?**

**J.A.:** Neskaren eta lagunen konpainiarekin disfrutatu.

**A.R.:** Margotzea eta Bergaran poteatzea asko gustatzen zait.

## ESANAK

**"'Deephouse eta tech-house estiloen artean ibiltzen naiz"**

AITOR RAMIREZ

**"Betidanik gustatu izan zait saskibaloian jokatzea"**

JON ARTEAGA

## 1. ETXEBIZITZAK

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** 95 metro koadro erabilgarri. Etxebizitza berria, hirugarren solairuan. Igogailuarekin. Hiru logela eta bi bainugela. Dena kanpoaldera begira. Hilean 600 euro, komunitate gastuak barne. Argazkiak ikusi nahi badituzu: *www.euskalnet.net/aguirre*. 630 60 47 75

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Berokuntza indibiduala. Berritua. Jantzia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 607 27 66 47

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. 500 euro hilean. 691 74 06 64

**Oñati.** Errekalde auzoan, 90 metro koadroko etxebizitza errentan ematen da. Igogailua, hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Interesatuak arratsaldez deitu telefono honetara: 634 42 14 82

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da Oñatiko erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta igogailua ditu. Interesatuak arratsaldez deitu telefono honetara: 652 77 87 15

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Arrasatear arduratsua alokairuko etxe bila Arrasaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677 48 39 17

**Arrasate.** Bikote euskaldun eta arduratsua etxebizitza ekonomiko baten bila Arrasateko erdigunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 615 73 89 13

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza bat osatzeko lagun bat behar da, Nafarroa etorbidean. 635 70 79 69

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko logela ematen da errentan. 185 euro gehi gastuak. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 699 11 45 14

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdialdean. 120 euro gastuak barne. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 77 13 02

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Juan Carlos Guerran. 610 82 02 17

**Arrasate.** Bi pertsona behar dira etxebizitza osatzeko Uribe auzoan. 610 78 46 50

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Oñati**

Zerbitzari euskalduna behar da tabernan aritzeko asteburuetan.
654 61 25 88
675 70 62 10

### 402. ESKAERAK

**Arrasate eta inguruak.** Emakumea gertu umea edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile titulua daukat eta esperientzia ere bai. Mariaje. Deitu 943 25 05 72 edo 658 70 56 94 zenbakietara.

**Arrasate.** Bertako emakumea, 54 urtekoa, nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. Deitu 943 79 60 89 telefonora.

**Arrasate.** Emakume euskalduna garbitasunak eta plantxa egiteko gertu. 699 54 17 27

**Bergara edo Arrasate.** Neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia. Gauak egiteko gertu nengoke. Baita etxean bizi izaten, egunez zein orduka lan egiteko ere. Legezko paperekin. 674 93 20 47

**Bergara, Arrasate edo Aretxabaleta.** Haur hezkuntza ikasten dabilen 22 urteko neska euskalduna umeak zaintzeko gertu Arrasate, Bertara edo Aretxabaletan. Umeekin esperientzia handia daukat. Interesatuok telefono zenbaki honetara deitu: 680 17 33 61

**Bergaran, Antzuola edo Zumarraga.** Bikotea, esperientziaduna eta erreferentziaduna, garbiketak eiteko gertu: atari, bulego, taberna, elkarte eta abarrak. Merke. Ordutegi arazo barik. Deitu telefono zenbaki hauetara: 634 91 81 73 edo 943 76 66 24

**Debagoiena, Zumarraga edo Legazpi.** 6 urteko eskarmentua duen mutil arduratsua nagusiak zaintzeko gertu: garbitu, oheratu, pasiatu, sukaldatu zein ospitalean egon. Egun osoz, erdiz edo orduka. Asteburuetan ere bai. Ordutegi arazo barik eta berehala hasteko gertu. Deitu zenbaki hauetara: 685 42 72 80 edo 943 76 66 24

**Debagoiena.** Emakume arduratsua, euskalduna, haur heziketa tituluduna eta eskarmentu handikoa, umeak zaintzeko gertu. Arantza. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 65 30 62

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko. Legezko paperak ditut et esperientzia handia. 672 96 08 22

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu: nagusi zein umeak zaintzen eta garbiketa lanetan. 679 30 65 28

**Debagoiena.** Eritzaintza laguntzaile titulудun neska etxean laguntzen jarduteko gertu. 686 404 203

**Debagoiena.** Esperientzia eta erreferentziak dituen neska lanerako gertu: nagusiak zaindu edo atari, etxebizitza, taberna eta abarrak garbitzen. Egun osoz, erdiz, orduka edo egun solteak ere bai. Ordutegi arazo batik eta berehala hasteko moduan. 634 91 81 73 edo 943 76 66 24

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko garbitasunak egiteko, orduka, Degaboienean. Maite. 650 17 74 87 edo 943 76 48 26

**Debagoiena.** Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko emakumea prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 649 52 86 54

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan bila dabil. Garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zainduko nituzke. Egunez edo gauez. Elikagaiak manipulatzeko karneta daukat. Berehala lanean hasteko moduan. 622 77 60 65

**Debagoiena.** Mutila gertu asteburuetan lan egiteko. 636 60 48 51

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaitzeko. Ospitalean gauak egiteko gertu nago. Baita asteburu edo egunez ere. Atariak garbitzen ere lan egingo nuke. 699 60 91 90

**Debagoiena.** Neska arduratsua, esperientziaduna eta erreferentzia onak dituena, lanerako gertu. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten edo bestela. Deitu 633 34 76 22 telefonora

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berriztua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000 €.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000 €.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000 €. Aukera ona.
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760 €.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243 €.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213 €.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253 €.
- Masterreka 45 m². Logela bat. 150.253 €.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000 €.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250 €.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760 €.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223 €.
- Zabalotegin 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000 € baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA.
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 135.000 €. Prezio jeitsierarekin.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000 €.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405 €.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe ona.

**ELGETA:**
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko: peoi lanak eta abar. 651 55 36 29

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esparientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketak orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. Deitu 695 73 87 95 edo 943 71 53 74 zenbakietara.

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, sukaldea eta garbitasuna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 99 70 46

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaintzen edo taberna edo atarien garbiketa lanetan. Orduka, etxean bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu telefono honetara: 615 06 28 04

**Debagoiena.** Mutila gertu lanerako: nagusiak zaindu, banaketak, mekanikari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 06 66 71

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusi zein umeak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta baita legezko paperak ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 64 35 10

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako. Zortzi urteko esperientziaduna. Orduka edo egunez nagusiak zainduko nituzke. Garbiketak ere bai. Autoa daukat. Interesatuok deitu 688 29 99 85 edo 634 40 64 65 telefono zenbaki honetara.

**Debagoiena.** Neska gertu orduka lan egiteko, nagusiak zaintzen Debagoienean. Arratsaldez edo gauez. Legezko paperak ditut. Interesatuok deitu telefono honetara: 630 99 11 85

**Debagoiena.** Neska gertu supermerkatuetan lan egiteko edo etxean laguntzeko Debagoienean. Jatetxeetan ere bai, laguntzaile gisa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630 20 12 03

**Debagoiena.** Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko eta baita garbiketak egiten zein dendari jarduteko Debagoienean. Orduka, etxean bizi izaten edo bestela. Erreferentziak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 41 98 14

**Debagoiena.** Neska nagusiak edo umeak zaintzeko gertu, baita garbiketa lanak egin edo dendan baten lan egiteko ere. Orduka edo etxean bertan bizi izateko gertu. Astean zehar edo asteburutan. Erreferentziak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 41 98 14

**Debagoiena.** Neska, klinika laguntzaile tituluduna, lanerako prest Debagoienean. Nagusiak zaindu zein ospitalean gauak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 943 25 02 96 edo 688 80 27 01

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako nagusiak edo umeak zaintzen. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 722 14 42 86

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke, baita garbiketa lanetan ere. Geriatriako titulua daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Haurrak zaintzeko prest.** Umeak zaintzeko prest nago, euskalduna eta esperientzia handia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 651 90 40 10

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Frantseseko eskolak emango dizkidan norbait behar dut Arrasaten. Hastapen mailakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 87 24 54

### 502. EMAN

**Debagoiena.** Hizkuntzen Psikopedagogian Lizentziatua eta Haur Hezkuntzan Diplomatua. Hainbat urtetako esperientzia. Eskola partikularrak ematen ditut Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Honez gain, euskara errefortzuak ematen ditut haur zein helduei, eta ikasketa plan pertsonalizatuak diseinatzen ditut pertsona bakoitzaren beharren arabera. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 62 05 15

**Ingelesa Bergaran.** Bergaran ingeleseko eskolak ematen ditut. Gazte eta helduei. Interesatuz gero ahozkotasuna bakarrik ere landu daiteke. Goizetan eta eguerditan. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara 637 52 89 83 edo 943 76 51 96

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Seat Panda Marbella.** Egoera oso onean dagoen Seat Panda Marbella salgai. 65.000 inguru kilometro ditu. Beti garajean gordetakoa. Interesatuok deitu 943 79 91 64 edo 656 78 50 75 telefono zenbakietara.

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Txakurkumeak.** Setter ingeles eta Setter Gordons arteko nahasketa duten txakurkume bi ematen dira opari. Bi hilabetekoak. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara 605 73 75 30 edo 607 65 53 51

**Txakurrak ematen dira.** Txakurtegia itxi behar dutelako han dauden 33 txakur hil behar dituzte. Hori dela eta, pertsona arduratsuei txakurrak emateko gertu daude. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara eta Monikarengatik galdetu: 629 27 82 38

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Gurpildun aulkia.** Gurpildun aulki motorduna salgai. Baita ibiltzeko aparailua eta txubaskeroa ere. Guztia 400 euroan saltzen dut. Deitu 652 76 21 63 telefono zenbakira.

### 802. EROSI

**Mendi eskirako botak.** Mendi eskirako botak erosiko nituzke, 38 zenbakia. Saltzeko badituzu bidali mezu bat maiderbeltzi@hotmail.com e-postara. Maider. 639 61 29 49

### 803. EMAN

**Aldizkariak.** "Pirineoak" eta "Integral" aldizkariak ematen dira opari. Aspaldiko aleak dira. 618 80 09 32

### 806. GALDU

**Eskularruak Bergaran.** Zapatuan, urtarrilak 12, Simon Arrieta eta Bidekurutzeta artean eskularruak galdu nituen, gauean. Beltzak eta azpiko aldetik grisak. 606 24 79 09

**Patinetea Bergaran.** Irala kalean hilaren 5ean, eguerdian, patinetea galdu genuen. Oxelo-Freestyle modeloa. Berdea, zuria eta beltza. 660 71 43 98 edo 943 53 30 30

**Txalekoa Bergaran.** Inork emakumezko txalekoa, ileduna, aurkitu badu Bergaran, dei dezala zenbaki honetara, mesedez: 678 43 31 23

### 807. AURKITU

**Apaingarria.** Aretxabaletako plazan, urtarrilaren 5ean, arratsaldean, brotxe edo apaingarri bat aurkitu genuen. Jabeak telefono honetara dei dezala. 699 86 17 79

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Musikari bila.** Arrasate aldean folk musika, irlandarra eta euskalduna, gustatu eta jotzen duten musikarien bila gabiltza etorkizunean 'session' batzuetan ekiteko (uilleann-a jotzen dugu). 645 73 12 16 edo 652 76 11 42

**LAN ESKAINTZAK**

**- UR ETA MANTENU TEKNIKARIA (bitarteko izendapena**
**- UDALTZAINEN LAN-POLTSA**
**- AUKEAko INFORMAZIO ETA IZAPIDETZE AGENTEEN LAN-POLTSA**

**Izena emateko epea:** urtarrilaren 23tik otsailaren 1 era arte (biak barne).

**Oinarri-arauak:** BAZen (goiz eta arratsalde) eta udaletxeko webgunean jaso daitezke: *www.arrasate-mondragon.org.*

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Pertsonal Saila**

# ASTEA GOIENAN


SERGIO AZKARATE

## Aratusteei begira jarriko da 'AsteOn'

Laster ditugu Aratusteak, eta jaian murgiltzeko deseatzen dauden hainbat gazterekin izan gara, euren prestaketak bertatik bertara ikusteko. Arrasateko sardina nola egiten dabiltzan ere ikusi ahal izango dugu gaur, egubakoitza, *AsteOn* saioan.

**'AsteOn'**
Egubakoitza, 22:00



GOIENA

## Berria Taldearen aldeko Ziztada Jaia

Arrasateko Amaia antzokian ospatu zen Berria Taldearen aldeko Ziztada Jaia. Ekitaldian, Debagoieneko hainbat pertsona ezagunek hartu zuten parte, eta ikuskizuna oso-osorik ikusteko aukera izango duzue gaur gauean.

**'Ziztada Jaia'**
Egubakoitza, 22:52

## GOIENA TELEBISTA

### EGUBAKOITZA, 25

**12:00** Planik bai?
**12:20** Magazinea
**13:05** Zorion Agurrak
**13:10** Gurean gaur
**13:40** Sakelekotik
**13:50** Onein
**14:20** Bizitegia
**14:48** Berriak
**15:08** Eguraldia
**15:11** Planik bai?
**15:31** Erreportajea
**16:01** Taula gainean
**16:31** Beranduegi.tv
**16:51** Zorion Agurrak
**16:56** Berriak
**17:16** Eguraldia
**17:19** Planik bai?
**17:39** Erreportajea
**18:09** Zorion Agurrak
**18:12** 28.Klip
**18:44** Beranduegi.tv
**19:08** Zorion Agurrak
**19:12** Berriak
**19:32** Eguraldia
**19:35** Planik bai?
**19:55** Goierri Creation Center
**20:28** Taula gainean
**20:58** Gurean gaur
**21:28** Euskodance 2012
**22:00** AsteON
**22:30** Berriak
**22:50** Eguraldia
**22:53** Ziztada jaia
**22:58** AsteON

### ZAPATUA, 26

**10:00** 28.Klip
**10:31** Zorion Agurrak
**10:36** Ekogune
**11:06** AsteON
**11:46** Planik bai?
**12:06** Onein
**12:33** Berriak
**12:48** Magazinea
**13:48** Erreportajea
**14:18** Taula gainean
**14:48** Zorion Agurrak
**14:53** Berriak
**15:08** Onein
**15:45** Planik bai?
**16:05** Taula gainean
**16:35** Zorion Agurrak
**16:40** Berriak
**16:55** Beranduegi.tv
**17:19** Magazinea
**18:19** Planik bai?
**18:39** Goierri Creation Center
**19:12** AsteON
**19:48** Beranduegi.tv
**20:12** Magazinea
**21:12** Planik bai?
**21:32** Erreportajea
**22:07** Ziztada jaia
**23:22** Ikusten
**23:55** Berbetan
**00:24** Magazinea

### DOMEKA, 27

**10:00** Ziztada jaia
**11:15** Erreportajea
**11:50** Zorion Agurrak
**11:55** Onein
**12:22** Magazinea
**13:22** Planik bai?
**13:42** Berriak
**13:57** Onein
**14:34** Ikusmira
**15:00** AsteON
**15:35** Zorion Agurrak
**15:40** Taula gainean
**16:10** Ekogune
**16:40** Berriak
**16:55** Magazinea
**17:55** Beranduegi.tv
**18:19** Magazinea
**19:19** AsteON
**19:54** Zorion Agurrak
**19:59** Ziztada jaia
**21:14** Ekogune
**21:44** Magazinea
**22:44** Berriak
**22:59** Erreportajea
**23:29** Atik Zra
**00:36** Berriak
**00:56** Eguraldia

### ASTELEHENA, 28

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Zorion Agurrak
**13:20** Onein
**13:37** Taula gainean
**14:07** Ekogune
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:10** Eguraldia
**15:13** Zorion Agurrak
**15:18** AsteON
**15:58** Erreportajea
**16:28** Zorion Agurrak
**16:33** Berriak
**16:58** Eguraldia
**17:01** Onein
**17:18** Ikusten
**17:51** Ekogune
**18:21** Goierri Creation Center
**18:51** Beranduegi.tv
**19:11** Erreportajea
**19:41** Zorion Agurrak
**19:46** Berriak
**20:11** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**20:58** Gurean gaur
**21:28** AsteON
**21:58** Harmailatik
**22:43** Berriak
**23:03** Eguraldia
**23:06** Magazinea
**23:51** Harmailatik
**00:01** Eguraldia

### MARTITZENA, 29

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Zorion Agurrak
**13:22** Harmailatik
**14:07** Ekogune
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:07** Eguraldia
**15:10** Harmailatik
**15:55** Onein
**16:21** Ikusten
**16:54** Berriak
**17:14** Eguraldia
**17:17** Atik Zra
**18:12** Beranduegi.tv
**18:32** Harmailatik
**19:17** Taula gainean
**19:47** Zorion Agurrak
**19:50** Berriak
**20:10** Eguraldia
**20:15** Magazinea
**21:00** Gurean gaur
**21:30** Goierri Creation Center
**22:03** Berriak
**22:23** Eguraldia
**22:28** Magazinea
**23:13** Bizitegia
**23:41** Berriak
**00:22** Berriak
**00:27** Eguraldia
**00:30** Magazinea

### EGUAZTENA, 30

**11:50** Magazinea
**12:35** Gurean gaur
**13:00** Ikusten
**13:48** Erreportajea
**14:20** Ikusmira
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Ziztada jaia
**16:23** Onein
**16:53** Harmailatik
**17:38** Berriak
**17:58** Eguraldia
**18:00** Ur eta lur
**18:29** Goierri Creation Center
**19:02** Zorion Agurrak
**19:05** Beranduegi.tv
**19:25** Erreportajea
**19:55** Berriak
**20:15** Eguraldia
**20:17** Magazinea
**21:02** Gurean gaur
**21:33** Erreportajea
**22:00** Ekogune
**22:30** Berriak
**22:50** Eguraldia
**22:52** Magazinea
**23:37** Harmailatik
**00:16** Eguraldia

### EGUENA, 31

**12:00** Magazinea
**12:45** Gurean gaur
**13:15** Erreportajea
**13:45** Ikusmira
**14:10** Onein
**14:40** Zorion Agurrak
**14:45** Berriak
**15:05** Eguraldia
**15:08** Ikusten
**15:41** AsteON
**16:21** Erreportajea
**16:51** Berriak
**17:11** Eguraldia
**17:14** Onein
**17:35** Ur eta lur
**18:04** Planik bai?
**18:24** AsteON
**19:04** Zorion Agurrak
**19:09** Berriak
**19:29** Eguraldia
**19:35** Beranduegi.tv
**19:55** Planik bai?
**20:15** Magazinea
**20:58** Gurean gaur
**21:28** Taula gainean
**21:58** Planik bai?
**22:18** Berriak
**22:38** Eguraldia
**22:41** Magazinea
**23:26** Erreportajea
**23:56** Berriak
**00:18** Planik bai?
**00:38** Berriak
**00:58** Eguraldia

## ARRASATE IRRATIA

### Asteko elkarrizketak entzuteko aukera zapatu eta domekan

Asteko gainbegiratua egingo dugu bihar, zapatua, eta etzi, domeka, 10:00etatik aurrera. Elkarrizketa hauek entzungo ditugu, besteak beste: Beñat Barrutia *(Porrotxin)*, erraldoi eta kilikiak konpontzen dabilen Joserra Perez eta Besaide mendi elkarteko Aitor Zubiaga.

### Gasteizko Siroko Ska taldea ikusteko sarrerak zozketan

Eguenean egingo dugu zozketa *Kooltur ostegunak* egitasmoko kontzerturako sarrerak lortzeko. Gasteizko ska musika taldearen kontzertuaz gozatu ahal izateko, lortu sarrerak 943 25 05 05 telefonora deituta edo idatzi mezu bat *irratia@goiena.com* helbidera. Zorte on.

# GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 25** | M.FCA. AZKOAGA | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Zapatua, 26** | FERNANDEZ | Aranbarri kalea, 1 | 943 79 22 26 |
| **Domeka, 27** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Astelehena, 28** | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Martitzena, 29** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Eguaztena, 30** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Eguena, 31** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea, 38 | 943 77 16 30 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 25** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Zapatua, 26** | ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| **Domeka, 27** | ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| **Astelehena, 28** | ALVAREZ-MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| **Martitzena, 29** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| **Eguaztena, 30** | ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Eguena, 31** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 25** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Zapatua, 26** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Domeka, 27** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Astelehena, 28** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Martitzena, 29** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Eguaztena, 30** | IGARTUA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguena, 31** | IGARTUA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |

**ARETXABALETA / ESKORIATZA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Egubakoitza, 25** | M.FCA. AZKOAGA | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Zapatua, 26** | FERNANDEZ | Aranbarri kalea, 1 | 943 79 22 26 |
| **Domeka, 27** | IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Astelehena, 28** | AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Martitzena, 29** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Eguaztena, 30** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Eguena, 31** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea, 38 | 943 77 16 30 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2012 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

# EGURALDIA ASTEBURUAN

## DEBAGOIENA


Max. 13º
Min. 5º


Max. 11º
Min. 4º

**ZAPATUA, 26**
Goizean euria izango dugu lagun, baina egunaren bigarren zatian, oro har, ostarteak zabalduko dira zeruan.

**DOMEKA, 27**
Tenperaturak behera egingo du zertxobait eta euri zaparradak zapatuan baino ugariagoak izan daitezke domekan.

## EUSKAL HERRIA




# GAZTE INFORMAZIOA

## BEKAK

**Kanadan batxilergoa egiteko 100 beka.** Amancio Ortega Fundazioa. Baldintzak: DBHko 4. ikasturteko ikaslea izatea, batez besteko nota gutxienez 8. Epea: otsailak 22.

**Nazioarteko batxilergoa egiteko 10 beka.** United World Colleges. Baldintzak: 1996an edo 1997an jaioa, DBHko 4. maila edo Batxilergoko 1. maila ikasten egotea, ikasketa-espediente ona izatea. Epea: urtarrilak 31.

## LANA

**Ruta Quetzal BBVA 2013 programako begiraleak.** (Ekainak 18-Uztailak 25). Ruta Quetzal BBVA. Baldintzak izango dira: 24-28 urte bitartean, unibertsitateko titulua izatea, sorosle titulua izatea. Azken eguna izango da otsailaren 15a.

**20 iturgin Alemanian.** MBS Maier Bereitstellungs-service Für Trocknungsgeräte. Baldintzak izango dira: Lanbide Heziketa, lan-esperientzia izatea, Alemaneko oinarrizko maila, gidabaimena izatea. Azken eguna izango da: urtarrilak 31.

## LEHIAKETAK

**Eurobask sariak.** Europari buruz ikerketa saria. UNIVERSITAS. Nori zuzendua: lizentziadunak edo goi mailako tituludunen ikerlariak. Epea: 2013ko martxoak 19. Hornikuntza: 8.000 euro.

**Arte plastikoen eta ondarearen arloko teknikaria.** Iruñeko Udala. Baldintzak: lizentziatura (hainbat espezialitatetan). Epea: urtarrilak 31.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net





### Pilar eta Julian

Urtarrilaren 26an, Pilar Arana Askasibarrek eta Julian Azkarate-Askasua Egurenek urrezko ezteiak ospatuko dituzte. "Zorionak eta musu handi bat, familia osoaren partetik. Txarrena egin duzue! Ondo ibili!".

## HILDAKOAK

**Iñaki Amutxastegi Elosua.** Bergaran, urtarrilaren 16an. 38 urte.
**Joaquina Cestau Polo.** Bergaran, urtarrilaren 17an. 83 urte.
**Jose Aristides Rodriguez Zamora.** Arrasaten, urtarrilaren 17an. 91 urte.
**Maria Angeles Usatorre Moreno.** Arrasaten, urtarrilaren 17an. 83 urte.
**Maria Carmen Sanz Diaz.** Arrasaten, urtarrilaren 17an. 77 urte.
**Justa Gonzalez Martinez.** Bergaran, urtarrilaren 18an. 76 urte.
**Juan Jose Sanchez Ruiz.** Eskoriatzan, urtarrilaren 18an. 62 urte.
**Jose Maria Urcelay Berrio.** Arrasaten, urtarrilaren 19an. 78 urte.
**Tomasa Etxagibel Urizar.** Arrasaten, urtarrilaren 19an. 90 urte.
**Francisco Cristobal de la Cruz Gonzalez**. Arrasaten, urtarrilaren 19an. 72 urte.
**Juliana Bengoa Lizarralde.** Oñatin, urtarrilaren 20an.
**Fernando Unanue Biguri.** Aretxabaletan, urtarrilaren 20an.
**Izaskun Arana Jauregi.** Arrasaten, urtarrilaren 21ean. 64 urte.
**Antonio Mellado Conti.** Bergaran, urtarrilaren 21ean. 52 urte.
**Pedro Maria Esteban Piquet.** Arrasaten, urtarrilaren 21ean. 78 urte.
**Feliciano Dominguez Zango.** Oñatin, urtarrilaren 23an. 66 urte.
**Miguel de Pedro Arrieta.** Bergaran, urtarrilaren 23an. 70 urte.

---

ESKER ONA

## Joaquina Cestau Polo



Jacinto Markiegi Laskurainen alarguna

Bergaran hil zen 2013ko urtarrilaren 17an, 83 urte zituela.

Joaquinaren familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak. Lerro hauen bidez, banaka egin ezin izanagatik, sendiarengana hitz lasaigarriekin hurbildu ziren guztiak eta hileta-elizkizunera agertu ziren denak eskertu nahi ditu.

**Bergaran, 2013ko urtarrilaren 25ean.**

---

ESKER ONA

## Jose Maria Urcelay Berrio



'Txema'

2013ko urtarrilaren 19an hil zen, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

—

Haren aldeko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 26an, 19:00etan, Arrasateko San Frantzisko elizan.

**Arrasaten, 2013ko urtarrilaren 25ean.**

---

ESKER ONA

## Justa Gonzalez Martinez



Manuel Gonzalezen alarguna

Bergaran hil zen 2013ko urtarrilaren 18an, 76 urte zituela.

Une honetan gurekin izandakoei, elizkizunetara etorritakoei eta samin agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko bihotz-bihotzez Justaren sendikoen izenean.

**Bergaran, 2013ko urtarrilaren 25ean.**

---

URTEURRENA

## Glori Ibabe Barrutia



Aretxabaletan hil zen 2012ko urtarrilaren 22an.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 27an, 11:30ean, Aretxabaletako Andra Mari parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

---

URTEURRENA

## Luisa Sagasta Agirre



Pedro Altunaren alarguna

2012ko urtarrilaren 23an hil zen, 93 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 27an, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

**Aldez aurretik eskerrik asko senideen izenean.**

---

URTEURRENA

## Maria Luisa Iñurritegi Azkarate

Oñatin hil zen 2012ko urtarrilaren 28an, 90 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 26an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko etxekoen izenean.**

---

MEZA

## Iñaki Amutxastegi Elosua

Apaiza

Urtarrilaren 16an hil zen, 38 urte zituela.

Bere oroimeneko meza domekan izango da, urtarrilaren 27an, 12:00etan Bergarako Santa Marina elizan.

**Santa Marina Elizako zuzendaritza batzordea.**
**Bergaran, 2013ko urtarrilaren 25ean.**

---

OROIGARRIA

## Juliana Bengoa Lizarralde



Cristobal Agirianoren alarguna

2013ko urtarrilaren 20an hil zen.

*Beti egon zara gure artean,*
*jarraitu egoten gure bihotzean.*
*Eskerrik asko, danari.*

—

Ondra meza zapatuan izango da, urtarrilaren 26an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

**Oñatin, 2013ko urtarrilaren 25ean.**

---

OROIGARRIA

## Fernando Unanue Biguri



Aretxabaletan hil zen 2013ko urtarrilaren 20an.

*Gauak eguna irentsi ohi du*
*ta ez dakigu zergatik*
*baina jarraian egunsentia*
*dizdizka pizten da betik.*
*Zure alaitasun ta bizi pozak*
*alde egin du hemendik*
*mila esker bihotzetik*

*zuk erakutsiagatik*
*gugan dago ia gorderik.*
*Ibarran edo Belorrietan*
*hor zaudela pentsaturik,*
*besarkada bat Fernando zuri*
*ta gero arte bakarrik.*

**Lagunak eta familia.**
**Aretxabaletan, 2013ko urtarrilaren 25ean.**

---

OROIGARRIA

## Eusebio Gomez Ruiz de Vergara

Helduen Eskolako ikaslea

*Bat egiten dugu familiaren saminarekin*
*Agur eta beti arte*

arrasate epa-hhi
helduen hezkuntza iraunkorra

**Arrasate EPA-HHI.**
**Arrasaten, 2013ko urtarrilaren 25ean.**

---

OROIGARRIA

## Juan Jose Sanchez Ruiz

2013ko urtarrilaren 18an hil zen, 62 urte zituela.

*Beti gure bihotzean.*

**Eskoriatzako garraiolariak.**
**Eskoriatzan, 2013ko urtarrilaren 25ean.**

---

OROIGARRIA

## Izaskun Arana Jauregi



Jose Inazio Uriarteren alarguna

*Beti gogoan izango zaitugu.*

**Zure kuadrila.**
**Arrasaten, 2013ko urtarrilaren 25ean.**

**ESKORIATZA Anger taldea**
Arrasateko laukoteak Bonberenea Ekintzekin elkarlanean kaleratutako *Hirugarren azala* disko berria aurkeztuko du Inkernun. Orain artekoa baino proposamen gordinagoa eta oldarkorragoa dakarte, bai musikan eta baita hitzetan ere. Bosgarren lana dute.
Bihar, zapatua, Inkernu tabernan, 23:00etan.


JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA


SARA ESCUDERO

**ELGETA Sara Escudero eta Miguel Iribar**
Elgetako I. Monologo Mostraren barruan Sara Escudero eta Miguel Iribar, Paramount Comedyko komikoa eta gidoilaria. Escudero *El Club de la Comedia*-ko azken irabazlea da. Sarrera leihatilan 12 euro; aurrez edo bazkideendako 10 euro.
Gaur eta bihar, egubakoitza eta zapatua, Espaloian, 22:30ean..

# NON-ZER

URTARRILAK 25
URTARRILAK 31

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**ANTZUOLA Organo entzunaldia**
Errukizko Amaren parrokian, Bergarako eta Azpeitiko musika eskoletako organo ikasleen emanaldia.
Gaur, egubakoitza, Errukizko Amaren parrokian 17:00etan.

**OÑATI Nekez eta McOnak**
Oñatiko gaztetxean metal eta folk-rock doinuak. Nekezek *Argiak piztu!* diskoa aurkeztuko du. Eta Lekeitioko McOnak taldeak Irlanda aldeko taberna giroa jarriko du.
Bihar, zapatua, Oñatiko gaztetxean 22:00etan.

## ANTZERKIA

**ARRASATE 'Printzea eta ahatea' antzezlana**
Haur antzerkia Gorakada taldearen eskutik. Antzezlanak lagun bat edukitzea baino gauza handiagorik ez dagoela kontatuko du.
Bihar, zapatua, Amaia Antzokian 17:00etan..

## IKUSKIZUNAK

**BERGARA 'Sustraiak han dituenak' monologoa**
*Sustraiak han dituenak* monologoa, Goio Arrietarena. Sarrera 8 euro izango da.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan 22:00etan

## DANTZA

**ARRASATE Herrixa Dantzan**
Gidatutako dantzaldi irekia, Euskal Herriko eta Europako beste eskualde batzuetako dantza ludikoekin osatutakoa: sokan, taldean, korruan, bikotean... Sarrera doan eta parte hartzea libre. Antolatzailea, Portaloi elkartea.
Gaur, egubakoitza, Garaia taberna-jatetxean 20:00etan.

## JAIAK

**BERGARA San Paulo jaiak**
San Paulo jaiak ospatuko dituzte Ubera auzoan. 11:00etan meza; 11:30ean salda eta txistorra; 20:30ean Mari justa eta Pedro Joxeren jaitsiera, poteoa; 21:00etan afaria eta ondoren *photocall* saioa. Zapatuan: 12:00etan salda eta txistorra; tortilla eta tarta txapelketa; 14:30ean, herri bazkaria, eta ondoren argazki erakusketa. Domekan 10:00etan diana; 11:30ean meza; eta, 11:30ean Alai taldearen emanaldia eta Bergarako trikitilari gazteen emanaldia. Ondoren, Uberako IV. Ugarixo Tiroketa.
Aste bukaeran Ubera auzoan 11:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**ARRASATE Al-Andalus elkartearen 23. urteurren jaia**
Al-Andalus elkarteak 23. urteurren jaia ospatuko du domekan Arrasaten bertan duten elkartean. 12:30ean ongietorria izango dute Andaluziako ardoa dastatuz; 15:00etan bazkaria Aguraingo Sarayola *catering*-ak eskainita; eta 16:00etan dantzaldia DJ Dani Marquezen eskutik. Bazkariko informazio gehiago elkartearen iragarki-taulan.
Etzi, domeka, Al-Andalus elkartean 12:30ean.

## UMEAK

**ELGETA Saskibaloia haurrendako**
Saskibaloi jardunaldia Aitor Gorostiza elgetarraren eskutik. Antolatzaileak: Elgetako Udala eta Bergara KE. Ume guztiendako, bereziki 6. mailakoendako datorren urtera begira saskibaloi aukera izan dezaten Bergaran.
Gaur, egubakoitza, Kiroldegiko gimnasioan 18:30ean.

## ERAKUSKETAK

**BERGARA Mikel Mitxelenaren erakusketa**
Mikel Mitxelenaren erakusketa, otsailaren 10era arte.
Gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan 18:00etan.

## IRTEERA

**DEBAGOIENA ELGETA Bisita gidatua Intxortako frontera**
Prezioa bost euro da. 6 urtetik beherakoak doan eta 6-16 urte bitartekoendako bi euro. Ezinbestekoa aurrez izena ematea. 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefono zenbakietan.
Etzi, domeka, Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan (Espaloia) 10:00etan.

## BESTELAKOAK

**ELGETA Dinamizatzailea KZgunean**
Ikastaroak doan egiteko aukera egongo da dinamizatzaileen laguntzarekin, KZgunean.
Urtarrilaren 28a, astelehena, Kultura etxeko KZgunean 16:30ean.

**ESKORIATZA KZguneko tutorea**
KZguneko dinamizatzailea liburutegian izango da nahi duenari laguntza emateko.
Urtarrilaren 30a, eguaztena, Liburutegian 16:30ean.

**ELGETA Karta jokoa**
Xalbadorpe erretiratu elkarteak antolatuta karta jokoa erretiratuendako. Briskan eta tutean jokatzeko aukera izano dute erretiratuek. Irabazleendako opariak egongo dira.
Urtarrilaren 30a, eguaztena, Ozkarbi elkartean 16:00etan.

**OÑATI 'Ipuinez ipuin' antzerkia**
4 eta 8 urte arteko haurrei zuzendutako *Ipuinez ipuin* antzezlana eskainiko dute gaztelekuan. Ipotx Burumotz izango da antzezlaneko protagonista; eta lagun izango ditu Hasier eta Amaia neba-arrebak. Antzezlanaren iraupena 45 minutukoa izango da, eta sarrera, ostera, 2 euro izango da.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 12:30ean.


IPUINEZ IPUIN

## DEIA

**OÑATI Atez atekoari buruzko bilera**
Atez atekoari buruzko bilera: Zubillaga auzoa.
Urtarrilaren 30a, eguaztena, Zubillagan 10:00etan.

**OÑATI Atez atekoari buruzko bilerak**
Otadui zuhaiztia, Kale Zaharra, San Juan kalea, Lizaur kalea, Kanpantxo, Aita Madina, Aita Mortara, Unibertsitate etorbidea eta Kurtzekua. Kale horietako atarietako arduradunak daude, bereziki, deituta. 10:00etan edo 19:00etan.
Urtarrilaren 29a, martitzena, Zuazola institutuan 10:00etan.

**ARETXABALETA Odol ateratzea**
Arabako odol bankuko kideek odol ateratzeak egingo dituzte osasun etxean. Gainera, *Lagun bat ekarri* kanpaina jarri dute abian odol emaile bakoitzak lagun bat eraman dezan odola ematera.
Urtarrilaren 28a, astelehena, Osasun etxean 16:30ean.

**OÑATI Atez atekoari buruzko bilerak**
Errementeri plaza, Zubibarri, Bidebarrietta, Auzabarri, Mikel Aozaratza, Montxon kalea, Roke Azkune, Arantzazuko Ama eta Ultzegin. Kale horietako atarietako arduradunak daude, bereziki, deituta bilerara. 10:00etan edo 19:00etan.
Urtarrilaren 28a, astelehena, Santa Ana antzokian 10:00etan.

**DEBAGOIENA Sortu eratzeko bilera**
Batzarrak zapatuan izango dira: Eskoriatzan: 10:00etan, Ibarraundin. Aretxabaletan: 09:00etan, Arkupen. Arrasaten, 09:30ean, Kulturaten. Bergaran, 10:00etan, Irizar Jauregian. Oñatin, 09:00etan, Gaztelekuan. Antzuolan, 09:00etan, udaletxean; eta Elgetan, gaur, 19:00etan, kultura etxean.
Gaur eta bihar, egubakoitza eta zapatua.

## LEHIAKETAK

**ARAMAIO Euskal Herriko mus txapelketaren lehen kanporaketa**
Euskal Herriko mus federazioak mus txapelketa antolatu du aurten ere. Aramaion lehen kanporaketa jokatuko da aste bukaera



XABI REZABAL

**ARETXABALETA Screamers&Sinners eta Papalagi**

Aretxabaletako Screamers&Sinners taldeak eta Oñatiko Papalagi taldeak kontzertua eskainiko dute Haizea tabernan. Oñatiarrek punk-rock doinuak egiten dituzte eta aretxabaletarrek, ostera, *psychobilly* delakoa. Doan izango da emanaldia.
Bihar, zapatua, Aretxabaletako Haizea tabernan, 19:30ean.

honetan. Irabazlea hurrengo fasea jokatzeko sailkatuko da.
Bihar, zapatua, Eki tabernan 16:00etan.

**ARETXABALETA Euskal Herriko mus txapelketaren kanporaketa**
Urbaltz elkartean jokatuko dute Euskal Herriko V. mus txapelketaren kanporaketa. Izena bertan eman behar da (20 euro bikoteko). Bikote irabazlea Gipuzkoako txapelketarako sailkatuko da.
Bihar, zapatua, Urbaltz elkartean 16:00etan.

## IKASTAROAK

**ESKORIATZA Capoeira ikastaroa**
Senzala Euskadi elkarteak hasi berriendako capoeira ikastaroa antolatu du. Azkeneko saioa izango da.
Urtarrilaren 30a, eguaztena, Pilotalekuko gimnasioan 20:00etan.

**ESKORIATZA Azalaren zainketa eta automakillajea**
Azalaren zainketa eta makillaje ikastaroa antolatu du Amuska elkarteak. Urtarrilaren 28an eta 29an izango da, eta bi saio egingo dituzte: 16:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.
Urtarrilaren 28a, astelehena, Kultura etxean 16:00etan.

**ARETXABALETA Bat-bateko sorkuntza saioa**
Jaiki elkarteak antolatuta bat-bateko sorkuntza saioak egingo dituzte hilabeteko azken domeketan, kuartel zaharrean. Musika, dantza, antzerki edo arte ederren zaleendako saioak; ez da behar inolako eskarmenturik. Debalde.
Etzi, domeka, Kuartel zaharrean 17:30ean.

**ANTZUOLA Fandango eta arin-arin ikastaroa**
Fandango eta arin-arin ikastaroa eskainiko dute zapatu goizean gaztetxean.
Bihar, zapatua, Antzuolako gaztetxean 11:00etan.

**ESKORIATZA Formakuntza ikastaroa**
Eskoriatzako Amuska emakumeen elkarteak ikastaroa antolatu du. Etxea, negozioa, elkartea... kudeatzen erakutsiko dute ikastaro horietan.
Gaur, egubakoitza, Kultura etxean 17:00etan.

**BERGARA 'Sormena lantzeko' ikastaroa**
Urtarrilaren 25ean eta otsailaren 1ean *Sormena lantzeko* ikastaro trinkoa eskainiko du Laia Bedos Bonaterrak. Hezitzaileei argibideak emango zaizkie umeen sormena nola piztu jakin dezaten. Tailerra sei ordukoa izango da: bi ordu teoria izango da eta beste lau orduak praktika.
Gaur, egubakoitza, San Martin Agirre herri eskolan 17:00etan.

## KIROLA

**ELGETA Kantsatzeke: bazkidetza eta federatu txartela**
Elgetako Kantsatzeke mendi taldeak bazkidetza eta federatu txartela ateratzeko aukera emango du urtarrileko eta otsaileko eguaztenetan, 19:00etatik 20:00etara, kultura etxeko bigarren solairuan. Eskatu dute egindako mendi irteeretako argazkiak eroateko.
Urtarrilaren 30a, eguaztena, Kultura etxeko 2. solairuan 19:00etan.

**ELGETA Futbito txapelketa azkarra**
Futbito txapelketa azkarra jokatuko dute: 16:30ean Jaitxo eta Intxorta's Crew izango dira nor baino nor gehiago. Epaile lanetan Astuan Villa taldea ibiliko da. 17:30ean, ostera, Bajaon eta Gaztiak lehiatuko dira. Etxaon izango da epailea.
Bihar, zapatua, Udal pilotalekuan 16:30ean.

**ELGETA Futbito txapelketa azkarra**
Futbito txapelketa azkarra jokatuko dute: 10:30ean Txapela eta Tzibaz United izango dira nor baino nor gehiago. Epaile lanetan Naste Borraste taldea ibiliko da. 11:30ean, ostera, Naste Borraste eta Astuan Villa lehiatuko dira. Epailea Tzibaz United taldea izango da.
Etzi, domeka, Udal pilotalekuan 10:30ean.

**ARETXABALETA Puzgarriak kiroldegiko igerilekuan**
Puzgarriak izango dituzte neska-mutikoek Ibarra kiroldegiko igerilekuan. Hona ordutegia: 3-6 urte artekoak (gurasoekin), 16:00-17:00; 7-10 urte artekoak (gurasoekin), 17:30-18:45; eta, 11-12 urte artekoak, 18:45-20:00. Abonatuek debalde dute sarrera, gainerakoek 5 euro ordaindu beharko dute.
Bihar, zapatua, Ibarra kiroldegian 16:00etan.

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**The master**
Domekan: 19:30.
Astelehenean: 20:30.

**Amigos para siempre**
Domekan: 17:00.

**Headhunters**
Martitzenean: 20:30.

**GAZTETXEA**

**Gueto 2009**
Domekan: 18:30.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**La conspiracion**
Domekan: 19:30.

**Madagascar 3**
Domekan: 17:00.

**Brad**
Eguaztenean: 20:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Los miserables**
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:30.
Domekan: 19:30, 22:30.
Astelehenean: 19:30.

**El alucinante mundo de Norman**
Zapatuan eta domekan: 17:00.

**Tiempos que hablar de Kevin**
Eguena; 20:00.

### ARETXABALETA

**ZARAIA ARETOA**

**Operacion E**
Egubakoitzean eta zapatuan:22:00
Domekan: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Amor bajo el espino blanco**
Eguena: 19:30

### EIBAR

**COLISEO**

**Una pistola en cada mano**
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

**La hija de mi mejor amigo**
Egubakoitzean: 22:30.
Zapatuan: 19:45, 22:30.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

**COLISEO ANTZOKIA**

**Django desencadenado**
Egubakoitzean: 22:45.
Domekan: 20:00.
Astelehenean: 20:30.

### GASTEIZ

**FLORIDA**

**El lado bueno de las cosas**
Egubakoitzean: 17:30, 20:00, 22:30, 0:35.
Zapatuan: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30, 0:35.
Domekan: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**La banda Picasso**
Egubakoitzean eta zapatuan: 16:45, 20:50, 22:45, 0:35.
Domekan: 16:45, 20:50, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 22:30.

**Amor**
Egubakoitzetik domekara: 18:35.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**El cuarteto**
Egubakoitzean eta zapatuan: 16:45, 20:50, 22:45, 0:35.
Domekan: 16:45, 20:50, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 22:30.

**Volver a nacer**
Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Lincoln**
Egubakoitzean: 17:00, 19:50, 22:45.
Zapatuan: 12:00, 17:00, 19:50, 22:45.
Domekan: 12:00, 17:00, 19:50.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:45.

**Django desencadenado**
Egubakoitzean eta zapatuan: 16:45, 19:40, 22:35.
Domekan: 17:00, 20:15.
Astelehenean eta eguenean: 17:30, 20:30.

**Los miserables**
Egubakoitzetik domekara: 19:45.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

**La noche mas oscura**
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:00, 22:30.
Domekan: 17:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Rompe Ralph!**
Zapatuan eta domekan: 12:00, 16:45.

**Bestias del sur salvaje**
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:30, 20:30, 22:30, 0:30.
Domekan: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**GORBEIA**

**El vuelo**
Egubakoitzetik domekara: 16:00, 18:45, 21:30, 0:15.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 21:15.

**El lado bueno de las cosas**
Egubakoitzean eta domekan: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatuan: 17:00, 19:30, 22:00, 0:30.
Astelehenetik eguenera: 19:10, 21:30.

**Movie**
Egubakoitzetik domekara: 18:20, 20:20, 22:20.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:20.
Zapatuan eta domekan, baita: 16:20.
Astelehenetik eguenera: 18:20, 20:20.

**Balleta: La bayadera**
Domekan: 16:00.

**Lincoln**
Egubakoitzean eta zapatuan: 19:00, 22:15.
Zapatuan, baita: 15:45.
Domekan: 17:15, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

**Django desencadenado**
Egubakoitzean eta zapatuan: 15:30, 18:45, 22:00, 17:30, 20:45.
Domekan: 16:15, 19:30, 18:00, 21:15.
Astelehenetik eguenera: 18:45, 20:00.

**La noche mas oscura**
Egubakoitzetik domekara: 18:40, 21:45.
Astelehenetik eguenera: 20:50.

**Jack Reacher**
Egubakoitzetik domekara: 21:30.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:10.
Astelehenetik eguenera: 21:30.

**Lo miserables**
Egubakoitzetik domekara: 19:40.
Astelehenetik eguenera: 18:40.

**El cuerpo**
Egubakoitzetik domekara: 22:40.
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:50.
Astelehenetik eguenera: 21:40.

**El hobbit**
Egubakoitzetik domekara: 18:20.
Astelehenetik eguenera: 18:20.

**El hobbit 3D**
Zapatuan eta domekan: 15:30.

**Lo imposible**
Egubakoitzean eta zapatuan: 0:00.

**Grupo 7**
Egubakoitzean eta zapatuan: 0:50.
Astelehenetik eguenera: 22:00.

**Blancanieves**
Egubakoitzetik domekara: 22:45.
Astelehenetik eguenera: 22:00.

**La vida de Pi**
Zapatuan eta domekan: 15.30.

**Rompe Ralph!**
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

**Origen guardianes**
Zapatuan eta domekan: 15:30.

**Alucinante mundo de Norman**
Zapatuan eta domekan: 16:20.

**BOULEVARD**

**El vuelo**
Egubakoitzean:18:45, 21:30, 0:15.
Zapatuan eta domekan: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:45, 21:30.

**Movie**
Egubakoitzetik domekara: 18:05, 20:10, 22:15.
Astelehenetik eguenera: 19:10, 21:20.

**El lado bueno de las cosas**
Zapatuan eta domekan: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 21:30.

**Balleta: La bayadera**
Domekan: 16:00.

**Django desencadenado**
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:30, 18:45, 20:45, 22:00.
Domekan: 16:15, 17:30, 19:30, 20:45.
Astelehenetik eguenera: 19:00, 20:00.

**El cuerpo**
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

**Lincoln**
Egubakoitzean eta zapatuan: 15:45, 19:00, 22:15.
Domekan: 17:45, 21:00.
Astelehenetik eguenera: 19:15.

**Jack Reacher**
Egubakoitzean eta zapatuan: 19:40, 22:20.
Domekan: 22:40.
Astelehenetik eguenera: 21:40.

**El hobbit**
Egubakoitzean eta zapatuan: 23:30.
Domekan: 21:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

**El hobbit 3D**
Domekan: 19:30.

**La noche mas oscura**
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:15, 21:30.
Domekan: 18:15, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 20:30.

**The master**
Egubakoitzean eta zapatuan: 0:00.

**Los miserables**
Egubakoitzeane ta zapatuan: 20:10.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

**Rompe Ralph!**
Egubakoitzean eta zapatuan: 15:50, 18:00.
Domekan: 15:50.

**La vida de Pi**
Zapatuan: 15:30.

**Lo imposible**
Domekan: 22:45.

**El origen de los guardianes**
Zapatuan eta domekan: 15:30.

**Volver a nacer**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 19:55, 22:25.
Astelehenetik eguenera: 18:50, 21:25.

**El alucinante mundo de Norman**
Zapatuan eta domekan: 15:35.

**La sesiones**
Egubakoitzean eta zapatuan: 0:50.

## KRITIKA

**LA NOCHE MAS OSCURA**
★★★☆☆
**Zuzendaria:** Kathryn Bigelow.
**Herrialdea:** AEB.
**Urtea:** 2012.
**Aktoreak:** Jessica Chastain, Jason Clarke, Joel Edgerton.
**Iraupena:** 157 minutu.



# Bilaketa obsesiboa

Munduan gertatzen diren gudu eta gatazka armatuak agertzen dira Kathryn Bigelow-ren azkeneko filmeetan. *En tierra hostil*-en Irakeko gerra, edo nahi baduzue inbasioa, ukitu zuen. Bonbak desaktibatzen dituzten gudariak ziren istorioaren protagonistak. Kasu hartan ez zituen gatazkaren zergatiak aztertzen. Zuzendariak harian mugitzen diren pertsonaien bizitza azaltzen zuen. Horien bizimodua eta egoera horiek sortzen dituzten menpekotasunei buruz hitz egiten zuen. Orain, *La noche más oscura*-rekin, *En tierra hostil*-ekin zerikusi handia duen beste film bat egin du. Jorratzen duen istorioak Bin Ladenen harrapaketa eta hilketaren prozesu guztia kontatzen du. Filmak kronika formula erabiltzen du; hau da, CIAren mugimenduak erakusten ditu: emandako tratu txarrak, egindako ikerketak, informazio loturak eta jarraitutako arrasto guztiak (batzuk faltsuak, beste batzuk benetakoak). Hainbat informazio sortzen dira eta hari guztiak lotu behar dira helburua lortu arte. Hori dena ikusi ondoren, azken ordu erdian, Bin Ladenen harrapaketa errealismo osoz heltzen zaigu. Beste alde batetik, kronika errealista honekin batera prozesuaren ikertzaile nagusiaren istorioa ezagutuko dugu. Maya da ikertzailearen izena. Afganistan eta Pakistanen mugituko da Bin Ladenen arrastoa jarraitzen. Urte askoko prozesua da, eta, denbora aurrera doan neurrian, Mayak jasaten duen egoera obsesiboa jarraituko dugu. Lanak bere bizitzako ordu guztiak beteko ditu eta bere helburua lortzeko gainditu beharko dituen traba eta arazo guztien lekuko izango gara. Hala, filmak bi istorio edo istorio baten bi alderdiekin jokatuko du.

*La noche más oscura*-k sinesgarritasuna du. Bizitzaren ukitu erreala du. Ikusten duguna modu indartsuan heltzen zaigu. Sumatzen da ikerketaren aldetik lan handia egin dela, eta zuzendariak datu horiek zinema bihurtu ditu.

ANTONIO ZABALA

## TIRA-BIRAKA






## BUKATZEKO

# Aretxabaleta bolo-bolo hedabideetan

- Telefono-kabina gainean objektu misteriotsuak agertu dira: basurdea, barruko arropak, motorra...
- Albiste bitxiak berehala egin du salto hedabideetara, baita Espainiako prentsara ere

ARRITXU BARRUSO | ARETXABALETA

Debagoieneko eta Euskal Herriko mugak gainditu eta Espainiako hedabideetara egin du salto *Arechavaleta*-k. Bai, *ch* eta *v*-rekin irakurri ahal izan dugu gure ibarreko herriaren izena Intereconomiaren *La Gaceta* egunkarian. Arraroa den arren, gainera, ez dira politika kontuak izan Aretxabaleta Espainiako hedabide ultrakontserbadorera eraman dutenak, telefono-kabina misteriotsua baizik. Izan ere, azkenaldian gauza misteriotsuak eta harrigarriak ari dira gertatzen Aretxabaletan.

Azaroan hasi zen dena, hildako basurde bat agertu zenean Durana kaleko kabina gainean. Ordutik hona, toki berean, barazkiak, emakumezkoen barruko arropak eta motor bat agertu dira.

### Hedabideetan bolo-bolo

Aretxabaletako misterioa berehala zabaldu zen komunikabideen artean. *Sustatu.com* albisteen Interneteko atarian ere erantzun dezente jaso zituen albisteak, eta Twitterren ere, espero moduan, hautsak harrotu zituen kontuak. Espainiako hedabideek ere gustura hartu dute Aretxabaletatik iritsitako albiste freskagarria.






Basurdea izan zen lehenengo agertu zen gauza eta motorra azkena. | GOIENA

### Alkatea umoretsu

Herriko alkatea ere lanpetuta ibili da azkenaldian kazetarien galderak erantzuten. Dena dela, baikortasunez eta umore handiz hartu ditu Ana Bolinaga alkateak agerpen misteriotsuak. Euskal Herri mailako irrati batean egindako adierazpenetan azaldu zuen aretxabaletarrek sormenerako daukaten gaitasunaren adierazle dela kabinaren misterioa.

Aretxabaletarren atentzioa ere bereganatu du getakariak. Nor dago misterioaren atzean? Esku bakarra da? Ala esku bat baino gehiago dira? Kontua da misterioa argitzen joate aldera aretxabaletarrak hurrengo objektu misteriotsua zein izango den ikusteko irrikaz daudela. Aratusteen bueltan aretxabaletarrak zoratu egiten dira; horrenbestez, hurrengo zer? Auskalo!




Albistea Eitb-n. | EITB.COM




*La Gaceta*-k ere jaso du. | INTERECONOMIA




*Sustatu*-n ere landu dute. | SUSTATU.COM

## AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



### 10 urte igaro eta gero

Catalunyako parlamentuak Catalunya burujabea dela onartu du. Etorkizunean zer izan nahi duen erabakitzeko pauso garrantzitsua. Oraindik ez dago argi ze ibilbide izango duen honek. Han-hemenka, euskal ahots desberdinek aipatzen dituzte Catalunyan ematen ari diren pausoak lorpen historiko bezala eta beharbada han hala izango da. Baina ahaztu egiten zaigu gurean pauso horiek guztiak eman ditugula orain dela 10 urte. Ibarretxe lehendakariak proposamen bat aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean Euskadiren erabakitzeko eskubidea eta galdeketa abian jartzeko. Gehiengoz onartua izan zen Gasteizen, baina Ezker Abertzaleak hiru bozka bakarrik eman zizkion alde eta beste hiru aurka. 3-3=0. Aukera historikoa zen orduan ere, baina abertzaleok gure artean ez ginen ados jarri. "Bai baino ez" horrek adierazten du zenbait sektore ez zegoela oraindik prestatuta abertzaleon arteko adostasunera iristeko. Zentzu horretan, kataluniar abertzaleek adibide ona eman digute. Xenpelarrek esan zuen XIX. mendean: "Gaitzak gerade umiltzen eta pakean unitzen, ez da errez ibilltzen anaiak alkar illtzen,-zer dan entenditu gabe; hortan galduko gerade!".

2013 urtarrila | otsaila
Elgetako Espaloia kafe antzokian
Elgetako
I. MONOLOGO MOSTRA
KAFE ANTZOKIA espaloia ELGETA





Urtarrilak 25 eta 26 - 22:30
SARA ESCUDERO eta MIGUEL IRIBAR
'No controlo mi vida' 'Superdepredador'
Sara Escudero El Club de la Comediako azken irabazlea da.
Miguel Iribar Paramount Comedyko komikoa eta gidoilaria.
Sarrera: 12-10 euro.
sarrerak erosteko: www.espaloia.com